

Hegats

Literatur aldizkaria

32



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Hegats

Literatur

aldizkaria



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

IDAZKUNTZA-KONTSEILUA

Burua: Tere Irastortza
Kideak: Jon Benito
Andolin Eguzkitza
Maite Gonzalez
Koordinatzailea: Ana Urkiza
Disseinua eta maketazioa: K3 Inprimategia
Amillaga, 1 - 6. pabiloia. 20570 Bergara

Euskal Idazleen Elkarte

Zurriola hiribidea, 14-1. ezk.
20002 Donostia
Tel.: 943.27.69.99. Faxa: 943.27.72.88
P.E.: eie@eie.euskalnet.net

ISSN: 1130-2445
L.G.: SS-359/90

**Euskal Idazleen Elkarteak ez ditu derrigorrean beregain hartzen
Hegats aldizkariko kolaboratzaileen iritziak.**

Hitzaurrea 7

Literaturbideak:

Antonia Vicens. *Nire bizitzako itsasargia*. 11
 Olga Xirinacs. *Itsasoa ondareztat*. 17
 Henrike Knörr. *Zuri, euskal gazte horri*. 23

Kritikabideak:

Edorta Jimenez. *Itzultzaile patologikoak*. 31

Txosten monografikoa: Zientzia-Fikzioa.

Iban Zaldúa. *Zenbait gogoeta zientzia-fikzioaren inguruan*. 47
 Begoña del Teso. *Baina, benetan egiten dute amets ardi elektrikoekin?* 89

Elkarrizketa:

Emilio Lopez Adan “Beltza”. *Utopia eta kontrautopia, aurkia eta ifrentzua*. Lorea Agirre. 101

Liburu-iruzkinak:

GIBSON, WILLIAM. *Neuromancer*;
 PHILIP K. DICK. *Minority Report y otras historias*.
 Joanes Urkixo. 119
 KINTANA, XABIER. *Beste izakia*;
 KINTANA XABIER. *Ukronia*. Ana Urkiza. 131

Esku artean dugun *Hegats* aldizkariaren 32. zenbaki honen gai nagusia Zientzia-Fikzioa da.

“Txosten monografikoa” izeneko atalean, Iban Zalduaren “*Zenbait gogoeta zientzia-fikzioaren inguruan*” izeneko txosten mardul eta interesgarria dugu irakurgarri, eta txosten honen lagungarri Begoña del Tesok idatzitako “*Baina, benetan egiten dute amets ardi elektrikoekin?*” artikulua hunkigarria, zientzia-fikziozko literaturak, gaur egun, pantaila txikitik edaten duela esatera ausartzen delarik.

“Literaturbideak” atalean, itsasoaren eragin suntsigarria deskribatuko digu Antonia Vicens-ek bere “*Nire bizitzako itsasargia*” izeneko lanean eta Olga Xirinacs, ostera, “*Itsasoa ondareztat*” lanaren bidez, itsasoa Jainkoen eskutik jasotako bitxia dela esatera datorrigu. Testu bi hauek, 2000. urtean Lekeition “*Berba kresaltsuak*” izenburupean antolatutako Galeuscan irakurri zituzten egileek. Biak ala biak dira katalanofonoak (lehenengoa uharteetakoa eta printzerrikoa bigarrena) eta Jesus Lasak itzuli ditu. “*Literaturbideak*” atala ixteko, Henrike Knörr-en “*Zuri, euskal gazte horri*” izeneko poema luzea aurkituko duzu.

“Kritikabideak” sailean, Edorta Jimenez-en “*Itzultzaile patologikoak*” dugu irakurgai, itzulpengintzaren inguru eta praktikan oinarritutako gogoetak dakarkizkigularik.

“Elkarrizketa” atalerako, aurreko alean, 32. zenbaki honetan, Joxe Azurmendi izango genuela iragarri bagenuen ere, ezinezkoa izan zaigu elkarrizketa hori gauzatzea, eta horren lekuan Emilio Lopez Adan “Beltza”-ri Lorea Agirrek egindako elkarrizketa ezin interesgarriagoa dakargu.

Eta finitzeko, “Liburu-iruzkinak” atalean, zientzia-fikzioaren gaiari helduta, berriro ere, Joanes Urkixok William Gibson-en *Neuromancer* gogoangarria eta Philip K. Dick-en *Minority Report y otras historias* liburuak iruzkintzen ditu; eta Ana Urkizak, bestalde, Xabier Kintanaren *Beste izakia* eta autore beraren *Behin batean* liburuko Ukronia ipuina.

Literaturbideak



Antonia Vicens

Olga Xirinacs

Henrike Knörr

ANTONIA VICENS

Nire bizitzako itsasargia
Itzulpena (gazteleratik): Jesus Lasa

Ez nintzateke ausartuko esaten nire lehen amets-zatitxoan itsas olatu bat zaldika azaldu ote zitzaidan.

Aldiz, ziur esan diezazueket itsas usainek berehalaxe baldintzatu-ko zidatela ingurunearen oharmena, artean -zutik egongo banin-zen- aulkiei heldu behar izaten nien neskatoa nintzela.

Arrain-usaina baldin bazen, banekien argia izango zela etxean, po-za ohean, txokolate-ontzaren bat eta, inoiz, zapata berriak ere bai. Bai-na alga- usaina baldin bazen, herriko arrantzaleen etxe guztiak ilun-zen ziren eta emakumezkoen aurpegiak nahigabetuak ikusten, bel-dur baitziren mahaira ateratzeko plater berorik ez ote zuten izango.

Geroago, hitzak gorpuzten hasi zirenean, hitz guztiak itsasoarekin zuten zerikusia, hasieran. *La festa de tots els morts* (Hildako guztien festa) eleberrian -arrantzaleen munduari zuzendutako begirada erruki-tsua-, protagonistak, inguruan dituen gauzen esanguraz jabetzen ari den neskato liluratuak, esaten du: "Eta urpeko txikikeria fluoreszente haiei arrainak zeritzen, eta aitak batzuetan harrapatzen zuen animalia handi hari meroa, eta baita arraina ere, eta ehun mila koloretako ezin konta ahala animaliatxok izen desberdinak zituzten, eta arrainak esa-ten zitzaien orobat. (...). Gau askotan, berandu hartzen zuen loak ize-nekin gogoetan...". Une bat iritsi zen, eguzkiak eta kresalak konkortu-tako pertsona haien eguneroko zereginari so, non neskatoa ohartu bai-zen "nozitzea, negar egitea, sufritzea, guztiari oinazea deritzola".

Alegia, jauzika joan beharko du, otarrain baten antzera, bere itsas hiztegiko tripulazioarekin batera, nahigabearen eta bakardadearen harkaitz-oztopoak barneragotik ulertzera iritsi nahi badu. Aurrera-go nire istorioak inguratuko dituen paisaia, hain zuzen, eta haiek

uharte bihurtuko dituen. Material arriskutsua, nabigatzaileena edozein haizeren artean, eta horrekin batera, bultzada izpirituala duena, sarritan, olatuak bezala, zorion-irrikak eta itxaropena inguratzen dituzten harkaitzen kontra apurtuko dena.

Zeren eta Kalara txango egitea, bizikletan, bainu-jantzia soinekoaren azpitik eta bazkaria, otzara txiki batean, bizikletaren eskulekutik zintzilik, ez zen prezeski neska laguneren artean hilerriko aldapa nork lehenago igo lehiatu eta, bat-batean uretan busti bat hartzea. Beti zegoen arrantzale zahar nostalgikoren bat, itsasargi aldera begirarazten ziguna. Garatxo moduko bat zirudien Kalako ahoaren herensuge-muturraren gainean. Harantzago, potin apurtuak eta hilotz higituak biltzen dituen itsaso handiaren matrailezur eskergak eta sabel neurrigabea.

Esana ziguten, gerra denboran, Pere patroiak, Benetek, Jaumek eta beste askok, goiz batean, argia urratu baino askoz lehenago, amarrak askatu eta ihes egin zutela. Errepublikaren aldekoak ziren eta beldurra izan zuten. Inork ez daki portu laguneren batean aingurazterik izan ote zuten ala, uhin batek astindurik, hondora joan ziren. Beharbada, egunen batean, sagailoak itzuliko dizkigu, eguraldi gaiztoko gau batean urperatutako arrantzaleekin batera.

Horrela, bada, txalupa-artearen igeri egitea herriko eta familiako historiaren zati bat berregitea zen eta, horrekin batera, uraren oldarraldiek azal bozkariotsuan eragiten zigun plazer sentsuala ezagutzea, izan ere, hainbesteko sexu-errepresioa zegoen urte haietan -norberaren gorputza sagrario ukiezin eta debekatua zela sinetsarazi nahi izan ziguten-, itsasoa izan baitzen, antzina-antzinako emagaldubaten antzera, amorante bat zer zen irakatsi ziguna. Eta baita heriotza zer zen ere. Korral pixka baten bila jolasean genbiltzanean, edo karramarro bat beraren ezkutalekurako bidean jazartzen genuenean, edo harkaitzetako olagarro baten dantza haragikoia ikusten geundenean, beldur izaten ginen, desagertutakoen gorpuak aurkituko ote genituen. Batzutan, begiak, ahoak, gorputzadarrak ikusi uste iza-

ten genituen goroldioaren adats lastokaraz estalitako harriren baten irtenunetan. Orduan, apur bat izuturik, esaten genuen: hona hemen itoetako bat, herrira itzulirik.

Kalako zintzurretik ikusi genituen hurbiltzen, itsasargiaren begi zaintzailearen pean, lehen modernotasun-aireak ere. Yate zuriak, bandera koloretsuekin, kai txikian barneratzen ziren, Boira kalatxoko uraren urdin trinko tematia hantustez eta larderiaz zerratzen zutela. Gero, zaldainetik, pixkanaka, dotoreziaz, gizon beltzaranak jaisten ziren bermudekin, eta emakumeak, bikini hutsean, hain urri zen ogia bezain horaileko adats luzeekin, eta zigarro bat ezpainen artean, baserritar andrazkoek larunbatetan urrearen prezioan feriara eramaten zituzten gerezia bezain gorriko ezpainen artean.

Arrantzaleek harriturik eta bekozko ilunez begiratzen zieten. Ez zuten gogoko bat-bateko mutur-sartze hura, beren ohituren eta mendeetako sineskeren oreka hautsiz zihoana. Beren oroimenaren lurraldean kokatze hura.

Aurrerabidea zen eta mesfidantzaz hartzen zuten.

Aurrerabide ekonomikoa eta, aldi berean, tabu askatzailea, zeren eta, gailu baten gisara, erregimenak eta eliza katolikoak ereindako mina moral haiek lehertarazten baitzituen, eta poz berrietarako lekua egiten, ikuspegi zabalagoetarako eta, batez ere, beste bide batzuk hautatzeko ahalmena eskaintzen. Beste arrantzaleku batzuk. Yate haietan, izan ere, jai sonatuak ospatzen ziren, eta berehala hasi ziren tokian tokiko ausar tenak gomitatzen, eta koloretako argien eta musika ozenen erdian, lehen tratu eta salerosketei ekin zitzairen, itsas korronteak bezain sotilak, plazerra eta marihuana gai zirela.

Bien bitartean, eleberrigile izan nahi zuen neska gazteak, itsasoa eta beraren jendea paper laukituzko *plaque* batean sartzea irrikatzen zuen haretzek, begietatik irensten zuen guztia. Bizkor, irudiak finkatuz zihoan, zeren orain, buruz hartzen zituen oharretan, itsasoari, patuari aurre egiteko modu atseginago baina aldi berean arriskutsuago hori bereganatu nahi baitzuen.

Lehenago esan dut nire eleberriek uharte-tankera izan ohi dutela. Esan nahi nuen, eskuarki, pertsonaietako bat ezbehar emozional baten erdian aurkitzen denean, itsasoaren hesiarekin egiten duela beti topo, bai iheserako aukera ematen diola, edota bidea oztopatzen diola. Izan ere, bere sentipen-maparen geografia uhartearen sestra-kurbetara egokitu ohi baita, klaustrofobia-bakartasun sentsazio etengabe horren pean.

Nire eleberrietako protagonista gehienak emakumezkoak dira eta beren gorputz fisikoa balitz bezala sufritzen dute uhartea; itsasoa, aldiz, hainbeste mendetako mirabetzak eta laidoez osatu dieten itsasertza igarotzeko zirrikituak bilatzen dituen arima ezinegonaren zati gisa hartzen dute.

Emakumea, marinel nekatuen babes.

Emakumea, laido patriarkalen mende.

Itsasoa eta emakumea, konplizitatean eta desiran.

Ez dago nire kontagintza osoan, itsasoaren eragin suntsigarria -baina baita sorgindua ere- falta zaion amodio, mendeku edo trukaketa-istoriorik. Gaitasun gaindiezina baitu hitzak seduzitzeko.

Jakina, nire bizitzako Itsasargiaren begi agintariaren pean.

Itsasoa ondareztat
Itzulpena (gazteleratik): Jesus Lasa

Jaio nintzenean, amari begiratu ondoren, itsasoa ikusi nuen: leihora atera ninduten, itsas aurreko gure etxean. Begietan eta ariman daramat, odolean ere eman baitzidan amak. Ondareztat jaso dut itsasoa eta horregatik aberats jotzen dut neure burua: itsas aurrean jaio nintzen, bizi naiz eta hilko naiz, segur aski. Murgilean ibiltzen irakatsi zidaten eta arrain eta harkaitzen izenak ikasi nituen. Izen horiek, askotan, soinu poetiko nabarmenekoak dira, ironia ere ametitzen dutela. "Aurelia Aurita" edo "Pelagia Noctiluca" marmokak edota "Diogenes Pugilator" barraskiloa (ermitaua) berez bihurtzen dira nire ipuinetako pertsonaia. Ozeanoa zeharkatu nuen itsasontziz eta itsasotik lortzen ditut nire literatur gaiak. Nire itsaso hiritarrak hondartzak, kirol portua, arrantzale portua eta merkataritza portu garrantzitsua ditu; agertokia prest dago nik istorioa idatz dezadan. Ez da gutxi eta eskerrak ematen dizkiot bizitzari.

Itsasoagatik esaten da isiltasunaren mundua dela, baina badakigu ez dela egia: biluzik eta zentzumenak irekita hurbildu behar da itsasora, maitaleagana bezala. Ukimena, usaina, zaporea edo soinua komunikatzea da idaztea, azalean ferekatzea eta sakontasunetan hondoratzea. Maitaleak bezala, itsasoa, batzuetan, zaputuz agertzen da eta, beste batzuetan, errenditu eta barne-barneko kontuak esaten dizkigu. Itsasoak gehiegizko aberastasuna du, gainez eragiten diguna, hitzez hitz hartuta ere, eta harekin erakartzen gaitu. Itsasoak erronka egiten digu, eta askotan zigortu egiten gaitu gure harrokeria dela-eta. Itsasora tentuz hurbildu behar da, eta hala ere errezeloz begiratzen digu. Maitale mesfidatia da itsasoa. Nerabegaroko uda luze batean irakurri nuen nik "Atlantida", hondartzan, txalupa zuri-

gorri baten kontra arrimaturik. Altxor urreztatuak aurkitzen nituela iruditzen zitzaidan itsas barren berde kristal antzekoan. Itsasoa ozartu egiten da epikarekin, argonautak kulunkatzen ditu bere bizkarretan eta jainkoak eta erresumak hondoratzen sabelean. Telebisitari esker egiazta dezakegu irudimena errealitate bilakatzen dela: hor zeuden altxorak. Orain itsasotik ateratzen ari dira, erditze zail batean, Alexandriako antzinako monumentu eskergak, itsasoak jazarpen beldurgarrietan garaituak.

Nire lehen poema-liburuek zetazko olatu leunetan ekarri zuten maitasuna, otzan eta mantso. Dunetan arrastutako urdinez itzalez-tutako hondartzetan etzan zuten. Hainbat liburutako pasarte laburrak aipatzen ditut. "(...) *Norbaitek maitasunaz hitz egin zidan: hura aurkitzearren / baratze eztiak utzi eta itsasora jaitsi nintzen. / Jaio ziren, itsasertzean, hiriak / eta jauretxe sinesgaitzak denboraren gainean, / udazkeneko bakardadeek dirdir egin zuten / zure gorputzaren argiarekin. Norbaitek esan zidan / maitasuna zetorrela eta sinetsi egin nion: / nire mundua goiztiriarekin argitu zen / eta honek, iheskor, egun labur bat izan zuen lagun.*" - "Urriko itsaso, handik honantzko itsaso zara. / Hotzak behe-lainoak zabaldu zituen/ sareak kaian zabaltzen diren bezala, / azpian zenduen itzalak ikusi genituen / eta antzinako barkuenak. (...)." - "Ekaineko maitasuna jaiotzen da / abenturazko itsaso baten desiraz, ez hiria / kristal zigilatu, ahanzteko bezain urrun, / jainkoen eta denbora batez haur/ izan ginenon hilobi. (...) Ekaineko maitasuna / olatuekin iristen den maitasuna da, / arra-tsaldean itsas kupulak / garaitu zituzten kaioen hegaldi (...)." - "Norbaitek zetazko zapi bat zabaltzen du itsas gainean / eta hiltzen zegoen desira bil-tzen du. (...)"

Narratiba heldu zen gero: eleberriak, ipuinak eta saiakerak. Itsasoan hondoratzen ziren liburuak etorri ziren, hala nola *Zona Marítima* (Ramón Llull saria) edo *Mar de fons* ("Hondoko itsasoa") -azken hau Atlantikoan zehar egindako bidaldi baten emaitza, gauak zerua eta izarak urtzen dituenean, dramaren agertoki gisa-. *Entierros ligeros* eleberrian, itsasoak hileta errautsak jasotzen ditu eta *El hombre*

que mordía a las mujeres izenekoan (nire azken eleberria), ibai hasereen uholde burrunbatsuek bortxatzen dute itsasoa. “Berta y los dioses primarios” ipuina gorpuak itsasoraino itsuki herrestatzen dituen ibai gainezkatuaren istorioa da, gero lehorrera itzultzen baditu ere. La novia dormida eleberri laburrean, bi denboratako amodioa Tarragonako portuko txalupa batean eta Londresko Regent’s Canaleko barku-etxebizitza batean babesten da. Hitz laua eta neurtua tartekatzen ditut eta itsasoak olerkietan, bizitzan bezalaxe, maitasuna eta hondoratzek dakartza, haur jolasak eta abenturazko itsasketak. *Caballito de mar / Marina haurrentzako liburutik: “Gauerdian / abenturara noa: / ohea dut itsasontzi, / maindirea, haize-oihal, / eta mastaren gainean / loro iskanbilatsu bat / kulunkari. / Eguzkitan noa, haize leunak narama, / neure kapitaina naiz / eta Txinara noa. / Txinan bada izurde bat, / jauzilaria, / eta Hego Amerikan / itsas txakur berritsu bat. / Itxas txakurra / sardina sarda handi baten atzetik doa.”. Eta haurrentzako asmakizunak: “Zaldunak, doluz, / beren bizar eta ezkutuz. / Lurrunetan ongi egoziak / hori-hori egiten dira / hala nola eguzkia. / Maskorra dute, etxea / baina ez dira barraskilo. / Ikatza bezain beltzak / ez dute zikintzen, ez berorik ematen; / elkarrekin bizi dira, pilatuak / eta deitzen dira muskuiluak.”*

Liburu gehiago, eta badira 45 orain arte argitaratuak. Bi saiakera idazteko, *La Vía Augusta* eta *Viatge d’aigua*, itsasertza korritu nuen. Azken honek ibaien eta itsasoaren elkar topatzea deskribatzen du, Ebroren deltan, batik bat: elkar bortxatzea, heriotza mehatxua, kutsadura salaketa, gorteiatze gorabeheratsu hori, non mugekin jolas egiten den eta hainbat miragarritasun ttipi topatzen den landaredian, faunan, toponimian, elezaharretan, gastronomian, agertze eta desagertzeetan. Misterioak eta lazgarritasunak apaintzen dute ene literatura, huntzak eta goroldioak harrizko horma bezala. Itsasoa, bada, pribilegioz jarauntsitako ondarea da. Baina nire obraren zati bat familiaratik eta gizartetik jasotako ondareari zor diot. Nire hitzak, beste idazle batzuen imitazio akademiko bano areago, artez elikatzen dira: pinturaz eta musikaz. Debussyren “Katedral hondoratu”-k ur eguz-

kitsuen gardentasuna sentiarazten zidan nire langelan: itsasoak pasatzen zituen nire partituren orriak. Botticelliren “Venusen jaiotza”-k haizearen aurpegiak eta perla-ostren kolorea erakutsi zizkidan.

Etxean liburutegi bikaina aurkitu nuen eta irakurle asegaizta izan naiz eta naiz. Baina ezinbestekoa jotzen dut aro eta arte desberdinen arteko integrazioa, Ulisesez begietsi zituen arrosa koloreko goiztiriak txandaka daitezen oraindik zer abenturatara eramango gaituen ez dakigun goiztiri zibernetiko horrekin. Margolaritza, arkitektura, musika eta dantzarekin batera, Literatura ere partaide da, Arte gisa, erritmo, egitura eta oreka horietan guztietan.

Nerabe liburu irensele nintzela, Pio Baroja, Julio Verne eta W. Semenov errusiarraren *-Akorazatu baten agonia* (trilogia errespetagarria) bezalako itsas guduak deskribatu zituen- itsas kontakizunetan lerratu nintzen. Darwin, Cook, Bougainville eta beste hainbat esploratzailearen atzetik joan nintzen munduaren jiran. Batzuetan galdeztzen diot neure buruari, gai izango ote nintzatekeen orain hurretan eta gaztetan irentsi nituen liburutzar haiek irakurtzeko, irakurketa baitzen orduan nire etxola, etxe, jauregi eta unibertso.

Olerkia eta eleberriak ez ezik, konta ezin ahala itsas ipuin idatzi ditut. Ia 300 ipuin ditut argitaratuak, horietako asko liburukietan bilduak. Itsasoak jolas egiten du nire istorioetan, hondoko olatu luzeeetan batzuetan, misterio fosforeszenteak argituz besteetan. Itzulpen politika katalanez idatzitako lanen aldekoa izatea nahi nuke, oraindik oso urrun baitago errealitate egoki eta orekatua izatetik. Oxala itsasoak eramango balu nire literatur ondarea beste hondartza batzuetara eta irakurle berriengana.

Orain, nire sosegu hezigaitz honetatik, Valéryk irakatsi zigun betetasun sentipen horrekin begiesten dut itsasoa: “(...) *la mar, la mar que sempre recomença! / orna el migdia just. Oh recompensa / d’un pensament esguardar en calma els déus!*. Honela ikusten dut: erresuma mehatxatu baten koroa zilarreztatua, jainkoen eskutik heldu zitzaiguna eta hilobi eskerga bilaka daitekeena.

HENRIKE KNÖRR

*Zuri,
euskal gazte horri*

Negu hondarreko eguerdi eguzkitsua.
Laino-itsasoan mendi-gailurra uharte.
Agur-hitz batzuk jaulki ditugu herabe,
eta ondoren
solasari ekin diozu, gazte.
Mintzoak nekez du bidea bilatu,
antzeman dut, ordea,
gogoan zenuena.
Egia maite duzu
eta gezurra gorroto.
Gizartean nagusituz doan hotzak zaitu larritzen.
Gizakiek gizakiro joka dezaten
nahi duzu;
mundua bizitoki txeratsua izan dadin
nahi duzu,
hizkuntza guztien egonleku eroso,
iritzi eta ohituren zelai zabala,
edozein larruazalen etxe gozoa.
Irriki duzu
Natura amultsuki erabilia izan dadin,
eta zoroki egin zaizkion
zaurietatik sendatu-indarberritua.

Txori bakana pausatu da isiltasun-talaian,
eta ezeren beldurrik gabe hurbildu,
ogi-apurren eskale egonarritsua
eta jatun lasaia,
lagunengana berriz hegaldatu arte,
izkutuzko bidetik, kantari bipil.
Orduan,
behialako olerki-zatiaren haritik
gure Herria
izan dugu hizpide.
Galdez zatozkit, gazte.
Uzkur natzaizu, zinez,
entzutea nahiago izaki.
Horra zer zaidan ezpaineratu.

Euskaldunen askazia guztiz zaharra,
itzuri joandako populu asko ikusia.
Jendaki kementsua,
ibaiez haraindian, itsasoez bestaldean,
antzina ugaritua,
izen on eta estimuan joria
(nolanahi ere, ilargipe honetan nor hobengabea?).
Mila ekaitzek inarrosi dute Herria,
apaldua, ukatua,
haurrideen artean ere sarri guduka;
nafar erresumaren amets goiztiarra
horrela zen hautsi.
Gurasoen gaztaroan
inoizko gerrate krudelena izan zen.
Arbola santuaren inguruan sarraski latza;
doilorkeriaren berri artista ospetsuak eman zuen hobekien.

Menpean bizi nahi ez eta,
oste ugari zen oldartu,
gazte eta heldu, gizon eta emakume,
azkar, eskuzabal.
Bortizkeriak, ordea,
bihotz on mukuru erakarri ditu zitalki.
Besteren bidegabeak
ezin izan zio ez aitzakia.
Herioa ez da inoiz ere zilegi,
mugak ditzagun aitor.
Piztielikiko zer dugu, bada, bereizgarri?
Deus ere ezin datorke
odolkeriaren besalagun.
Gurturik gaitezen oroit
indarkeriak hil dituenek,
nor ere baitatza hilobian,
non ere baitago hilobia,
zeren osoa behar baita gizatasuna.
Bizien oinazea
gogora dezagun halaber.
Bakearen grina
orotara zabalduko ahal da!

Bego euskalduna,
itsas-hegian zein lehorraldean,
pagoak hazten diren mazeletan
zein olibondoen zabaldietan,
bere orainaren eta geroaren jabe.
Begokie arbasoei leial,
ahaztura deitoragarriaren aurka.
Bedi haren ele maizkoena

Garaziko erretoreak lehenik moldezko letretan ezarria
edo latin-kume aspaldidanik guretua.

Biz on

-ume-begiak bagenitu beti!-

Bekie etxekoei maitekor,
kanpotarrei atsegin-lagunkari,
guztiekin auzolankoi.

Begi gogotsu lana,
etekin zuzena ukatzen ez zaiola,
jauntxo zahar eta berriekiko eskubidedun.

Bihoa aspergaitz
jakitearen iturri agorrezinera.

Beuka uneoro lehen tokian hitza

-ahoz zein idatziz-,
adimenaren ate gailena,
munduko altxor ñabarraren gordailu aurrena,
basakeriaren borrokari onena,
barne-kezken pizgarri eta eztigarri batera.

Hitza dugu sortzetik opari,
baina lantze neketsua zor eten gabe
gogoeta etorriko bada,
bizitza betearen seinale,

egungo zorabio eta harrabots ergelaren etsai.

Pentsatze-mintzatzeak gaitu gizakitzen,
irakurtzeak gora-nahian hegalak ematen
(eta goi horretan gure handi-txikitasunaz ohartarazten),
bizi gareino gaitezen ikasle.

Bentzu orobat ustezko ezjakinen jakinduria,
zuhurtzia oparo harrigarria,
belaunaldi joanen oihartzun preziatu hauskorra.

Kantu eta dantza
bekizkio gogo-altxagarri,

sentipen-bide eta -erakusle
(baina utikan sasimusika-merkatariak,
oro artaldeko nahi gaituztenak,
jostailu eta aberasgailu!).
Bebil jaian alai,
muinari begirunetsu,
axalean gelditzen ez delarik zozoki.
Iraganak utzi ondare ñabar aberatsa
zain beza.
Geriza bitez zorrozki
Izadiak -osagaikide dugunak-
bere esku leun miragarriez barreiatu mila leku bikainak.
Lukuruak edo burugabekeriak hondatu bazterrak
itzul daitezela lehengo xarmara eginahalean,
eta jende-erlauntzak etxe bihur.
Beude oihan, erreka, bide eta hormak oro garbi eta aratz,
guztion laket-zoragarri,
arnasa bezain baitu gizakiak ederra nahitaezko.

Kritikabideak



Edorta Jimenez

Itzultzaile patologikoak
(*Beasainen emandako hitzaldi baten ondorioz*)

Antolatzaileek hitzaldia prestatzeko sei itaun egin zizkidaten menu moduan -eskertzekoa den menua, bestela lorerik lore ibiliko nintzateke eta-, eta aukeran neuzkan sei galderetako errazenari erantzunez ekin nion.

“Itzultzea zure ogibide hutsa al da, ala zeuk hautatzen duzu itzuli behar duzun lana?” zioen bigarren galderak, orain nik lehena izatera ekarri dudanak.

Sozialista utopikoek aurreratu zutenaren haritik, mundu hau be-
rau dut nik paradisu; hala bada, ogibide hutsa den jarduerarik ez
dut nik, ez dakit zorionez ala zoritxarrez. Jardun izaten dudan arlo
guztietan izaten du zer gozatu, eta itzuliz ere gozatu egiten ohi
dut, zorion hori beti-beti iristen ez badut ere. Bestetik, ogibide ba-
kar ez dut itzultzea. Itzultzea lagungarri modura hartzen dut, az-
ken batean nire helburua idaztea baita, eta itzultzea beti da idaztea
edo, menuko beste aztergai batek galdetzen duenari baiezkoa
emanez, itzultzea irakurtzeko beste modu bat ere bada. Hala bada,
idazteko astia lortzea bilatzen dut. Labur esanda, itzultzea bera ere
ez dut lanbide, ez hutsik lanbidea, ez lanbide hutsa; idazten segi-
tzen laguntzen dit.

Bestalde, liburu osorik ez dut inoiz itzuli, haurrentzako egin
nuen *Krokodilo Kokoliburua* izenekoa alde batera utzita. Haatik, li-
buru horrek hortxe izango ditu hogeï folio, eta ez dut uste horrek
“liburu” hitz mardulari lotu ohi diogun artifaktu trinkoarekin zeri-
kusi handirik duenik. Beraz, eta libururik osorik, bakarka behin-

tzat, euskaratu ez dudanez, ohar bat egin beharko nuke itzultzeari ekiteko izan ditudan zio edo arrazoiei buruzkoa. Eta horretan ere ez dakit nondik hasi.

Laurogeitako hamarkadan euskalgintzak bizi izan zuen atakak galdatzen zituen langile-ildoetako bat itzultzaileena zen, eta itzultzaile hartu ninduten AEKan. Honen harira, gogoko izanen nuke euskalgintzan belaunaldi-txandaketak edo hurrenkerak izaten duen garrantziaz zeredozer esan.

Har dezagun, adibidez, literatur aldizkarien aroa. Aro hori amaitu-edo egin zenean negar egin zuten batzuek, galera argia baitzen. Literaturgile-gai gehienak Egunkarian eta beste aldizkari-egitismo batzuetan sartuta zeudela ohartu gabe. Era berean, ni sistematikoki itzultzen hasi nintzenean antzeko egoera bizi zen; gizarteak, oro har, itzultzaileen premia ageri zuen, eta euskalgintzan zulo guztiak estaltzeko adina ipurdi ez zegoenez, bateko premiak betetzen baziren, bestekoak ezin. Gutxiegi garella, alegia. Pentsa bestela nora joan ziren Arestiren garaian literatura egiten zuten gehienak; institutueta-
ra, euskara irakasten hasi zenean. Itzultzaileen premia gizartearena da, eta horretan gabiltzanok itsasontzietako galdaratan ikatza sartzten ibili zirenean bezainbestekoa da. Eta itzul nadin harira.

“Zuk zeuk, literatura sortzeaz gain, itzultzaile lanak ere burutu dituzunez, zer nolako eragina antzeman diozu itzultzeko metodologiari idazteko garaian?” zioen menuan lehenen dagoen itaunak.

Labur erantzun beharko banu, itzultzeak neure hizkuntza-senaz fidatzen irakatsi didala esango nuke. Prosari dagokionez behintzat. Orain hitzen bat bilatu behar dudanean oroimeneko ganbaran bilatzen saiatzen naiz lehenik eta behin. Ez badago, eta “eraikigarriak” horietakoa dela susmatzen badut -literaturgile-gai, adibidez- asmatu egiten dut, eta gero begiratzen dut asmatu dudana hitza zuzena denentz, horretarako hiztegi-tara joz. Askotan ohiko hiztegi-tan

bazter utzi diren arren “arauemaile” ez direnetako besteren batean ageri dira nire hitzak.

AEKAn itzuli nituen lanen artean denetarikoak egon ziren, eta hona ekarri gaituena inoren buruan eskarmentua hartzea denaz, ikasgairen bat utzi didatenak aipatuko ditut. Gogoan dut *Urdaibaiko Hegazti-Fauna* liburua, Gabi Piedrarekin batera itzuli nuena. Jolas modukoa izan zen, zeren eta liburu hori hegaztien gaineko fitxex osatua izanda eta hegaztien fitxok elkarren oso antzekoak zirenez, fitxa batetik bestera zerbait aldatzen saiatzen baikenen, berbaren bat edo, esamolderen bat edo. Eta horra hor horretan neureganatu nuen ikasgaia: itzultzean, aginduz eta norberaren gogoaren aurkako zeregina bada ere, beti jolasgairen bat bilatzea. Hitzaldi hau egitean bezala.

Jolasa hizkuntzarekiko maitasunaz kutsatuta zetorren han, zorionez. Enrike Urrutia “Kapo” gure lantaldekoa zen, eta harekin beti egoten zen zer ikasi, batez ere Iparraldeko -hizkuntzaz dihardugula gogoko ez dudan hitza, han ere literatur tradizioak baitira- idazle klasikoekin berri eta fotokopiak ekartzen baitzituen. Nik neuk gogoko izan dut, beti-beti, lapurterazkoak irakurtzea, gipuzkeraren nire ustez gehiegizko zamari kontrapisu egiteko. Kaporekin euskarak dituzkeen bide aberatsen berri ikasten zen beti. Jakina, norberaren literatur hizkerak barne-homogeneotasuna eta kanpo-sinesgarritasuna izan ditzan, ezinbesteko da ereduaren bateko nahiz besteko ereduak ukatea.

Han askotan egiten genituen itzulpen teknikoak, robotikaren arlokoak eta. Non juntagailuak frogatu, horietan izaten genuen guk. Hori ere jolasa baitzen, gure tradizioko lotura-bideak aztertu eta erabiliz. Era hartako itzulpenetan hiru esaldi bakun (A, B, C) perpausa konplexu baten barruan josten ziren. A perpausa gaiaren definizioa izaten zen (Robotikerrek ekoizten duen Zera), B Zera non edo nola ekoizten zen izaten zen (Robotikerrek berak Zerean dituen lekuan edota Zereko teknikak erabiliz) eta C perpausa, azkenik, guztiaren helburua (Zerari buruz zuzendua). Gero, hiruko hori korapilatatu egin zitekeen, baina hortxe zegoen gakoa. Axularren moldea

erabiliz itzuli behar zen gura zein ez, hots, gure-gurea ez ei den joskera erabiliz. Bestela, zereko zera zertzen dela zereko zerarekin zereko zerean, eta horrek zerak baino erlatibo gehiago eskatzen zituela agerian geratzen zen.

Gure beste arlo bat politikako idazkiak euskaraz ematea izaten zen. Politikaren arloko itzulpenak aberasgarriak izan ziren, bai, hizkuntzaz ez ezik munduaz ere polito erakutsi zigutelako. Esaldi us-tez sakonen bidez korapiloak egiten dira eta, jakina, korapiloric korapilotsuenak ere mutur biko soka behar du; haatik, esaldia itzultzen hasi eta hara hor hiruzpalau mutur, hots, soka eta erdi, edo soka bi. Soka eta erdi agertzea izaten zen larriena, logikaz ezinezkoa baita, hizkuntza mintzatuan horrelakoak makina bat sartzen ditugun arren. Abiadura kontu bat ere bazegoen horretan. Euskaraz gaztelaniaz bezain trakets eman genitzakeen, bai, inork ez ulertzeko moduan, erdara horretan bezala. Akatsa zen, ostera, gaztelaniaz ulertu gabe ere ulertzen dela, *“en la actual coyuntura hablar de las organizaciones sindicales sin hacer referencia al grado de asentamiento de la ofensiva de la patronal es, cuando menos, hacer un ejercicio no sabemos si absolutamente necesario pero sí en todo caso útil, en cuanto que...”*. Arraioa!

Itzultzailearen bezeroek beti nahi izaten dute eurek txarto, trakets edo narrats egindakoa guk ondo, trebe eta dotore egin dezagun. Bezeroak euskaraz ez badaki beti galdetu ahal izango dio lagun bati, zer moduz?, eta hark emango dion erantzunaz fidatu. Itzultzen dena euskaratik erdarara bada, orduan bai txaloak eta txistuak! Itzultzailearen zeregina hobetzea da, baldin eta botikak, pozoiak eta halakoak erabiltzeko agintzak baldin badira itzuli beharrekoak, inoren bizitza egon baitaiteke jokoan. Berriketariaren jarioa, ostera, zelan itzuli behar, akats eta guzti ez bada? Euskaraz zerbait idazten duten guztiak dakite erdaraz -eta erdaraz diodanean ez diot zehazki espainola, euskara ez den oro baino- eta ezin izaten dute jasan euren euskararen translazioa den itzulpena. Geuk hobetzea gura izaten dute, eta hori ezin da, lagun. Edo *“bazinda”*, baina ez genuke egin behar.

Nor ausartuko da egia esaten? Harako hark euskarazko testua gaztelaniazkoa baino hitz gutxiagorekin egiten badu? Encuentros en la fase anal, uzkiaren aroan bizi den hizkuntza baita euskara, eta horrela aitortu beharko diogu psikoanalistari, eta ez inor engainatu, engainua terapiaren barruan egon ezean behinik behin. Nanao iza-teaz kokoteraino nago, alegia, potroetaraino nagoela esango banu legez, nanaoen ezaugarrietakoa baita, kokotea eta uzkia lar parean egotea. Lexiko ulergarria erabiltzea ez erabiltzea arazo itzela da, baina irakurlearen aldetik gehien bat. Hitzak hor daude, baina ez dira ari jira eta bira, azkenean denok denak automatismoz ikas genitzan eragingo lukeen maiztasunaz bederen. Eta psikoanalistaren orde zapaiza dutenek -gure katoliko konfesional ofizial horiek-, botere-tsuek, jakin bezate zergura maizen errepikatzen duen hedabidean, telebistan, sarrien esaten direnak -bueno, osea, esto,...- erdara espainiarrez esaten dituztela, eta bide horretan behera hondamendira goazkeela. Nekez eskuratuko zuten horiek gu denok iraintzeko eta irentzeko modu eraginkor-baldarragorik, ETB, txoribista, euskal txoridespista hori baino.

Maiztasunak dakar automatismoa, automatismoak berezkotasuna eragiten du edozein jardunetan, berezkotasunak piza egin bitartean ere irakurtzeko gai izatea dakar, eta horrexek salbatuko du hizkuntza, piza egin bitartean ere irakurtzeko gai izateak. Euskaldunon Egunkaria komunean, hau da, hiztegirik gabe irakurtzeko gai denak normaltasuna iritsi du, hala edo zelan. Zorionak.

“Alderdi ekonomikoak (baleude) alde batera utzita, zergatik itzuli dituzu liburu horiek, hots, zergatik erabaki zenuen liburu horiek itzultzea eta ez beste batzuk?” zioen hirugarren galderak, eta horrek bai, horrek olerkigintzan egin nituen lehenengo pausoekin zuen zerikusia. Gainera, beste galdera baten erantzuna atal honetan ere ematen saiatu behar nuela uste izan nuen: *“Zure sorlanetan zer nolako eragina izan dute itzulitako liburuek (gaia, estiloa, forma,*

hizkera...)?” zioen azken-aurrekoak, nire ustez itzultzeko erabakia-
ren nondik norakoari loturik zihoanak.

Nire kasuan, zer bilatu nahiz hasi nintzen literatura itzultzen date-
ke hemen kontua. Olerkigintzaren gakoetariko bat, nagusiena ez ba-
da ere garrantzitsua bera, lexikoan datzalako ustean, modu bitara
ekin nion nik lexiko hori lantzeari. Batetik, euskal poesia, garaikidea
batik bat, irakurriz (orduan irakurri nituen liburu nagusiak Sarri-
naindiaren *Izuen gordelekuetan* barrena, Joxe Austin Arrietaren *Neur-
titz neurgabeak*, J.L. Davanten Denboraren aroak eta Tere Irastortza-
ren guztiak izan ziren, alde batera utzita Mikel Lasaren poemak,
horiek buruz bainekizkien); lexikoa lantzeko bidea itzuli, itzuli eta
itzuli egitea da.

Itzultzea Josu Landak gomendatu zidalakoan nago. Baina Josuk
gomendatu baino lehen ere itzultzen hasita nengoen. Egia da, alfe-
rriko kontseilua ere bazen hura, guk denok itzultzaile bana baitara-
magu aldean, edo barruan, edo zapatan itsatsita, auskalo.

Ohar bat egin beharko nuke orain eta esan baze, gure patologian
itzultzaile izatea dagoela, ez dakigu gaitz larri modura, ala are larria-
goak omen diren beste gaitz batzuen sendagarri. Eta hori txikitatik.
Erdaraz esaten jakin ez ditugun hitzak, *no me nastes, te voy a dar con
el burduntzaldi*, edota euskaratik hara bota izan ditugun egiturak, *te
llama la madre* eta *romper se ha hecho*. Gu denok, euskaldun espai-
niartuak garen aldetik, itzultzera behartuak, derrigortuak, gara. Ele-
bakarrek ez dakite sufrikario honen berri. Eta negar-oharra eginik, na-
torren harira (hemen Jon Jauristik idatziriko *En los márgenes de la lati-
nidad* ekarri beharko nuke gogora, eta baita ere Atxagaren gogoetak;
gure gaztelania euskarak kutsatua da, nahi eta nahi ez, eta, beraz, ez
gara ondo moldatzen, erren patologikoak gara).

1983-84 ikasturtea Somorrostron eman nuen euskararen misioe-
tan, maila guztietan predikatu nuen. Hangoak bai trenak! Hura pai-
saia! *Tao the king* ospetsua gaztelaniatik euskarara ekartzen saiatu

nintzen. Baina honaino ailegatu ostean, beste galdera baten erantzuna ere kausitu dudalakoan nago. Hona hemen galdera hori:

“Itzultzea aditasun berezia eskatzen duen beste irakurtzeko modu bat al da? edo beste modu batera esateko, itzultzea idazteko beste modu bat al da?”

Bada, bai. Itzultzeak zuzen irakurtzea eskatzen du, eta horrela egiterik ez dagoenean, jatorrizko testuan esan dena igartzeko gaitasuna galdatzen zaigu (gehienetan topikoak idazten direnez, zailegia ere ez dena, egia esan). Taoren liburuak ikasgai itzela zekarkidan, hain zuzen ere, alferrik dela gazteleraz sortua izan ez dena gaztele-ratik euskarara ekartzen saiatzea, ez baita beti hitz edo pasarte haren edo besteren esangura oso zehatz ulertzen. Adibidez:

“El vacío de Tao no es fácil de colmar”

Edo,

“Antiguamente, el perfecto nombre de Tao era sutil...”

Gaztelarazko “de” partikula horrek euskaraz hainbat ordaineko ditu. Esate baterako, “Taoren hutsunea”, “Taorik eza”, “Taozko hutsunea”, eta beste hainbat asmatzeko gai ginateke.

Eta zer esan hurrengoari buruz?

“Pero en Tao todas las cosas se realizan”

Ez nekien “de” haien esangura; baina, larriago zena, ez nekien Tao bizidun legez deklinatu ala bizigabe legez. Bada, gero, paradoxa, Tao ezagutzen duenak -esan liezadake taoista zintzoenak- ez baitu hari buruz horrelakorik galdetzen; ala ez da esan *“adierazia izan daitekeen Tao(a) ez da Tao(a)”*? Apurto egin nituen Tao liburuko olerki haiek. Izan da galera handiagorik ere historian zehar. Nork daki

akatsa ez ote zen izan liburua behar bezala irakurtzen ez nekiela orduan. Ingelesezkoa ekarri zidatenerako galdua nuen interesa. Baina bai, liburu hura osorik sistematizatu izan banu, aurkitu nukeen “de” partikularen erabilera zuzenaren gakoa. Ala ez dute *Tao the king* gazteleraz irakurri dutenek hori igartzen?

Itzultzeak sakontzea eskatzen du. Sakontze horretan itzultzailea tautologiaren bidez eraikitako arrazonamenduez jabetzen da. *Tao the king* tautologiaren bilduma hutsa ote da? Horrek beste berriketaldi baterako emanen luke, eta horretan ni entzuleen artean egonen nintzakete. Hala bada, natorren harira, hots, hautaketa eta eraginaren horretara.

Taorekiko esperientzia denbora galdu aldeko haren ostean Pablo Neruda izan da lehenengoa, bada, erdarazko liburu bat irakurtzen nagoela irakurtzen nagoen hori euskaraz egitea eskatzen izan didana. Ohean nengoela uste dut. Olerkiaren tituloa “Ritual de mis piernas” da.

*Largamente he permanecido mirando mis largas piernas,
con ternura infinita y curiosa, con mi acostumbrada pasión,
como si hubieran sido las piernas de una mujer divina
profundamente sumida en el abismo de mi tórax.*

Tórax! Hor hasi nintzen. Banzai! Hitzak azpimarratzen gero hiztegiaren begiratzeko. Eta zein da kontua? Ba, ganorazko hiztegiarik ez zegoela orduan. Eremu semantiko bereko hitzen arteko ñabarduren bila niharduen, ñabardurak poesiaren parte handia direlakoan. Ez dizuet esango zelan egin nuen aurrera, baina izan bedi nahikoa esatea Azkueren hiztegiari eleberririk irakurtzen diren moduan ekin niola, hau da, “ea zer kontatzen digun Azkuek honen gainean” esanez neure buruari. Ganorazko gaztelania-euskara hiztegiarik ezean

euskara-gaztelania-frantsesa hark ekarriko zizkidan erantzunik ederrenak. Eleberri onak irakurri ditut, baina gutxi hori bezain modernoa. Gure *Rayuela* partikularra dugu Azkueren hori. Egizue probatxoa.

Beraz, nire metodologian aurrerapauso garrantzitsua egin nuen. Hartzen nuen, adibidez, *Izuen gordelekuetan barrena* eta, tak!, berba ezezagunak zakura, eta gero hitzok etxean zakutik atera eta Azkue Eneara! Eta Kintanarena han alboan, goardian. Problematika guzti hau konponduta daukate gazteagoek. Hala eta guztiz ere, *Diccionario Retana de Autoridades* horretara jotzen dut nik sorterriko berbaren bat beste inon topatzen ez dudanean. Eta hor ere ez badago, San Inazioaren gogo-jardunak egiten ditut komunean nagoen bitartean eta, zirt edo zart, berba hori eleberrian edo olerkian sartzea erabakitzen dut, ea egunen batean ni neu ere Autoritateen artean jartzen nauten. Baina ez dizuet kontu honekin alamena emango.

Poesia itzultzeari ekin nion, bertsolaritzako neurriak ikasteari eutsi nion aldi beretsuan, 84ko udagoiengan Indautxu eta Madrileko ifernuan denboraldi bat egin ostean. Lexikoaz haratago neurriaren gora-behera hori garrantzizkoa delakoan, eutsi ere. Ez dut ukatuko, Luis Mari Muxikaren esaldi bat daramat arantza bihotzean; errimarik egon ezean ez ei dago olerkirik. Baieztapen horren egiazkotasuna, zuzentasuna edo dena delakoa baietsi nahiz ezetsi guran ordu luzeak eman ditut, Nerudak bezala nire hankei begira, toraxean arnasa barruraino sartuz eta Bruce nahiz Bob entzunez (Springsteeng eta Dylan, of course, eta hurrenez hurren). Zeren gauza bat da baieztapen horri barre egitea eta beste bat -bi gauza beraz- ganorazko erantzunik topatzea. Halandaze, eskerroneko nago Muxikarenganako, berari esker saiatu bainintzen hizkuntzaren beraren barruan ote dagoen erantzuna.

Hizkuntza bakoitzak ba ote du bere-berea den barne-erritmo bat eta, beraz, berezkoago zaion egituraren bat? Galdera horri erantzun nahiz itzulpenak egiteari ekin nion. Olerki bat hartu eta bertsio bi

egiten saiatzen nintzen; errimaduna bata, errimagabekoa bestea. Errimadun olerkia errima gabe euskaratzean mamia askotan huseria izaten dela, eta olerkiaren “funtzionamendua” -barka, baina ez da nirea funtzionatu esatea olerkiaz hitz egitean- oin egokien gainean ibiltzen jakitean datzala frogatzeko modua eman zidan horrek.

Mamia eta azala bateginik dituzten olerki errimatuak horretaraxe itzuli ezean galera handia dela uste dut. Baudelaire-ren *A une passante* dut horren lekuko egokientzat. Baina sonetoa bera, euskal neurria ote da? Erantzuna Mikoletaren *Del modo breve...* delakoan dugu. Ez!, diosku Mikoletak, gehituz, “otros lo han intentado sin éxito”. Mikoletaz geroztik aldaketa bat edo beste egin da gure literaturan. Ezezkoa ez da hain borobila. Dena dela, olerkia errimaturik egiten duenari ardura al dio honek guztiak. Eta besteo, zer? Maribixer.

Euskara gureak atzizkiak eta deklinazio-kasuak ditu hor oin erraz eta arin. Errazegia, arinegia, laprastadetarako egokiagoa ezin. Laprastadetatik inor gutxi salbatzen da. Xalbador bezalakoek bakarrik zekiten hizkuntzak berezko duen eta sinets daitekeen neurri-doinu egokiak erabiltzen. Besteok jai dugu.

Verlaine itzultzen saiatu nintzen, Verlaine-k frantsesaren labur-labur esateko gaitasuna aztertu eta gauzatu zuelako. Ezinezkoa da haren olerkiak euskaraz labur eman mamiari traizio egin barik. Haatik, Mikel Zaratek baditu frantsesarenak bezain laburrak diren ahapaldiak. Beraz, hizkuntza bietan dago ahapaldi labur mamitsuak egiteko era. Kontua da ahapaldi labur horiek egin nahi izanez gero gaiaren aldetik, edo mamiaren aldetik, amore eman behar dela, ezin daitekeela “labur” eta “norberaren gogoko” uztar. Labur egin gurak jolasera eramaten gaitu, nahi eta ez.

Labur eta errimatu egin behar horrekin zerikusia duen beste bat Pavese da. Hark ingelesera jo behar izan zuen bere buruaz beste egin aurretik esan gogo zuena esateko.

*Last blues, to be read some day
I was only a flirt
you sure did know-
some one was hurt
long time ago.*

*All is the same
time has gone by-
some day you came
some day you'll die.*

*Some one has died
long time ago-
some one who tried
but didn't know.*

Zerrenda apur bat luzatzea badaukadan arren, horretan utziko ditut nire orduko esperimentuen berri ematea, ez esan gabe, oster, nire asmo handinahiena Pessoa itzultzea izan dela, eta ez dudala egin, egiten hasi nintzen arren. Euskalkietako ukituetan ikusten dut haren heteronimoak euskaratzen hasteko bide bat. Ez da bakarra, oster. Baina utz dezagun poesiaren arloa, eta itzultzearen bidez egin dudana bilaketa sistematikoa horrexetara mugatzen denez, ez dakit nik nire prosa estiloan eraginik izan dutenentz itzuli ditudan beste zer guztiek, notaritzakoek, roboten kontuek, iragarkiek, agiri politikoek, erlijio-ikasgaiek, hegaztien gorabeherak eta beste hainbatek. Batek daki. Eta bada ordua galdera iruntzitarra egiteko, hots, al revés.

“Beste norbaitek edo zeuk zure libururen bat erdaratzeak zer eragin izan du liburu horretaz zenuen ikuspegian?” zioen azken galderak, eta hara hor Azken fusila nireaz hitz egiteko abagunea.

Hasteko, inoiz hala egitea eskatuko balidate ere, ez nuke neure libururik itzuliko. Horretarako dudan zio edo motibo nagusia da, besterik gabe, nahiago nukeela liburu berria sortu zaharra erdaratu baino. Bestalde, ziur nago nolabaiteko bertsioa egingo nukeela, horixe baitakar jatorrizkoa hustua izango deneko hizkuntza ere ezagutzeak. Arestian esan dudan legez, hartzailea den hizkuntza nagusi eta bestea meneko direnean, ia ekidezina bide da bertsio hobetuak egiteko tentazioa.

El último fusil, titulu bera ez zait euskaraz bezain neutroa egiten. Gaztelaniaz westernen tituluak ekartzen dizkit gogora. Egia, gogoko izan ditut westernak; eta gogoko ezezik gogoeta iturri aberatsenetariko bat ere. Hitzek ezberdin egiten dute oihartzun, aintzat hartuta irakurriak ditugulako ezagutzen ditugun, ala txikitakoak diren, ala zinean entzundakoak diren, ala nik dakita non ikasiak diren. Nire *Azken fusila* hizkuntzaren barruan egina da. Horrek zaildu egiten du erdaraz oihartzuna euskaraz nigan duenaren antzekoa izatea.

Euskaraz *Azken fusila* adbertsatiborik apenas erabili gabe egiten saiatu nintzen, adbertsatiboek diskurtsuaren ideologizazioa dakartelakoan. Zuzena izan liteke esatea, adibidez, “haizetxoak dabilen arren gure maratoilaria arin dator”, haizeak egiatan baitu eragina korrikalariaren martxan. Giza-harremanei buruzko diskurtsuan, haatik, adbertsatiboak kontuz eta tentuz erabiltzekoak dira. Erabaki horrek, juntagailu horiek ahalik eta gutxienetan erabiltzea, alegia, planoak elkarren alboan jartzera behartu ninduen. Eleberria gaztelaniaz irakurtzean ondo pozik sentitu nintzen, bilatu nahi nuen efektua lortua zela ematen zidan eta. Tamalez, plano-kontrajarpen ia zinematografikoak (kamera gidatzen ari banintzen legez jardun nuen idaztean, dena orainaldian kontatuz) plano horien ertzak kasik labanahoeginik uzten zituztelako inpresioa hartu nuen.

Inpresio hori berori izan nuen Epopeyas irakurtzean. Plano kontrajarriak lantzen jardun bide nuen narrazio hori idaztean. Hain zuzen ere, horixe egin nuen eta, ez dut kexatzeko arrazoirik.

Baleen barbaroa elebarriaren azken idazketan gogoen izan nuen ikasgaia *El último fusil* hark eman zidan inpresioa ez errepikatzea izan zen, alegia, *Azken fusila* gaztelaniaz irakurtzean kontrajarritako planoen ertz-erpinak zorrotzegiak, ia laban-ahoak zirelako sentsazioa, ez nuen errepikatu nahi. Leundu egin nuen kontaeraren jarioa, berezkoago eta naturalago egin nion ubidea eta logikoagoa narrazio uren azken bokalea. Hala eta guztiz ere, prosa-mota bakoitzak bada-rama aldean bere diskurtsu ideologikoa itsatsirik; edo erroetan iltzaturik. Ez gara errugabeak. Gure letrazko bekatuak erabakiorrak ere ez direnez, oster, errudunak izan arren ifernu txiki eta su epeleko batera kondenatuak gara, hots, letren errepublikan nahi eta ezinera, batzuen iritziz euskaraz idaztea berez nahikoa ifernu dela ahaztu gabe. “Por qué no escribes en castellano” esaten digutenek beti, ia beti, jarraitzen zaizkigu esaten baze, gurea gaztelaniaz dagoenean irakurriko dutela; bada, nire obra gaztelaniaz argitaratu izanak erakutsi didan garrantzizkoena nire herkideei buruzkoan erakutsi didana da, hain zuzen ere, “ya te leeré” hori klitxea zela gehienetan, pasotik ateratzearren emandako atxaki hutsa. Gu, lagunak, bakarrik gaude.

Txosten monografikoa: Zientzia-fikzioa



**Iban Zaldúa
Begoña del Teso**

*Zenbait gogoeta
zientzia-fikzioaren inguruan*

1. Zientzia-fikzioaren definizioaz eta historiaz

Nekeza da zientzia-fikzioa (ZF) delako horren definizio zehatz eta konpartitu bat ematea; ezin besterik espero, gure “ikerketa- objektuaren” izendapena bera eztabaidagai izan dela kontuan hartuta (zientzia-fikzioa? Fikzio zientifikoa? Zi-fi-a? Fikzio espekulatiboa? Antzipazioa? Fantasia zientifikoa? Fantazientzia?). Baina, egia esateko, gaur egun ez dago jadanik zalantza handirik: *zientzia-fikzioa* da unibertsalki onartutako izendazioa (hori bai: batzuetan marratxoarekin, beste batzuetan marratxorik gabe).

Genero horren barruan zer sartzen den, beste arazo bat da. Sam Lundwald-en arabera, *“Gutziz baliagarritzat jo daitekeen definizio bateraturik ez dago sinplifikatze aldera zientzia-fikzio bezala ezagutzen den horretarako”*. Izan ere, definizioak irekien edo “inperialistenetatik doaz (*“Zientzia-fikziozko argitaratzaileek erosten dituzten istorio guztiak dira zientzia-fikziozkoak”*, John W. Campbell; *“Zientzia-fikziozko aldizkari eta liburuetan argitaratzen den oro da zientzia-fikzioa”*, Norman Spinrad; *“Zientzia-fikzioa genero narratibo bat da, bilbea kokatzen duena mundu jakin batean, zeinaren errealitate-gogo bakarra existentziarako duen aukera hutsa baita”*, Eulalio Ferrer), mugatzaileenetara (*“Zientzia-fikziozko istorioak bidaia harrigarriak dira etorkizun asmagarri infinituetako batera”*, Isaac Asimov; *“Eleberrri erromantiko mota bat da, zeinetan gure gizarteko harreman baldintzatzaileetako bat etorkizun utopiko batean proiektatzen baita”*, Juan Ignacio Ferreras) zenba daitezke.

Lehenengoek, jakina, kutsu tautologikoezia dute eta ez dute laguntza handirik eskaintzen, eta bigarrenek ordea generoaren ikur-

tzat hartu ohi diren lan asko arbuiatzen dituzte (Ferrerarenak, esaterako, kanpoan utziko luke space opera delako guztia, hots, abenturazko zientzia-fikzioa, eta baita Jules Verneren lan gehienak ere, *roman scientifique* delakoaren esparruan geratuko lirakeenak). Bestalde, zientzia-fikzioaren gai edo topiko nagusienetako batean oinarritu diren definizioak (espaziorako bidaiak, estralurtarrak, teknologiaren aurrerapena, denboran zeharreko bidaiak...), mugatuak dira berez, eta ez dute generoaren aberastasuna egoki islatzen; esaterako, Isaac Asimov ZFko idazle famatuak (eta zientzialariak) ematen zuen beste ikuspegiak ("*Zientzia eta teknologia mailan gertatzen diren aldaketen aurreko giza-erantzunez arduratzen den literaturaren adarra da zientzia-fikzioa*") dezente argitzen du generoaren iturburu edo baldintzatzaileei buruz, baina kanpoan uzten ditu Philip K. Dick-en *Gizona gaztelu-garaian* bezalako obra enblematikoak (iragan edo etorkizun paraleloetan kokatzen direnak alegia), edo Theodore W. Sturgeon-en asko (zeinetan psikologiaren bilakaera bitxiek rol garrantzitsua izaten baitute).

Gai zabala eta eztabaidatua da, eta ezin gara gehiegi pausatu bertan, aurrera egiteko posibilitatea arriskuan jarri gabe. Beraz, nire uste apalean abiapuntutzat har daitezkeen beste bi definizio-ahalegin gehituko ditut, zientzia-fikzioaz nik dudan ideiarik gehien hurbiltzen direnak hain zuzen ere (azpimarrak neureak dira). Bata Kingley Amis-ena da:

Narratiba-forma bat da, ezagutzen dugun munduan ezinezkoak diren egoerez ari dena, baina zeinaren existentzia edozein motatako berrikuntzan -lurtarra zein estralurtarra izanik- oinarritzen baita, zientzia edo teknikaren esparruan planteatua, edo are pseudozientzia edo pseudoteknikarenean ere.

Bestea Darko Suvin-ena:

Zientzia-fikzioa narrazio imaginario bat da, leku edota dramatis personae batzuen erabilera nagusia baldintzatzen duena, zeinak honelakoak baitira: 1) literatura

mimetiko edo naturalistako garai, leku eta pertsonaia enpirikoengandik guztiz edo behintzat esanguratsuki ezberdinak, baina 2) aldi berean (zientzia-fikzioa beste genero fantastikoetatik -hots, balidazio enpirikorik gabeko ipuin imaginarioetatik- desberdintzen den heinean) ez inposibleak bezala onartzen dira egilearen garaiko ezagutza-arauen (kosmologiko zein antropologikoen) arabera.

Edonola ere, definizioaren arazora hurbiltzeko beste bide bat ZFa osatzen bide duten azpigenero edo adarren (eta, bide batez, topikoen) berrikustea egitea izan daiteke. Hauek izango lirateke garrantzitsuenak:

- **Space opera:** abenturazko zientzia-fikzioa; izan ere, abenturazko nobela klasikoaren (eta sinplearen) moldeak jarraituko lituzke baina beste denbora edota beste espazio batean, ahalik eta leku urrun eta zabalenetan, posible bada. AEBetako lehenengo zientzia-fikzioan gehien landu zen azpigeneroa izan zen, eta kritikari serioek dezentte arbuiatzen duten arren, jarraitzaile ugari ditu oraindik irakurle zein idazleen artean. Adibide klasikoa "Doc" Smith-en nobelak lirateke, edo (zazpigarren artera joanda) *Star Wars*-en sail zinematografikoa. Fantasia epikoa edo heroikoa, *sword & sorcery* eta antzeko ildoei harreman estua dute, azken batean, *space opera*-rekin (baina gauzak gehiago ez nahasteko ez ditut ZFaren baitan aztertuko, "fami-liakoak" diren arren).

- **Zientzia-fikzio gogorra, edo hard SF:** idazteko unean indarrean dauden ezagutza zientifikoei estuki lotzen zaizkion lanek osatzen dute, eta protagonistak zientzialariak izan ohi dira, gainera. Izan ere, gehienetan zientzialariek edo zientzia-prestakuntza dutenek idatzi da, eta (salbuespenak salbuespen) obraren plausibilitate zientifikoa-ri garrantzi handiagoa eman ohi diote, balio literarioari baino. Adibide klasikoak (eta errazenak) Arthur C. Clarke-ren lan gehienak dira (*Hitzordua Rama*-rekin, adibidez); "gogorrakoak" dira Hal Clement-en *Grabitate-misioa* edo G. Benford-en *Kronopaisaia*.

- **Ziberpunk-a** 1980ko hamarkadan sortu zen, nahiz eta 60ko hamarkadako hainbat topiko jasotzen dituen: errealitate paraleloak,

konspirazioaren teoria, korporazio eta estatu-aparatu ahalguztidunen aurkako antiheroiairen borroka... elektronikaren aurrerakuntzen eta ziberespazioaren gaiekin nahastuta, "errealismo zikinaren" zantzu batzuekin batera. Azken aldi honetan gainbeheran dagoela dirudien arren, estetika indartsu bat sortu du. William Gibson-en *Neuromancer* da ildo honetako "klasikoa".

- **Zientzia-fikzio politikoa:** utopiaren eta distopiaren arteko lurraldea esploratzen duen zientzia-fikzioa, lehengaita ia beti gizarte humano izaten delarik. Ohiko etsenpluak: *1984*, *Hau mundu berria*.

- ZFaren *mainstream* delakoa, edo ildo nagusia osatuko luke beste guztiak, oro har. Egungo errealitatearen estrapolazioak, edota analogiaren erabilera izaten dira dituen baliabide nagusiak, eta jorratzen dituen gaiak asko izan daitezke: espazioan zeharreko bidaiak, enkontruak estralurtarrekin edo bestelako izaki estrainioekin, denboran zeharreko bidaiak, antizipazioa, etorkizuneko katastrofismoa, adimen artifizialak, psikearen eboluzionismoa, ukroniak...

Hurbilketa honek, edonola ere, eskasa dirudi; kritikari askok egin duten bezala, generoaren azterketa historikoan murgiltzea bide eraginkorragoa izan daiteke (izan ere, ZFaren "zabalkuntza" bera gerta daiteke gaur egun dituen definizio arazo horien erantzule). Hori da ondoren egingo duguna.

Esan daiteke **kapitalismoaren historiarekin bat egiten duen generoa** dela ZFa. Urrunegi joan gabe, eta egile batzuek zientzia-fikzioaren arrastoak edo aurrerakinak Grezia klasikoko eta Erdi Aroko literaturan topatu dituztela kontuan harturik -Berpizkundetik abiatzen den literatura utopikoa ahaztu gabe (Tomas Moro, Campanella...)-, *ortodoxiak* dio XIX. mendean sortutako genero bat dela, hau da, industria-kapitalismoaren lehenengo urratsekin bat. Izan ere, kapitalismo deritzan ekonomia eta gizarte-sistemaren ezaugarri nagusienetako bat (beste sistema batzuetatik desberdintzen duena hain zuzen ere), aldakuntzarako duen joera da, aldakuntza bizkor

eta amaigaberako joera, alegia. Etorkizuna inoiz baino gehiago hurbildu da gaur egunera, eta etorkizun hori, gainera, geroz eta ezberdinagoa bihurtzen joan da. Bestalde, kapitalismoak etorkizunean pentsatzen ohitu gaitu: biharko soldatetan, etziko enpresa-mozkinean, etzidamuko erretreta-sarian, sistema bera suntsi lezakeen inoizko iraultzan. Eta ez da harritzekoa testuinguru honen kezka eta galdereri erantzuten saiatuko den literatura-genero berria sortzea, denborarekin zientzia-fizikio izendapena jasoko zuena alegia.

Horren ikur nagusia generoaren oinarri eta abiapuntutzat hartu ohi den Mary W. Shelley-ren *Frankenstein, edo Prometeo moderno dugu* (1818); eleberri gotikotzat hartua izan bada ere, zientziaren erabileraren ondorioen gainean hausnarketa planteatzen duen lehenengo lan nobelistiko sendoa da, eta darabilen gaia zein tonu pessimista geroko ZFak behin eta berriro esploratuko duen lurralde baten abiapuntutzat har daitezke. Ez da kasualitatea mugimendu erromantikoaren baitan kokatzen den egile bat izatea generoaren nolabaiteko sortzailea: azken batean, nagusitzen ari zen mundu industrial-kapitalistaren aurreko nolabaiteko erresistentzia izan zen erromantizismoaren osagaietako bat.

Generoaren bilakaeran, hala ere, bost bat garai desberdin daitezke (haurtzaroa, gaztaroa, lehenengo heldutasuna, bigarren gaztaroa, eta heldutasun berria -azken hori zahartzaro sintomekin akaso-), eta bi iturburu nagusi (europarra eta estatubatuarra).

Garaiak, jakina, ez dira zehatzak, eta bata bestearen gainean ezartzen dira. Lehenengoak, *haurtzaroak*, ia XIX. mende guztia hartuko luke eta, esan bezala, *Frankenstein* du iturburu (ZFa kontsidera daitezkeen beste obra bat ere idatzi zuen Mary Shelley-k: *Azkeneko gizakia*, 1826). Generoa ez dago definitua, eta bidea irekitzen ari direnen saiakerak sartu beharko genituzke hemen: besteak beste, E. A. Poe eta Ambrose Bierce-ren zenbait ipuin eta nobela, Samuel Butler-en *Erewhon* (1872), Nikolai Txernitxevski-ren *Zer egin?* (1882), R. L. Stevenson-en *Jekyll doktorearen eta Mr. Hyde-ren kasu bitxia* (1886), Sa-

muel Bellamy-ren *Atzera begira: 2000-1887* (1888), Mark Twain-en *Yankee bat Artur erregearen gortean* (1889), eta, jakina, Jules Verne-ren obra ia osoa. Azken horren kasua kenduta, agian (eta ez guztiz, Verne, berez abenturazko eleberrigileen multzo zabalagoan errazago sartzen baita, eratzten ari den ildoan baino), ez dugu "espezialista" osorik aurkitzen (hots, antizipazioaren edo zientziaren inguruko problematikaz fikzioa idazten dutenak, soilik), baina gai batzuk iradokitzen ari dira, giro batzuk, eta, jakina, irakurle goi bat sortzen.

XIX. mendearen amaieratik II. Mundu Gerraren hasiera arte koka dezakegu generoaren *gaztaroa* dei dezakeguna. H. G. Wells-en figura erraldoiak menderatzen ditu aldi honen hasiera (bere lehenengo eleberriek batik bat, oso tarte laburrean generoaren topiko asko eta asko finkatzen dituztenak: *Denbora-makina*, 1895; *Moreau doktorearen irla*, 1896; *Gizon ikusezina*, 1897; *Munduen arteko gerra*, 1898; *Lehenengo gizakiak ilargian*, 1901, besteak beste), amaiera Estatu Batuetako *pulp magazine* delakoen arrakastak ezaugarritzen duen bezala. Garai eta testuinguru horretan hartzen du generoak, hain zuzen ere, bere behin betiko izendapena dirudiena: "science fiction", Hugo Gernsback argitaratzaileak 1929an asmatu ziona, zuzentzen zuen *Amazing Stories* estatubatuar aldizkarirako hain zuzen ere (lehenago "scientifiction"-ekin saiatu zen, baina ez zitzaion nahikoa indartsua iruditu, antza) (bide batez: Ferradas bezalako egileentzat -ZFaren nahikoa definizio mugatua ematen duten heinean- 1920-30 hamarkadetan hasiko litzateke benetan ZFaren historia; lehenagoko lanak eta egileak aurrekariak baino ez lirateke. I. Mundu Gerraren osteko ezinegonarekin eta, batik bat, 1929ko Krisialdi ekonomikoarekin lotzen dute generoaren sorrera, eta kapitalismoa bizitzen ari zen hazkunde-krisiari eman zitzaion nolabaiteko erantzun literarioa izango litzateke ZFa, hortaz... Ikuspuntu honetatik, beraz, generoaren baitaioa 1929an gauzatzea ez zen kasualitatea izan).

Literatura mota honen elementu gehiago definitzen dira etapa honetan: esaterako, *space opera* izenekoan planetarteko eta are izarrar-

teko abenturen eredia (E. Rice Burroughs-en *Marteko printzesa batetik* hasita -1917; ondoren antzeko dozena bat gehiago idatzi zituen, azpigeneroaren benetakoa finkatzailea den Edward E. "Doc" Smith-en obra oparora -zeinaren Skylark saila, 1920ko hamarkadan zehar argitaratua, *klasikoa* bihurtu baita-, A. Conan Doyle-ren *Mundu galdua* -1912- edo Jack Williamson-en *Espazioko legioa* -1934- bezalakoe-tatik pasatuz, noski). Beste ezaugarri bat aldizkariet lortuko duten garrantzia izango da: liburuak argitaratzen jarraituko diren arren, aldizkaria (eta batez ere paper merkeaz argitaratutakoa, *pulp* delakoa: *Amazing Stories, Wonder Stories, Astounding Science Fiction...*) bihurtuko da ZFaren zabalkunderako tresna nagusia. Eta hemen kapitalismoa bera jasaten ari den aldaketa batekin dagoen harremana argi ikus dezakegu: aldizkari horiek baitira, literaturaren arloan, masa-kontsumo berriaren agerpenaren ikur nagusiak. Garai honetako ZFaren ezaugarri bezala ondokoak zerrenda ditzakegu: exotismo-rako eta abentura amaitezinetarako joera, manikeismoa, planteamenduen eta pertsonaien sinpletasun erabatekoa eta, askotan, baikortasun handia (ezin bestela izan abenturazko eleberrri eta ipuinetan; izan ere, badago ZFan sartuko ez lituzkeenik, *far west*-eko nobelen "lekualdatze" soila direlakoan). Hemen sartu beharko genuke, jakina, eragin dezente izaten hasi zen zientzia-fikziozko komikia ere, Nowlan eta Calkin-en *Buck Rogers* (1929tik) eta Raymond eta Balmer-en *Flash Gordon* (1934tik) sail arrakastatsuekin.

Hala ere, eta hemen nolabaiteko parentesia ireki beharra dago, garai honetan nahikoa argia da bi ildo nagusi ari direla garatzen gaztaro kementsua bizi duen generoan: estatubatuarra eta europarra. AEBetakoa, geroago nagusituko dena hain zuzen ere, gorago aipatutako koordinadetan mugitzen zen, baina europarra, ezbairik gabe, aberatsagoa da, II. Mundu Gerraren eztandak beraren indarra moztuko badu ere. Wells-en bidetik abiatuta, konplexuagoa da, analitikoagoa, lotura handiagoak ditu literatura "garaiarekin" (eta, ez gutxitan, baita futurismoa, dadaismoa eta surrealismoa bezalako aban-

goardiekin ere), eta, orobat, joera pesimistago bat aurkezten du, distopikoa alegia². Hemen ezin dira sailhestu Yevgeni Zamiatin boltxebike disidentearenak bezalako lanak (*Gu*, 1924, 1984ren aurrerakin argia), Carel Capek-enak (*RUR*, 1920 -errobot kontzeptua eta hitza ezartzen dituenena-; *Arrabioen gerra*, 1934 -kapitalismoaren izpirituari buruzko kritika beldurgarria-), Olaf Stapledon britainiarraren filosofiaz beteriko nobelak (*Lehenengo eta azkeneko gizakiak*, 1930; *Izar-egilea*, 1937), C. S. Lewis-en fantasia kristauak, eta, jakina, Aldous Huxleyren *Bai mundu berria* (1932); izan ere, talde honetan sartu beharko genuke, baita ere, George Orwell-en *1984* (1948), ildo honen epigonorik gorena, ezbairik gabe. Ematen du I. Mundu Gerraren esperientzia latzek, pil-pilean zegoen giro artistiko eta intelektualarekin batera, zerikusi handia izan zutela ZFaren ildo europarra dei dezakegun honen sorreran; baina, paradoxikoki, II. Mundu Gerrak ekarri zuen hustasunak eta nekeak (gogoratu Adornoren *adagioa*: posible al da poesiarik-literaturarik- idaztea Auchswitz eta gero?), estatubatuarren nagusigo militar zein kultural berriarekin batera, agortzera eraman zuten "europar ildo" hura: hemendik aurrera AEB-etatik etorriko den zientzifikazioa izango da nagusi (horri guztiari, jakina, sobietar zientzifikazioaren agortze erlatiboa gehitu behar diogu: Alexei Tolstoi-ren *Aelita* -1924- bezalako lan nabarmenak emateko gai izan zen arren, stalinismoak ito egin zuen zeukan alderik sortzailleen eta aurrerakoiena). Honek, jakina, ez du esan nahi Europan ZFrik landuko ez denik, baina hemendik aurrera ZF horren ereduak eta eraginak Amerikatik etorriko dira, eta ez dute horren lotura zuzena izango 1920-30 hamarkadako "loraldiarekin": berdin dio A. C. Clarke, B. W. Aldiss edo S. Lem ez ari bagara. Hala ere, dudarik ez dago europar adibide hauek AEB-etako zientzifikazioaren "aberaste" prozesuan zer ikusia izan zutena, bai Urrezko Aroan, eta, batez ere, *New Wave* delakoaren garaian: bide "ezberdin" hauek, jakina, ez dira estankuak.

Hurrengo garaia, *lehenengo heldutasunarena*, Urrezko Aroa deitzen dena izango litzateke, ezbairik gabe. Hau da, ziurrenik, irakur-

leontzat ezagunena, garai honetakoak baitira zientzia-fikzioaren egile eta lan klasikoak kontsideratzen direnak: lehenik eta behin, hirutasun santua, hots, Robert A. Heinlein, Isaac Asimov, A. E. Van Vogt (hau nahikoa ahaztuta dagoen arren), eta haiekin batera Poul Anderson, Frederik Pohl, Ray Bradbury, Theodore Sturgeon, Fredric Brown, Clifford D. Simak, Jack Vance, Alfred Bester, Walter M. Miller jr. (guztiak AEBetakoak), eta Arthur C. Clarke britainiarra. Besteak beste, jakina. Konplexutasunean aurrera egin zuen literatura izan zen; aldizkarietan oinarritua nagusiki (*Astounding, Galaxy, The Magazine of Fantasy and Science Fiction...*), baina libururako pasabidea egiten hasi zena; abentura-dosi handiak dituen oraindik, baina zientziaren eta teknologiaren gizarte-ondorioekin gero eta arduratuagoa; bestalde, ipuina da, ez bairik gabe, tresnarik erabiliena eta eraginkorrena, arlo horretan benetako lan biribilak gauzatzera heldu baitziren (nahiz eta nobela gero eta garrantzia handiagoa hartzen joango den... askotan ipuinen bilduma "konponduak" diren arren). Baina pertsonaiek nahikoa lauak izaten jarraitzen dute; egoerak, eskematikoak; eta ez zaio garrantzi handirik ematen formari, estalki literarioari: inportanteena argumentuaren eraginkortasuna da. Izan ere, garai honetako produkzioari zor dio ZFak, ziurrenik, "ideien literatura" izatearen fama edo izendapena: ideia bakar bat, normalean novum batean oinarritua (hots, irakurlearen errealtatean ezaguna ez den berrikuntza edo bitxikeria batean: gizarte bat, leku bat, izaki bat zein teknologia bat), narrazio osoaren ardatz nagusi bilakatzen dena (horrenbeste, ezen, zenbaiten ustetan, oso esaldi gutxitan laburbiltzeko gaitasuna izanez gero, orduan eta eraginkorragoa -eta arrakastatsuagoa- ipuina edo nobela; P. K. Dick-ek ondo laburbiltzen zuen hau esatean: "*Zientzia-fikzioan gutxiago azpimarratzen da estilo hutsa, eta gehiago edukia, behar den bezala*").

Bigarren gaztaroa 1960 eta 1970 hamarkadetako izango litzateke. Mugak zehatzak ez badira ere, garai horretan garatuko litzateke *New Wave* deritzan berrikuntza mugimendu aniztuna, ZF "klasiko-

aren" oinarriak irauliko dituen. "Joerak", dirudienez, Britainia Handian du lehenengo jatorria (estatubatuar ZFaren jarraitzaile diren M. Moorcock, Brian W. Aldiss, J. G. Ballard eta abarren eskutik), baina aurki zabalduko da AEBetara, Samuel R. Delany, Thomas M. Disch, Roger Zelazny eta Harlan Ellison bezalako egileekin; *New Wave*-kottzat jotzen ez bada ere, Philip K. Dick-ek ezaugarri batzuk konpartitzen ditu multzo horretako kideekin. Garai honetakoa da, bestalde, emakumeen gero eta parte hartze handiagoa ZFko idazle giza, asko *New Wave*koak ez diren arren: Ursula K. LeGuin, James Tiptree jr., Joanna Russ, etab. (Europa kontinentalean ere bultzada berria jasanngo du ZFak, nagusiki AEBetako literaturak eraginda, egile berriekin: Stanislaw Lem poloniarra, Strugaski anaia sobietarrak, Frantziako ZFa...). Esan daiteke, oro har, nobelak aurea hartzen diola ipuinari, ZFaren literatura produktu nagusi bezala alegia, eta formaren arduragero eta handiagoa dela, hau da, *literarioagoa* izan nahi duela ZFak, eta literatura "garaiarekin" homologatu, nolabait (batzuetan arrisku estetiko handiko lanak burutzen dituzte, hizkuntzaren posibilitateen mugetan, John Dos Passos, Robbe-Grillet edo are James Joyce-ren lanen itzalean). Parodiaren, pastitxearen eta umorearen erabilera ohiko tresnak bihurtzen dira, eta, bestalde, gai sakonagoak edota gogorragoak ditu gustuko garai honetako ZFak, eta gehiago aztertzen dira soziologiarekin eta historiarekin zerikusia duten argumentuak, zientzia "gogorrekin" harremanean daudenak baino: generoen arteko dialektika, sexua, arraza-arazoak eta alteritatea, (gure) gizartearen kontraesanak, drogen eragina, unibertso paraleloen posibilitatea... Kritika unibertsitarioa ZFko literaturaz arduratzen hasten da, eta ZFari buruzko lehenengo irakasgai, mintegi eta aldizkari burutsuak sortzen dira. Berrikuntza ahalegin hauen indarra horrenbestekoa izan zen ezen, egile berri eta gazteez gain, planteamendu berriek Urrezko Aroko egile nagusiak ere «kutsatuko» dituztela, muga batzuen barruan beti ere (ikus R. A. Heinlein-en *Atzeritarra atzerriko lurraldean* -1961-, I. Asimov-en *Jainkoak eurak* -1972-,

F. Pohl-en *Homo plus* -1976- eta Ataria -1977-, edo Frank Herbert-en *Dune* saga -1965etik-: azken hau ez da printzipioz aldentzen *space opera* klasikoaren planteamenduetatik, baina mundu bateko ekologia eta gizartea zehatz-mehatz berreraikitzeke egiten duen ahaleginak, hein batean, joera honetara erakartzen du). Argi eta garbi nabarmentzen dira 1960ko gizarte-aldaketen eraginak, kontrakultura-arenak eta Vietnamgo gerraren aurkako mugimenduarenak (hortxe dago, esate baterako, Joe Haldeman-en *Gerra amaitezina*, 1975), eta ZF honen tonua kritikagoa da, ilunagoa, ezkorragoa; bestalde, gero eta ohikoagoak dira ZFaren beraren (ber)irakurketa ironikoak, antzinako ZFa lehengai bezala erabiltzen dituzten obrak (esperimentu metaliterarioak alegia). Dick-en hitz batzuk egokiak dira hemen: “[ZFak] ez du halabeharrez amaiera zoriontsu bat eskatzen, eta fikzio serioaren adar bakarrenetakoa da zeinetan umoreak rol garrantzitsu bat jokatzeko baitu (...). Mendebaldeko kulturaren forma aspaldikoenetako bat izanik, gizakia amestera ausartu den ideia eta nahi sotilenak, zaharrenak eta fantastikoenak bildu ditu bere baitan. Laburbilduz: literaturaren eremurik zabalena da, zeinetan dena sar baitaiteke. Dena, den-dena dagokio zientzia-fikzioari”.

Bigarren heldutasuna (edo agian zahartzaroa) 1970eko hamarkadatik gaur egunera luzatuko litzateke. Zaila da garai honetako ZFa ezau-garritzea, aniztasuna eta erregistro-nahasketa direlako egun nagusi, literatura “arruntean” bezala hain zuzen ere. Oro har, *New Wave* garai-ko experimentalismoa eta progresismoa alde batera utzi bada ere, arrasto sakonak soma daitezke ZFaren produkzioan, kalitate oneko literatura lortzeko ahalegina nahikoa zabaldua dagoelarik; eta eragin hau ikus daiteke 1980ko hamarkadaren hasieran sortutako ZFaren adar berrian ere, ziberpunk delakoan alegia: elektronikaren mundu birtualen eta anomiak jotako gizarte postindustrialak osatzen duten *ziberpunk* nobelen paisaia ohikoa, William Gibson-en *Neuromancer* (1984) fundatzailetik hasita (beste izen nabarmen bat: Jeff Noon britainiarra eta bere *Vurt*, 1993. Eta korrante honetan kokatzea zaila bada ere, Iain Banks eskoziarra *New Wave*-aren oinordekotzat har dezakegu).

Hala eta guztiz ere, molde “klasikoetarako” itzulera (kontserbataile) bat nabarmen daiteke, baita ere, lanek ordukoak baino luzeagoak (euskal literaturan azken aldi honetan gertatzen den bezala, eta nolabaiteko homologazioaren bila abiaturako literatura gehiengotan ikus daitekeen moduan, nobelatzarrak ugaltzen hasi dira, ez beti emaitza bikainekin), handinahiagoak, eta, orobat, zertxobait konplexuagoak izateko helburua izaten duten arren: adibide bezala har ditzakegu Dan Symmons-en *Hyperion saga* (1989tik, haraindikotasun nahiak dituen *space opera* duin bat, azken batean), abenturaren eta etika *berezi* baten artean kokatutako Orson Scott Card mormoiaren nobelak, edo Kim Stanley Fowley-ren *Marte trilogia* (planeta gorriaren kolonizazio hurbilaz ari zaigun obra zehatza eta kutsu «errealistakoa», Verne-ren zientziatzko eleberraren tradizioarako nolabaiteko itzulera suposatzen duena).

Ziberpunka alde batera utzita, 1980ko hamarkadako ZFko literatura lanik berritzaileenak (eta interesgarrienak), nire ustez, komikien munduan gauzatu ziren: nahikoa da gogora ekartzea H. Miyazaki-ren *Nausicaä* (1983), A. Jodorowsky eta Moebius-en *Incal*-aren saila (1983-89), K. Otomo-ren *Akira* (1984), edo A. Moore-ren *Watchmen* (1986-87). Bestalde, azpimarragarria da ZFak (gaiak berriak ez diren arren) gero eta arreta handiagoarekin aztertu dituela, azken urte hauetan, arazo ekologikoari, superpopulazioari, ingeniarietza genetikoari eta, batik bat, iraultza informatikoari lotutako gaiak.

Hala ere, azken garai honetako fenomenorik garrantzitsuena ZFaren «popularizazioa» izan da: *fan*-en kontu bat izatetik, kontsumitzaile-masaren ondare bihurtzera jo du ZFak. Fenomeno hau 1960ko hamarkadatik hasi zen gertatzen literatura-mailan, baina ez da benetan nabarmena bihurtzen 1970 eta 1980ko hamarkadak arte (edonola ere, hein handiagoan beste leku batzuetan, gure inguru geografikoan baino). Aipatu komikiaren bultzada alde batera utzita, ikusentzutekoen eraginarekin du zer ikusia: ZFko filme eta telesailen produkzioarekin alegia. Horiei esker ZFa genero arrunta(goa)

bihurtu da jende askorentzat, eta eztabaidaezina izan da *Star Trek*, 2001: *Espazio-odisea* bat eta, batik bat, *Izarren Gerra* bezalako filme eta telesailen eragin erabakigarria (gehi lehenengo *Alien*-a eta *Blade Runner*, jakina). Horrek, dudarik gabe, gora bultzatu du ZFko literaturaren kontsumoa, baina ez espero zitekeena bezainbeste, dena den.

2. Zientzia-fikzioaren orainaz (eta etorkizunaz?)

Zein da zientzia-fikzioaren egungo egoera? Lehenik eta behin, eta badaezpada, gogoratu beharra dago **ZFa ez dela zientzia gogorren literatura**. ZFaren gai nagusia ez da zientzia, gainerik begiratuta hori dirudien arren; izan ere, Scholes-ek eta Rabkin-ek esaten duten bezala, ZFa zientziaz baliatzen da -zehaztasunez, edo zehaztasunik gabe-, bere helburua lortzeko, hau da, (egungo) gizakiaren bizitza eta izpiritua aztertzeko³.

Egia da ZFaren historiaren hastapenetan lotura hori argiagoa zela, berdin dio J. Verne-ri buruz, H. G. Wells-i buruz (zientzialari prestakuntza zuena), Hugo Gernsback-i buruz (dibulgatzaile porrokatua berau), eta abarri buruz ari garen; baina deskribatu dugun bilakaera historikoa gaiaren eta planteamenduen zabalakuntza handia ekarri du, eta ezin uka lotura horiek laxatu direnik, hein batean behintzat.

Egia da, bai, hard motako ZFak erabateko harremana duela zientziaren bilakaerarekin, baina (obra bikain batzuk eman dituen arren), ez da ZFaren azpigenerorik ospetsuena; besteak beste, irakurle arruntari oso zaila eta astuna iruditu ohi zaiolako, askotan (zientzialariek zientzialarientzat idatzitako lanak dira, behin baino gehiagoetan), eta, bestalde, lanok eskasia nabarmenak izaten dituztelako, literatura-kalitatearen aldetik alegia.

Egia da, bestalde, zientzialarientzat erabilgarria izan daitekeela ZFa hipotesiak eta teoriak irudikatzeko edota azaltzeko, eta proposamen anitz egin dela hezkuntza-maila ia guztietan (oinarrizko hezkuntzatik hasita unibertsitateraino) ZFko lanak azalpen zientifikoaren osaga-

rri edo are oinarri bezala erabiltzeko. Stephen Jay Gould paleontologo eta zientzia- dibulgatzaileak berak ZFtik ateratako adibideak erabili ditu bere artikulu batzuetan, ilustrazio gisa edo (bereziki gogoan dut eboluzionismoaren aspektu batzuk azaltzeko Stephen King bere lagunaren *Tommyknockers* eleberriaz baliatzen zela... nahiz eta, bide batez, King ezin den inolaz ere ZF gogorraren ordezkari gisa hartu, ezta ZFko idazle bezala ere, nagusiki behintzat). Ezin ukatu, bestalde, ZFaren zaleak bereziki ugariak direla zientzialarien eta zientzia-ikasleen artean (Asimovek zioen bezala, zientziak bokazio asko zor dizkio ZFari), eta Espainian eskaintzen den ZFko literatura-sari nagusia Unibertsitate Politekniko batek ematen duela, Barzelonakoak (eta, gure artean, EHUko Leioako Zientzia Fakultatea dela arlo horretako sari bakarra -Alberto Magno delakoa- bultzatzen duena, eta bertan eskaini duela Eduardo Angulo irakasleak “*Ciencia ficción y biología*” doktorego-ikastaroa). Jabi Zabalak esaten duen bezala, zientziak behin eta berriro jotzen du zientzia-fikziora ideia eta inspirazio bila, eta “*Martitz planetan (...) Wells eta Bradburyren ametsetan ageri zen moduko gerrarik, ezta izaki berderik*” ere ez dagoen arren, “*literaturagatik izan ez balitz, ez ginateke espazioaren aroan egongo*”.

Egia da, azkenik, zientziaren eta teknologiaren bilakaerarekiko mirespena (cfr. J. Verne, *Paris XX. mendean*), mesfidantza (A. Besteren *Izarrak, nire helmuga*, edo U. K. LeGuin-en *Gabetuak*) zein beldurra (*Frankenstein* bera) izan direla, bere historiaren hasiera-hasieratik gainera, generoaren ikur eta akuilu, eta bide horretatik behintzat ZFak aldaketa tekniko-zientifikoaren eztabaida gizarteratzen lagundu duela, hein batean bederen (ez dakit, ordea, ZFak planteatutako zalantzek zenbateraino handitu duten komunitate zientifikoaren zuhurtzia, edo eskrupulu moralak... ez dut datu zehatzik, behintzat).

Bestalde, ZFak genero bezala berezkoa duen egiantzekotasuna eskuratzeke, zientzia (edo, hobeto esateko, unean uneko ezagutza zientifikoaren multzo orokorra) helduleku ezin hobea izan da, eta oraindik ere hala da lan askotan. Hasieran eskaini ditudan definizioak

gogoan hartuta, zientzia izan daiteke, hain zuzen ere, narrazioan eskaintzen zaizkigun gertakariak edo giroak “ez inposibleztat” onartzeko dugun oinarri edo gako nagusia, ZFa literatura fantastiko orokorretik desberdintzen duena hain zuzen ere: Kafkaren *Metamorfosia*, printzipioz, literatura fantastikoa da, ez baitzaigu inolaz ere azaltzen (ezta iradokitzen ere) nolatan gertatu den itxuraldaketa; baina esperimentu genetiko baten ondorio dela aipatuko balitz (esaterako), zientzia-fikzioaren eremuan eroriko litzateke (erantzuleak jainkoak edo iluntasunaren indarrak balira, ordea, berriro ere igaroko litzateke fantasiaren aldera...).

Baina gauzek ez dute horrela funtzionatzen ZFko nobela guztietan, eta, beraz, zientzia ezin dugu ezinbesteko zutabetzat hartu. Alde batetik, K. Amis-en definizioak gogorarazten digun bezala, ZFko lan bat berdin-berdin oinarri daitekeelako pseudozientzian (edo pseudoteknikan), hots, benetakoak ez diren egungo zientziaren antzeko printzipioetan, eta eraginkorra izaten jarraitu, hots, ZFa izaten jarraitu (Asimov-ek aitortzen zuenez, bere lehenengo ipuinetako bat Merkurioaren errotazio ezean oinarritzen zen... nahiz eta, idatzi zue nerako, ondo zekien planeta horrek errotazio mantsoa zuena!). Bestetik, ezin dugu zientzien historikotasuna ahaztu: zientziak ere, hein handi batean, sinesmen-sistemak dira eta paradigma-aldaketen menpe egon daitezke, eta, beraz, oinarri erabat sendoak izateari utzi diote. Azkenik, eta ZFaren iturburuetan zientziak izan zuen garrantzia ahaztu gabe, generoaren azken berrogeita hamar urtetako emaitzarik aberatsenak edo interesgarrienak zientzia gogorren eremutik kanpoko diziplinetatik garatutako estrapolazio eta analogien fruitu izan direla aldarrikatu nahiko nuke, hots, soziologiatik, antropologiatik, historiatik, ekonomiatik, psikologiatik... *Dune* bezalako nobela batean, ezbairik gabe, zientzia eta teknologiaren zantzuak daude, espaziontzia baitaude (nahiz eta nahikoa era misteriotsuan mugitzen diren espazio-denboran zehar, droga bat kontsumitzen duten gidari batzuen lanari esker, eta, edonola ere, horrek ez digu

argiaren abiaduraren mugaren kontua saihesten laguntzen...), arma bitxiak, energia-ezkutuak, etab. (ondo pentsatuta, pseudoteknologia da hori, ezta?); zientziarekin harremanik handiena duen kontua ekologiaren erabilera zabaletik dator, Arrakis planeta deskribatzeko orduan alegia. Hala eta guztiz ere, ez da hori Frank Herbert-en jopuntu nagusia, baizik eta gizarte oso baten egituraketaren eta erlijioaren/mitoaren indarraren inguruan plazaratzen dituen gogoetak... ZFaren beste gai kutun bat hartzearen, Lurraren superpopulazioarena (cfr. H. Harrison-en *Egin leku! Egin leku!* edo J. Brunner-en *Zanzibar gainean denok*): arazoak giza-iturburu bat du, ez zientifikoa, eta egileek proposatzen dituzten "konponbideek" ez dute ia inoiz izaera zientifikorik. Gauza bera esan dezakegu ZF politiko ia guztiari buruz.

Hau da, ZFa, nire ustez, gure gizarte-errealitatea islatzen saiatzen den produktu literario berezi gisa ulertu behar dugu, batik bat; zientzia eta teknologia errealitate horren parte diren heinean, garrantzia izango dute, baina ez rol nagusia; horizonte gisa funtzionatzen dute, *leit motiv* nagusi bezala baino gehiago. Azken batean, Darko Suvin-ek dioen bezala, inportantea dena, ZFan, ez da zientzia gogorra oinarria den ala ez, baizik eta proposatzen den *novum*-aren (berrikuntza, ezezaguna baina plausiblea iruditzen zaigun baliabide narratibo *berri* horren) sinesgarritasuna. Eta horretarako, jakina, gure ezagutza zientifikoekin bat etor daiteke, baina badaude beste bide ba-tzuk: ohikoena, denbora-aldagaia manipulatzeko (ekintza, adibidez, etorkizunean kokatuz, besterik gabe). Horregatik zientzia *bigunak* (metodo zientifikoaren bertsioak erabiltzen dituztenak, bestalde), oinarri hobeak suerta daitezke ZFrako, azken batean. Eta horrek guztiak beste ondorio batera eramaten du Suvin:

"ZF garrantzitsua egilearen testuinguru kolektiboa iruzkintzeko era bereziki ez-zuzena da (...), baita ZFak testuinguru horretatik ihesa iradokitzen duenean ere".

Hori da funtsezkoena, beraz, ez zientziaren erabilera.

Hari honetatik, R. Scholes-ek eta E. S. Rabkin-ek hauxe diote:

"Kritikari askorentzat zientzia-fikzioaren ezaugarri ezberdintzailea erabateko estrapolazio teknikoak bada ere, [ZFan gauzatzeko den] mitoen erabilera eta sorkuntza nonahikoak gogorarazien digu, ororen gainetik, zientzia-fikzioa giza-fikzioa dela".

Eta, azkenik, honekin lotuta, Borges maisuaren esaldi bat:

"Literatura guztia (...) sinbolikoa da; oinarrizko esperientzia gutxi batzuk daude, eta berdin dio idazle batek, horiek transmititzeko, fantastikoa ala errealak erabiltzen dituen, Macbeth ala Raskolnikov, Belgikaren 1914ko abuztuko inbasioa ala Marteren inbasio bat".

Zein da, beraz, zientzia-fikzioaren lekua, egun? Laburtze aldera, nolabaiteko *integrazioaren eta fandom-aren* artean mugitzen den genero bat dela esan dezakegu. ZFaren historia laburra egitean, azken bi edo hiru hamarkadetako aniztasuna eta joera nagusi baten falta aipatu ditut (egia da azpigenero baten sorrera gertatu dela, ziberpunkarena, baina ez da korrante nagusia bihurtu, eta beraren etorkizunari buruzko zalantza handiak dituzte kritikari gehienek); horrek, batzuentzat, ZFa noraezean dagoela adieraziko luke, edo *krisian*, hitz nahikoa higatua erabiltzearen (nobela "orokorrari" bezala gertatuko litzaioke ZFari, beraz... beti baitago krisian). Batzuentzat, gure denboraren abiada gero eta handiagoan dago gakoa: ZFari hasiera eman ziotenek etorkizuna halabeharrez ezberdina izango zela sumatzen zuten, baina gu etorkizunean biziko ginatete jadanik, gure ZFko nobela propioaren protagonistak bilakatu bagina bezala; ZFa prospektiba soila bihurtzen da, eta ZF klasikoaren topikoek balio eskasa izango lukete, horren ondorioz.

Literaturari helduta, bestalde, gorago aipatu dugun paradoxa dugu: telebistari, zinemari, komikiari eta bideojokoei esker, ZFa gero eta ezagunagoa da kontsumitzaileen artean (eguneroko bizitzan suma dezakegun bezala: publizitatea ikustea besterik ez dago), baina ez dirudi literaturak nabarmen aurrera egin duenik⁴. Ez irakurle-goari dagokionean, behintzat: aipatu bezala, jauzi handiena 1960-

70eko hamarkadetan gertatu zen, AEBetan batik bat (zeinetan, adibidez, emakume egileen kopuruak handitzen baitarrai, egun, eta, antza denez, baita irakurleenak ere: AEBetan bederen ia erabat maskulinoa zen irakurlerian -1930etik 1970era behintzat-, nagusi lirateke, egun, emakumeak -literaturaren beste adar gehienetan bezala, azken batean-; dena dela, azterketa zehatzik ez badago ere, ez dirudi gauza bera gertatzen denik gure inguruan). Eta, bestalde, Espainiako egungo egoerari buruz ari delarik, atzerakada azpimarratzen du Miquel Barceló kritikari eta idazle ezagunak. Bitxia da: generoaren azken joerei buruz *El País*-ek argitaratutako *Babelia* gehigarrian Philip K. Dick da egilerik aipatuena (ez bereziki azken ordukoa, beraz: 1983an hil zen, ordea, eta bere onenak 1960ko hamarkadan eman zituen), eta elkarrizketa nagusia ZFtik *Ezpata eta Aztikeriaren* generora argi eta garbi "salto" egin duen egile bati eskaintzen zaio...

Ez: ZFak ez du aurrera egin irakurleria-mailan, baina ezta genero bezala ere, bere onespenera dagokionean alegia. Prestigiorik gabeko literatura bat izaten jarraitzen du, oro har (genero beltzari gertatu zaionaren kontra). Garai batean posible zirudien, ordea, "homologazioa" edo "integrazioa" gertatzea literaturaren korrante nagusian; hori adierazten zuten, behintzat, 1960 eta 70eko ahaleginek, *New Wave* ingurukoek behintzat. Egia da bazegoela gurari horiekiko mesfidati agertzen zenik (K. Amis-ek gogor kritikatu ditu *New Wave*-aren ahaleginak literatura garaiarekin nahasteko, esanez, adibidez, «Zientzia-fikzioak ezingo du inoiz fikzio ortodoxoa aberastu harekin bat eginez, ez behintzat bereizita egonda literatura osoa aberastu duen bezainbat»); alde horretatik argi geratzen da Amis ZF *klasikoaren* nostalgiko bat dela). Baina, nire uste apalean, ezin da ukatu bi hamarkada horietan gertatutakoa aberasgarria izan zela ZFarentzat, "iraultza" aldarrikatu zutenek beren helburu guztiak kausitu ez zituzten arren. Amis jauna lasai egon daiteke: irakurleria 1930 edo 40ko hamarkadan baino ugariagoa eta helduagoa (hots, zaharra) bada ere, *fandom* kontu bat izaten jarraitzen du ZFak, si-

nestunen sekta bat (batzuetan ez oso ongi ikusia). Egileen artean, gutxik egin dute salto ZFaren apal kasik ezkutuetaetik literatura orokorraren erakus-mahai zabaletara (Ray Bradbury adibide klasikoa litzateke, eta Kurt Vonnegut jr. eta J. G. Ballard hori bera 1960-70eko hamarkadan zehar lortu zuten batzuk; Iain M. Banks britainiarra azken orduko kasu bitxia litzateke, apal berezian zein erakus-mahaiari ager baitaiteke inolako arazorik gabe). Aipatu dugun azken urteotako forma eta gai zahar batzuen berreskurapena testuinguru honetan kokatu beharko genuke, nahiz eta, esan bezala, panorama aberatsagoa eta aniztunagoa den orain (ziberpunka bezalako azpigenero bat pentsaezina litzateke P. K. Dick-en eta *New Wave*-aren lana gauzatu ez balitz).

Integrazioaren eta *fandom*-aren arteko dilema horretaz gain, ZFak beste erronka batzuei erantzun beharko die. Alde batetik, gure artea heldu omen den *etorkizunaren shock* horri aurre egin beharko dio (hots, aurea hartu beharko dio), hausnarketarako (eta gozamenetarako) literatura izaera hori gal ez dezan. Horretarako gaurko gizartearen kezka hartu beharko ditu kontuan, eta, alde horretatik, ez dut uste horren gaizki egiten ari denik: iraultza informatikoak oihartzun nahikoa bizkorra izan du generoan, eta erroboten eta adimen artifizialaren inguruko antzinako eztabaida zaharkituak eraberritu ditu, arrakasta dezentez gainera (ziberpunkaren gorakada horrekin erlazionatuta dago, zalantzarik gabe, eta gauza bera esan dezakegu Jeff Noon-enak bezalako eleberriez, edo are kosmogonia teknologiko berriak sortzeko gaitasuna erakutsi duen *Cryptonomicon* sailak); progresuaren ideien eta ekologiaren inguruko kezka nabarmenak dira Michael Crichton-en *Parke Jurasikoa* sailean, Kim Stanley Fowley-ren *Marte* trilogian, edo Sheri S. Tepper-en *Belarra* nobelan (1989); kapitalismoak areagotutako gizarte-ezberdintasunen inguruko eztabaida zaharra, neoliberalismoak eta globalizazio-prozesuak berrindartua, argi azaltzen zaigu George Turner-en *Ahantzura*-ren *dorreak* bezalakoetan (1987); Hiesaren eta izurri berrien beldurra

Connie Willis-en *Azken Judizioaren Eguneko liburua*-n (1992); geneen eta gorputzen manipulazioaren arazoak, Greg Bear-en *Musika odolean* (1985) edo John Varley-ren *Altzairuzko hondartzak*-en (1992).

Eta, ezbairik gabe, ZFaren historiak berak oso tresna eraginkorra bihurtzen du literatura mota hau, mendebaldeko gizarteak une honetan planteatuak dituen beste erronka orokorrako batzuei aurre egiteko: generoen arteko harremanen aldaketarena, eta alteritatearena (imigrazio hazkorrak eragiten ari dena, hain zuzen ere). Egia da zientzia-fikzio zaharreko lan asko eta asko ez direla bereziki egokiak ahalegin horiei eusteko: aipatu den bezala, ZF horren irakurlea gaztea, zuria eta gizonezkoa zen, hein handi batean, eta emakumearen rola ikusezina edo izugarri gutxietsia da harentzat idatziriko ipuin eta nobeletan (Ray Bradburyren *Kronika martetarrak* klasikoan deigarria gertatzen dena, egun, ez da planeta gorriaren kolonizazio eta baldintzei buruzko ikuspegi zaharkitua -argitaratu zenean hala zen, jadanik- baizik eta emakumearen tratamenduaren tradizionalkeria izugarria). Gauza bera esan dezakegu "bestearen" irudikatzeari buruz: etsaiaren aurreko lurtar guztien batasuna aurrerapauso bat izaten bazen ere (normalean anglosaxoniaren baten gidaritzapean, hori bai), bestea, alienigena, ez zen antzinako nobela inperialistetako indigenak baino kolore politagoez margotzen. Urrezko Aroan ildo honetatik aurrerapenak egin baziren ere, berriro ere 1960 eta 70eko hamarkadetako ZFari zor dizkiogu gai hauetarako hurbilketa erabilgarrienak (eta iradokitzaileenak). Generoaren ikuspegiari dagokionean, erabakigarria izan da emakume idazleen eta irakurleen gero eta partehartze handiagoa, eta, alde horretatik, Ursula K. LeGuin-en *Iluntasunaren ezkerreko eskua* bezalako lanak (1969) oso garrantzitsuak izan dira (bertan gizonezko enbaxadore baten misioa kontatzen zaigu; Gethen planetan, ordea, ez dago ez gizonik ez emakumerik, denak dira anbisexualak -ernalketa garai batzuetan gizonezko, bestetan emakumezko-; abentura, azkenean, gizakien arteko harremanen eta sexualitatearen arazoen inguruko hausnarketa bihur-

tzen da, besteak beste). Aipa daitezke, ildo honetan, Joanna Russ-en *Gizon emea* (1975, soilik emakumez populaturiko planeta baten inguruan), eta James Tiptree jr.-en lan gehienak (polemika polit baten iturburu suertatu zirenak 1970eko hamarkadan: gizonezko pseudonimo bat erabiltzen zuenez, inor gutxik nabaritu zuen atzean emakume bat ezkututzen zenik, eta bere prosaren «femeninotasuna» nabarmendu zuten batzuen kontrako iritzi gogorak plazaratu zituzten arloko zenbait idazle/kritikariek... ahoa itxi behar izan zutenak egia jakin zenean). Bestalde, eta literaturatik pixka bat aldenduz, posible da *Alien* filme-sailaren interpretazio feminista egitea, Adam Roberts-ek egiten duen bezala.

Alteritateari dagokionean, gauza bera esan daiteke: urrun geratu da (oro har) estralurtarra izaki nazkagarri eta arriskutsu gisa aurkezten zuten ikuspegi nagusigoa (horren adibiderik argiena eta famatuena, ezbairik gabe, R. A. Heinlein-en *Espazioko gudarosteak* nobela da). Alteritatea irudikatze oinarriak eskaini dituzten liburuen zerrenda luzea da; erabat *progresista* ez bada ere, batek baino gehiagok gogoratuko du Philip J. Farmer-en *Amoranteak* eleberri “eskandalagarria” (bere garaian: 1952), lurtar baten eta alienigena baten arteko maitasun eta sexu-harremanez. Bestalde, ZFko egile beltz eza-gun bakanetakoa den Samuel R. Delany-ren lanak estralurtarrekiko edota giza-espezie berrien arteko harremanen garapena dute hizpide, eta alteritatearen arazoak eztabaidatzeko abiapuntu ezin hobeak eskaintzen dituzte (adibidez, *Einstein ebakidura* nobela, 1970, zeinetan Lurra gizakien ondorengo mutazio exotiko eta anitzek betetzen baitute; nobela, azken batean, “bestea” ulertzeko zailtasunez ari da, berdinen arteko hizkuntza batek desberdintasuna irudikatze duen ezintasunaz); gauza bera esan dezakegu Octavia Butler-en zenbait lan buruz, adibidez *Xenogenesis* sailari buruz (1980ko hamarkadan zehar argitaratua; estralurtarrak, abdukzioaren bitartez, hiltzen ari den Lurraren gizakien ondare genetikoa salbatu nahi dute, baina emaitza ez da lehengoa bezalako gizarte bat, gizakiengandik ezber-

dina den zer edo zer baizik... Delany-ren lanean bezala, hibridazioa eta aldaketa dira, azkenean, emaitza, sintesi moduko bat alegia, era berean gauzatzen ez badira ere, noski). Laburbilduz: ZFak “bestea” irudikatzen (eta onartzen) lagundu digu, eta hala egiten jarraituko du, (mendebaldeko) gizartea horren premia larrian dagoenez gero.

Jon Kortazarrek ohartarazi gaitu, duela gutxi, ZFaren indar horretaz, Dick-en narrazioei buruzko iruzkin batean:

“Ipuinok ipuin dira, baina ez dira soilik ongi oloztaturiko makinaria bat, irakurlearen harridura eta kezka sortzeko. Ipuinak ezin dira ulertu bere irakurketa politiko eta kritika soziala ahaztu gabe. Ziurrenik etortzekoa zen gizarte deshumanizatu bat zuen gogoan idazleak. Baina metafora indartsuak sortu dituelakoan nago, memoria eta izaera hain hurbil bilduz, historiak identitatea nola sortzen den azalduz”.

Dena dela, eta generoaren fan bezala bota ditzakedan argudio eta izenburu guztiak botata ere, generoaren krisiari buruzko zalantza hor dago, oraindik: Kortazarrek ere 1960ko hamarkadan idatzitako ipuin batzuetara jo du, zinemak behin eta berriro jotzen du garai hartako (edo lehenagoko) literatur lanetara inspirazio bila, eta, gorago proposatutako izenburu eta gaien dantza gora-behera, ez dirudi egungo ZFak ordukoen mailako lanak gauzatzera heldu denik... hori konfirmatzeko perspektiba historiko handiagoa izan beharko dugun arren.

3. Ba al da euskal zientzia-fikziorik? (lehenengo hurbilketa baterako saioa)

1990eko hamarkadaren hasierara arte topiko bat izan da, euskal prentsaren aldetik, euskarazko zientzia-fikziozko liburu aletuen argitarapen guzti-guztiei harrera egitea genero horretako lehenengo lana izango balira bezala: kazetaritzaren ohiko oroimen laburraren seinale, noski, baina baita generoaren euskarazko produkzio urriaren erakusle. Euskal ZFaren historia ez da oso luzea, beraz, baina us-

te baino luzeagoa da; gure xedea, hala eta guztiz ere, bilakabide guadianesko horretarako hurbilketa xume bat izango da, ez besterik egin daitezkeen azterketa sakonagoen abiapuntu soila, beraz.

Dena dela, euskarazko ZFarekin hasi aurretik, komenigarria izan daiteke munduko ZFan euskarak eta euskaldunek egindako agerpenekin hastea; izan al dute kontuan beren obretan ZFko idazleek gure herria eta gure hizkuntza? Erantzuna baiezkoa da, jakina: topiko zabalduesia ez den arren, atzerriko ZFa arduratu da gutaz. Hala, oso idazle famatua aipatzearren, Isaac Asimov-en *Jainkoak eurak* (1972) nobelako protagonistaren curriculumaren zedarrri nagusia etrurieraren deszifratzea izango da, eta horretarako, nola ez, euskara erabili zuen; hizkuntzetarako abilezia hori garrantzitsua izango da eleberriren garapenerako. Samuel Delany-k ere euskara aipatzen du *Babel-17* bere nobela famatuan (1966), eta hor rol garrantzitsua goa jokatzeko du Asimov-en lanean baino: Rydra Wong protagonista euskaraz pentsatzera beharturik izango da eleberraren zenbait pasartetan, ematen dituen aginduak eta egiten dituen planak Inbaditzaileek uler ez ditzaten; *Jainkoak eurak*-en baino gehiago, *Babel-17*-ren muina hizkuntzaren auziak osatzen du (ez euskararenak, baizik Inbaditzaileenarenak; izan ere, Wong-ek euskaraz pentsatzen duela esaten zaigu, baina nobelan zehar ez da euskarazko esaldi edo hitz bat bera ere azaltzen). «Euskal gaiak» garrantzi zentralagoa du, alabaina, hiru egile nahikoa ezberdinen lanetan: Luc Albernay, Magdalena Moujan Otaño eta Clifford D. Simak-ek ari naiz. Lehenengoa, frantsesa, antzinako ZFaren eta fantasiaren artean koka daitekeen eleberri bat idatzi zuen, *Mamut urdina dugu* (1935). Conan Doyle-ren *Mundu galdua* lanaren ildoan, “Grande Euskarie” delako lurrazpiko erresuma gorde baten aurkikuntza espeleologikoak bi misterio argitzeko gakoa eskainiko du: mamuten desagerpena eta euskararen jatorria. Mamutak animalia adimentsuak ziren, eta euskara (nola ez) haien hizkuntza; historiaurre garaian mamutek hezitako gizakien ondorengoak lirarteke egungo euskaldunak.

Bestalde, ia atzerritartzat jotzera ausartzen ez naizen Magdalena Moujan Otaño eusko-argentinarraren *Gu ta gutarrak* ipuinean (B. Goorden eta A. E. Van Vogt-en *Lo mejor de la ciencia ficción latinoamericana* izeneko 1982ko bilduman aurki daiteke, ipuina, berez, 1968koa izan arren; bide batez, gauza asko esan daitezke gutxitan aipatzen den ZF latinamerikarraren aberastasunaz, Borges edo Cortázar bezalako idazle “serioen” lanarekin dituen loturez, etab., baina ez da hau lekua). Euskaldunon eta euskararen jatorriaren bertsio ezin dibertigarriagoa eskaintzen digute ipuintxo horren orrialdeek, 1960ko hamarkadako parodiarako joerekin bat egiten dutenek (eta, Simak-enarekin egingo dudan bezala, efektua guztiz ez hondatzeko helburuarekin, ez dut ipuinaz ezer gehiago esango; bakarrik euskal ZFaren gailurretako bat izango litzatekeela... baldin eta gaztelaniaz idatzita egongo ez balitz⁵). Aipatu bi ipuin hauek, edonola ere, topiko berbera dute oinarritzat, berriro ere: euskaldunen eta gure hizkuntzaren jatorri urrun eta misteriotsua; horregatik gara euskaldunok ezagun batez ere ZFaren munduan.

Simak, ordea, ZF estatubatuarreko idazle klasikoenetako bat dugu, eta 1980ko urtean ipuinentzako Hugo saria irabazi zuen *Orein dantzarien kobazuloa* lanarekin, zeina, noski, euskal mendietan egiten ari den indusketa arkeologiko batetan girotuta baitago; ZFkotzat baino fantastikotzat jo badaiteke ere, ipuin honek lortutako saria (eta Asimov-ek berak egiten dion sarrera) talde honetan sartzea ahalbidetzen du (edonola ere, aipatu beharra dago euskaldunoi buruzko ikuspegi interesgarri samarra eskaintzen duela; I. Asimov-ek argitaratutako *Los Premios Hugo 1980-1982* bilduman aurki daiteke, Barzelona 1986).

Euskaldunak edo euskara agertzen diren beste hainbat nobela dago, zeinetan gehienetan aipamen hutsak egiten baitira, pasadakoak: Philip K. Dick-ek, adibidez, *Isur zaitezte ene malkoak, esan zuen polizia* nobela aluzinogenoan (1974), aipatzen du pertsonaia batek euskal sukaldaritza atsegin duela, baina “gurin gehiegirekin kozinatzen dutela”

eta, ondorioz, “espasmo pilorikoak” eragiten diola; Dick-ek berak R. Zelazny-rekin batera idatzitako *Deus irae*-n (1979) 2020 urteko Idaho apokalipsiostekoaz hitz egiten du “euskal herri” bat izango balitz bezala (“*Euria. Mundu gris bat, mundu hotz bat... (...) Ardiak. Jai alai. Diotenez, deabruak berak ulertuko ez lukeen hizkuntza*”); halako adibide gehiago aurki daitezke ZFko http://www-adherents.com/lit/sf_basque.html web orrian. R. A. Lafferty-ren *Munduaren ate-orpo kirrinkariak* ipuinean, bestalde, azalpen bitxi bat ematen zaio euskaldunen eta, oro har, Piri-notako bi muturretan bizi diren herrien izaera bereziari, lanaren gai nagusia hori ez den arren (1971; *Antología no euclidiana 1* bilduman aurki daiteke, Bartzelona 1976).

Gaiak, dena dela, azterketa sakonagoa mereziko luke, eta ziurrenik liburu eta aipamen gehiago (eta mamitsuagoak) topatuko genituzke; lan honen luzerak, ordea, ez du gehiagorako ematen. Dena dela, aurre-hipotesi gisa, eta ikerketa sakonagoen zain, inpresioa daukat aldaketa sotil bat antzematen hasi dena euskaldunek nazio-arteko ZFan betetzen duten roletan: hasiera batean (eta, hein handi batean, oraindik ere) euskararen eta euskaldunon jatorriaren misterioaren inguruko topikoeak (eta euskararen zailtasunari buruzkoek) protagonismo nagusia izan duten arren (seriotan, *Mamut urdina*-tik hasita eta Asimov edo Delany-ren lanetaraino, edo ironikoki, Moujan Otañorenean bezala), azkeneko urteetako lanetan aurreko topikoei irudi ilunago bat gehitzen ari zaiola dirudi, Euskal Herriko bortxakeria eta gatazka politikoaren giroarekin lotuta legokeena, ziurrenik (alde horretatik, Simak-en lana trantsizio moduko bat izango litzateke): hala, Alexander Glass britainiarraren “Hildakoen hizkuntza” ipuinean, egungo “separatista” batek segada batetik ihes egitea lortzen du iraganera “jauzi” eginez, zeinetan, paralelismo harrigarriaz, erromatar inbaditzaileek euskaldunak mehatxatzen ari baitira, (*Interzone* aldizkaria, 161, 2000); dena dela, Glass-en beraren “Hizkuntza ahantziak” narrazioan (“Hildakoen hizkuntza”-ren aurrekaria edo lehenengo atala dena), euskararen inguruko misterio “klasi-

koak” zer ikusi handia du protagonista bikien arteko “hizkuntza sekretua” ardatz duen istorioarekin (*Interzone*, 141, 1999). Beraz, joera hipotetiko horren inguruko froga gehiago jaso beharko dira zerbait ziurra esan ahal izateko.

Bidezidor honetatik, azkenik, hurbildu gara euskal ZFaren ontologiaren auzira. Baina gaiari zuzenean heldu aurretik geldiuene saihes- tezin bat egin beharko dugu: itzulpenen urritasunari dagokiona, hain zuzen ere. Gaitz hau, ezbairik gabe, euskal literatura osoarena da, bai- na areagotu egiten da ZFari dagokionean, generoko literatura gehie- nei gertatzen zaien bezala (salbuespen erlatibo bakarra nobela beltza- rena da, Igela argitaletxearen tantakako ahaleginari esker; dena den, literatura-mota biek duten kontsiderazio-maila desberdinarekin topo egiten dugu berriro...). Harrigarria bada ere, eta Kepa Altonagak inoiz aipatu duen bezala, oraindik ez da euskaratu Jules Verne-ren eleberri bat osorik (egin dira, bai, haur eta gazte kontsumorako bertsio labur- tuak edo egokituak, baina ez itzulpen osoak). Bestalde, 1990eko ha- markadaren hasieran Elkar argitaletxeak bultzatu zuen bildumaren arrastorik ez da geratzen egun; hala ere, oso liburu interesgarriak itzu- li zituzten: Fredric Brown-en *Martzianoak kanpora!*, Manuel de Pedro- lo-ren *Bigarren jatorriko eskuizkribua*, Aldous Huxley-ren *Bai mundu berria*⁷. Arazoa betikoa da: 100.000 irakurle(gai) eskas dituen merkatu batean (eta horietatik zenbatek erosi eta irakurtzen dituzte liburuak?), zaila da generoko literatura-kontsumitzaile multzo finko eta fidela aurkitzea; azken batean, esan dugun bezala, ZFko literatura ez da ma- sa-kontsumoko produktua bilakatu, leku gehienetan behintzat (eta are gutxiago gure artean). Fanatikoek arteko zaletasun kasik sekretua izaten jarraitzen du, eta horrek, euskararena bezalako eremu batean, zaildu egiten ditu gauzak⁸. Edozelan ere, ez dut uste zaletasuna asko zabalduko balitz ere gauzak gehiegi aldatuko lirakekeenik: zenbat *best-seller* euskaratzen dira urtean zehar? Kontsumoko literaturak ezaugarri hori du, kontsumo-nahia bizkor asetu behar dela, eta ho-

rretarako daude gaztelaniazko eta frantsesezko edizioak, zer demonstre (Harry Potter-en kasua salbuespen bat da, hein batean behintzat... baina haur eta gazte literaturarena -HGL- beste mundu bat da, ikusiko dugun bezala). Irakurleria urria eta generoaren klasikoak (eta are gutxiago egungo egileak) euskaraz irakurtzeko aukera gutxi: hona hemen euskal ZFaren arazo larrienetako bi.

Baina, hala eta guztiz ere, badago euskarazko ZFrik: liburu gutxi dira, ez dugu berri zehatzik generoaren osasunari buruz, baina egon, badago. Hemen ez da planteatuko euskal ZFaren historia bat, ezta beronen hastapenak ere (hori aurrerago egiteko lana izango da); gainbegirada xumea emango diet egile eta obra nagusiei (berriro ere: ez guztiei, eta barka nazatela aipatzen ez ditudanek⁹), eta gure artean genero honek dituen ezaugarriei buruzko hipotesi bat planteatuko da.

Hiru hirukoteen bidez azalduko dugu ZFaren bilakaera euskal literaturan: aintzindarien hirukotea izango da lehenengoa, “espezialistena” bigarrena, eta haur eta gazte-literatura arlokoa hirugarrena.

Aintzindariak lehenengo urratsak eman zituzten generoaren barruan, jakina, eta ezin dira ZFko idazletzat hartu, ZFa uneren batean baliabide gisa erabili zituzten euskal literatura “orokorreko” ordezkariak baizik; haien lana, ordea, oso garrantzitsua izan zen bide hori urratu zuten lehenengoak izan zirelako. Xabier Kintana litzateke lehenengoa, eta baita interesgarriena ere, nobela eta ipuin bati esker, batik bat (generoarekin zer ikusirik duten bere lan bakarrak ez badira ere): *Izaki berria* nobela (1969) eta *Ukronia* ipuina (1972); ordu arteko atzerriko ZFaren ezagule ona dela frogatzen du Kintanak. Lehenengoa zientzialari-nobela nahikoa tipiko gisa hasten bada ere (doktore batzuek erletegi adimendun bat garatu nahi dute), laster bihurtzen da guztiz ZFkotzat jo dezakegun istorio arduragarri bat. Gaur egun zaharkituztat (eta pittin bat inozotzat) jo genitzakeen xehetasun batzuk gorabehera, bere indarra, eraginkortasuna eta suspentse puntua gordetzen ditu nobelak. Ipuina, bere izenburuak

adierazten duen bezala, ukronia bat da (Alfontso XIII.a ez da hil, eta EAJak autonomia-estatutu bat eskuratu du Gerra Zibilaren ostean: 1972ko mundu hori nolakoa izango litzateke azaltzen digu Kintanak), baina, gainera, umorezko ZFaren adibide polita dugu, eta ez du freskotasunik galdu, gainera (argitaratu zen garaian polemika handia sortarazi zuen lanaren antijeltzalismo militanteak). Bigarren aintzindaria Txomin Peillen izango litzateke, nahiz eta akaso lehenengoa izan zela esan beharko genuke: bere *Itzal gorria* nobela 1972-an argitaratu zen, baina *Izaki berria* baino lehenago idatzia da, ziu-rrerik, 1966an Txomin Agirre saria irabazi zuenez gero. Nobela politiko-soziala da, alegiazko herrialde batzuetan kokatua, eta iraultza proletarioaren gaia garatzen du; izan ere, zaila da esatea ZFko nobela den ala ez, baina eszenatokiak eta xehetasun batzuek azpigenero distopikoarekin lotzen dutela uste dut (nabariak dira, bestalde, Jack London-en *Burdinezko orpoa* nobelaren tradizioaren oihartzunak). Edonola ere, bere literatura-bidean zehar fantasia eta ZFa tarteka lantzen jarraitu du Peillenek (ipuingintzan batez ere, cfr. *Ale gorriak* liburua), ez oso zori onarekin. Azkenik, eta aintzindarietz ari garela, Txillardegi aipatu beharra dago, bere 1969ko “Kosmodromo” ipuinarekin (1984 arte argitaratu ez bazen ere, izenburu bereko bilduman); narrazio biluzi honetan etorkizuneko distopia bat deskribatzen digu, nahikoa fabulazio gutxi erabiliz.

Badago beste liburu bat, hala eta guztiz ere, benetako aintzindarien artean kokatu beharko genukeena, arazotxo bat ez balu: jatorriz gaztelaniaz idatzi zela. Jose Luis Muñozerroren *Ilargian ere euskeraz* - *En la luna también se habla vascuence* 1967an eman zen argitara, edizio elebidun batean (itzulpenaz Maria Dolores Agirre eta Maritxu Urreta arduratu ziren); dena dela, uste dut gutxienez aipatu beharra dagoela, argitarapenaren helburua euskarazko bertsio bat kalera-tzea zen heinean. Genero mitologiko eta historikoko literatur lanak landu zituen Muñozerrok, batez ere, baina *Ilargian ere euskeraz* eleberri laburrean esparruz aldatzen da, eta ilargirako lehenengo bi-

daiaren inguruko fantasia naif samarra eskaintzen digu, James Bond motako abenturen estilokoa, eta zeinetan ez baita falta euskaldunen izaerari buruzko garaiko topikoetako bat bera ere (estatubatuar multimilionario batek bidaiaren ardura ematen dio morroskoz osatutako dantza-talde bati!). Bitxia.

Euskal ZFaren gainbegirada honen bigarren hirukotea “*espezialistena*” izango litzateke, hots, batik bat ZFko idazletzat har daitezkeenena (hau esatea agian gehiegikeria izan daiteke, noski: AEB-etako idazle profesionalaren eredutik argi-urteetara gaude): Mayi Pelot, Joanes Urkixo eta Iñaki Irazabalbeitia, 1980 eta 90eko hamarkadetan argitaratzen dutenak hain zuzen ere. Generoaren historia osatzeko 1970 eta 80an zeharreko aldizkari, bilduma eta ipuin-lehiaketetara jo beharko genuke aitzindari horien bidetik emandako urratsekin topo egiteko, baina gehiegi luzatuko nintzateke (testuinguru honetan ezin da ahaztu euskarazko komikiak jokatu zuen rola, batzuetan literatura “konbentzionalarena” baino ausartagoa ZFari dagokionean: *gomikia-2* bezalako bildumetako lan batzuez ari naiz, noski, Re-dondo/Harriet-en Espedizio galdua bezalako lanez -1983-, Olariaga bezalako marrazkilariez... baina hori, berriro ere, beste istorio -paralelo- bat da). Edonola ere, “espezialista” hauek beste aro batekoak dira, eta ZFko literaturari buruz dituzten erreferentziak ez dira “ain-tzindarien” berberak.

Mayi Pelotenak liburu bitxiak dira, baina horregatik hain zuzen ere esanguratsuak: “talde” honetako emakume bakarra, Ipar Euskal Herrikoa gainera, ipuin liburu bat (*Biharko oroitzapenak*, 1985) eta nobela bat (*Teleamarauna*, 1987) argitaratu zituen. Istorio batzuk etorkizun hurbileko Euskal Herrian kokatzen ditu, III. Mundu Gerraren ondoren, eta, beraz, badago nolabaiteko giro bateratu bat beraren lehenengo liburuko ipuin batzuen artean, bestelako gai batzuk ukitzen dituen arren (bidaia edo abentura espaziala, izaki estrainioen arteko harremanak); nobelan, ordea, telepatiaren topikoaren inguruko ZFaren eraginak nabarmenak dira, eszenatoki orokorra I. Asi-

mov-en Fundaziokoa izanik (Trantor etab. agertzen dira). Pelotek oso mundu pertsonala eraikitzen du, eta lirikotasunera hurbiltzeko ahalegin handiak egiten ditu; alde horretatik ukaezina ZF aurrera-koiorenarekin eta "literarioenarekin" duen zorra (1950eko eta 60ko hamarkadakoarekin, batik bat; izan ere, bere egile kutunen artean R. Bradbury eta P. K. Dick aipatzen zituen). Ez da harritzekoa "fenomeno" hau Iparraldean gertatzea, bestalde: azken batean, Frantzian ZF tradizio handiagoa zegoen Espainian baino (eta hala da, oraindik ere; bestalde, hortxe dago lehen aipatutako Peillenen kasua ere). Emakume izateak balio erantsia ematen dio, beraren lanak generoaren ikuspuntu espezifikoak eskaintzeko gai diren heinean. Euskal Herria eta euskaldunak maiz agertzen dira haren etorkizunetan, ondoren ikusiko ditugun egileen lanetan baino gehiago. Peloten obrak oztopo edo muga batzuk izan ditu, ordea, ezagunago bihurtzeko orduan: alde batetik, etorkizun hurbilari buruzko istorioak lotuegi daude idatzi ziren garaiko gertakari eta ardurekin, eta, ondorioz, zaharkitu samarrak geratu dira; bestetik, eta inportanteagoa, Hegoaldera begira nekez homologa daitekeen hizkuntza-eredua erabiltzen du (eta nahikari poetikoak ez dio horretan gehiegi laguntzen); azkenik, ZFa argitaratzeari utzi zion bigarren liburua idatzi ondoren.

Joanes Urkixoren kasua ezberdina da. Lehenengo urratsak euskal literaturan modernitatearen ikur bihurtu den testuinguru batean eman ondoren (Pott bandan, alegia), 1980ko hamarkadan liburuak argitaratzen hasten da, ikusentzuteko hedabieetarako egiten dituen lanek uzten diotenean alegia. Lan horietako batzuk, ezbairik gabe, ZFarekin lotuta daude, batez ere Lurra deika ipuin bilduma (1991), *Shangai Tom, espazioko zaindaria* gazte literaturako eleberria (1992; *space opera* tankerakoa da), eta *Lur izeneko oihana* (2000), txikienez ere. Bestalde, ZFari buruz euskaraz burutu den lan kritiko handiena egin du Urkixok. Helduentzako bilduma den lehenengo liburu-ruko narrazio guztiak ez dira ZFkoak, baina bai gehienak, eta horietan generoaren ezagule ona dela frogatzen du Urkixok, batik bat

klasikoena, baina ez soilik (batek behintzat asko zor dio Stanislav Lem-en narrazio bati). Ipuinak, gorabeherak dituzten arren, indartsuak dira, oro har, eraginkorrak hizkuntzaren erabileraren ikuspuntutik, eta askotarikoak gaiei eta topikoei dagokionean. Baina beraren ibilbideak euskal ZFaren patua irudikatzen duela esango nuke: *Lurra deika*-ren ondoren ZFa idazten jarraitu du Urkixok, bai, baina HGLaren esparruan; izan ere, Shangai Tom, bere haurrentzako ZFko lan baten protagonista, *Lurra deika*-ko ipuinetako batean azaltzen zitzaigun. Honekin lotuta, azpimarratu behar da bere azken lanean, 2003ko Apirila gazte-literaturako saria jaso berri duen *Gerlari zuria* nobelan, *Ezpata eta Aztikeria* generora jo bide duela Urkixok, nazioarteko ZFko en joerei jarraituz, nolabait, gorago aipatu den bezala¹⁰.

Antzeko zerbait esan daiteke gure (nolabaiteko) Isaac Asimov-i buruz¹¹, Inaki Irazabalbeitiari buruz alegia. Kasik ZFko idazlearen arketipo klasikoa dela esan genezake, aldi berean zientzialaria delako (dibulgazioan aritutakoa, gainera; bide batez, gorago aipatutako Moujan anderea matematikaria da, baita ere). Izan ere, Irazabalbeitiaren eredu literarioak hortxe daude, hain zuzen, Urrezko Aroko ZF estatubatuarrean, eta forma klasiko horiei jarraituz hiru lan eman ditu argitara: *Arrotza paradisuan* (1991) eta *Uda guztiak eztituk berdinak, Isi*, (1995) eleberriak, eta *Ipuin deslailak* (1999), zeinetan *Susa* eta *Hegats* bezalako aldizkarietan argitaratutako narrazioak biltzen baititu, gehienak ZFkoak (besteak genero historikoarekin erlazionatuta egongo lirarteke). Bere lanek gaiak eta tratamendua konpartitzen dituzte 1940 eta 50eko aipatu egile amerikarrenekin: abentura zientifikoa; mundu eta gizarte berriak; arazo eta planteamendu sinple eta zuzenak; sakontasun handirik gabeko pertsonaiak; ukitu *naïf* samarra, zenbaitetan. Urkixorekiko antzekotasuna honakoan datza: haren azkeneko ipuinak gazteentzako sail batean argitaratu dira, jatorriz helduentzako literatura gisa plazaratu ziren arren. Argi dago editoreek ZFa gazteen kontu bat dela pentsatzen dutela, eta agian baita egileek ere. Nolabaiteko *infantilismoak* jota al dago euskal ZFa?

Panorama osatzeko oraingoz generoaren inguruko lan bakarra ar- gitara eman dutenen aipua egitea falta da. Edorta Gonzalez (zient- zialaria, Irazabalbeitia bezala) da lehenengoa, *Azken belaunaldia* ele- berriarekin (1988), eboluzio bioteknologikoaren gaineko hausnarke- ta nobelatu duina eta ez oso konplexua; homo sapiens-a atzera utzi- ko duen ondorengoaren garapenari buruzko fabula bat da, funtsean (ZF modernoaren topikoetako bat). Bestea Julen Garikanopeña du- gu, *Zura eta harrak* liburuaren egilea (2001), antizipazioko bi ipuin luze eta ilunez osatutakoa. Etorkizuneko bortizkeriaren eta mundu elektronikoaren gaien inguruan idatzi du Garikanopeña, absurdu ukituren bat edo beste txertatuz, eta baita Philip K. Dick eta antze- koen mundu ikuskeraren oihartzunik ere; narrazioaren ikuspuntu- tik, dena dela, nahikoa traketsak dira, nire ustez.

Hirugarren hirukotea **HGLren arlorako** ZFa idatzi duten hiru idazleena litzateke Iñaki Zubeldia, Txiliku eta Manu Lopez gehitu- ko genieke (ez dira, noski, bakarrak, baina bai, nire ustez, esangura- tsuenak, arrazoi desberdinengatik gainera). Alde batetik, *klasikoena* Iñaki Zubeldia izango litzateke, gehien berrargitaratu den euskaraz- ko ZFko obraren egilea, eta ziurrenik arlo honetako lehenengo: *Euskaldun bat Marten* (1982); oso oinarritzkoa, ados, baina eraginko- rra. Ondoren, Txiliku (ingeniaria berau, nahiz eta aspaldidanik dihar- duen argitalpen munduan) eta bere *2061, antzinako kronikak* (1990) azpimarratu beharko litzateke, antizipazioa eta kontakizun historikoa tartekatzen duen gazteentzako eleberri duin bat (Txilikuk, ordea, ez du bide horretatik jarraitu: helduen literaturara pasatu denean, litera- tura «serioa» landu izan du). Azkenik, Manu Lopezen *Olioa urpean* (1998), arrakasta handiagoa merezi zuen narrazio sotila; etorkizun oso hurbil (eta “ezagungarri”) batean kokatua dagoen arren, badaude gi- roan xehetasun benetan arduragarriak, oso lan espeziala bihurtzen dutenak¹².

Hau guztia ikusita, hona hemen nire hipotesia: dela bere inguruan irakurle multzo nahikorik ez duelako bildu, dela argitaletxeek inte-

resik ez dutelako, dela ZFaren molde klasikoenetan (eta, beraz, sinpleenetan) oinarritzen delako (Urrezko Arokoetan, alegia), euskal ZFak ez du kokaleku sendoa topatu helduen literaturaren esparruan, eta babes bila abiatu da HGLren erresumara. ZFa txikientzako kontu bat bezala ikusten da, argi eta garbi (edonola ere, zaila da erabakitzea hori argitaldarien, irakurleriaren ala idazleen inpresioaren ondorio ote den -edo denona). Izan ere, antzinako moldeko ZFak aspaldi aurkitu baitzuen bizirauteko modua HGLn (gogora dezagun R. A. Heinlein eta I. Asimov bezalako egileek ZFko bilduma bereziak idatzi zituztela gazteentzat -Lucky Starr espazioko ranger-aren sail ezaguna, esaterako-), eta, bestalde, ezin ukatu HGLa bereziki hazi dela gure artean azken urte hauetan, eta mundu erakargarria dela idazle askorentzat (eta baita etekin-sortzailea ere, bazuetan). Hau guztia ez da harritzekoa, kontuan hartuta euskal literatura bera bazterrekoa dela nazioarteko letren errepublikan, eta, horretaz gain, ZFari kontsiderazio eskasa zor zaiola, oro har; horrek guztiak, Manu Lopezek bere doktorego tesian aipatzen duen bezala, genero marginala bihurtzen du (besteak beste) ZFa, eta bere emaitzak “bai kantitatez urriak direlako, bai irakurlegoa gehiegi erakartzen ez dutelako, [literatur] polisistemaren periferian kokatuta” leudeke. Euskal ZFaren infantilizazioaren hipotesia, bestalde, hori besterik ez da, abiapuntu-hipotesi xumea, kontrastatutako datu urriek eta ikerketa-eremuaren ñimiñotasunak berak baldintzatua. Etorkizunak esango digu ea inolako baliagarritasunik ote duen, eta, hala balitz, zeintzuk izango lirartekeen beraren oinarri sakonak.

Dena dela, lan handia dago egiteke: literatur aldizkarietan eta bestelako inoizkarietan aurkitzen dira euskaraz idatzitako ZFko lan gehiago, baina ez dugu ez astirik ez lekurik haiei buruz hitz egiteko (hortxe dago, esate baterako, etorkizunari buruzko Susa aldizkariaren 19. ale famatua). Azterketa hori burutu gabe ezinezkoa da euskal zientzia-fikzioaren irudi osatu bat eman.

Amaitzen hasteko, azpimarratu nahiko nuke euskal ZFaren gaineko lan bat erren geratuko litzatekeela beste esparru bat esploratuko ez balu: ZFa tresna gisa erabiltzen duten literatura “garaiko” idazleen lanak alegia. Kingsley Amis horretaz ari zen, besteak beste, ZFak literatura “orokorrean” izan bide dituen ondorio positiboez ari zenean. Denok ezagutzen ditugu ZFaren moldeak noiz edo noiz (eta arrakastaz) erabili dituzten idazleak: Doris Lessing, Günter Grass, Salman Rushdie, Manuel de Pedrolo, Miquel de Palol, Eduardo Mendoza... (Kingsley Amis bera, jakina, ZFko nobela bat idaztera heldu zen, azkenean). Gure literaturan ere antzeko adibideak aurki daitezke: Juan Garzia eta *Fadoa Coimbran* nobelako amaieretako bat; Joxean Sagastizabal eta “Esaidazu zer den” ipuina (*Inguratuta gaxteuden* liburukoa, 1989); Jose Luis Otamendi eta *Euri kontuak* liburuko *Manexak* ipuina; Juan Luis Zabala eta *Agur, Euskadi* (zalantzarriagoa ZF gisa, baina baditu elementu batzuk), edo Jon Alonso eta *Euskal karma* eleberria, besteak beste. Aurrekoen literatur kalitate-mailara heltzen ez bada ere, talde honetan sartu beharko genuke, akaso, Luis Haranburu-Altunak berriki argitara emandako *Kandido edo Euskadi independentearen ukronia* (2002), politika-fikziozko oinarria duen satira moduko bat, bortizki antiabertzalea. Beti bezala, eta lehen J. M. Irigoienek liburuarekin egin dugun bezala, eztabaidatu dezakegu ea ZFa egiteko asmoa benetakoa den, hala tresna soila, baina, edonola ere, nire ustetan, hortxe aurki daitezke (salbuespenak albuespen) ZFko literatura euskaldunaren adibiderik ederrenetariakoak, nahiz eta generoaren outsiderrek idatzitakoak izan (edo agian horrexegatik...?). Baina azterketa horrek urrunegira eramango gintuzke; gaia planteatzearekin nahikoa dela pentsatzen dut, oraingoz. Azkenik, galdera litzateke: zein da gure ZFaren garapen-falta horren zabalaren zergatia? Linda White-k, bere artikuluan, azalpen esoteriko samar bat ematera ausartzen da (euskal emigraziorako joera historikoan, itzultzen direnen kopurua txikia izan da, baina Euskal Herrian geratutakoekin mantendu izan dituztela maila eta

indar ezberdineko harremanak, eta itzultzeko itzaropena; planeten arteko emigrazioak, ordea, oraindik zailagoak bihurtuko lituzke: hori izan daiteke, White-k espekulatzen duenez, espazioko bidaiak gai nagusienetakoa duen generoarekiko gure atxikimendu-faltaren oinarrietako bat...), baina gure literaturaren tradizio laburra eta irakurle-idazle kopuru estua eskaintzen ditu azalpen nagusi bezala, eta nahikoa ados nago horrekin, noski. Baina, gakoa ziurrenik hor egonda ere, ez da asetzen nauen azalpena, ez guztiz behintzat. Nik uste dut, masa kritikoaren arazoez gain, badagoela generoaren prestigioarekin lotutako arrazoirik. Alde batetik, gure artean generoa praktikatzen hasi zenean, 1960ko hamarkadan, aldaketa handiak gertatzen ari ziren ZFaren munduan (heine handi batean, literatur prestigioaren bila abiatu zirelako egile asko, ZF klasikoaren ereduak -eta abenturazkoenak- "zaharkiturik" utzita, nolabait: gure egile gehienek azken hauetara jo dute, ordea). Bestetik, ikusentzunezko munduaren bitartez ZFa ohiko zerbaite bihurtu da gure bizitzetan, baina hain zuzen ere (eta salbuespenak salbuespen) abenturazko ZF arrunta da hori, kontsumozko produktu bat. Berrito ere aipatzen dut, baina kontua da oso esanguratsua iruditzen zaidala: duela berrogei-berrogeita hamar urte nobela beltzaren eta ZFaren statusa oso antzekoak ziren, baina gaur egun inolako arazorik gabe onartzen da literatura "jasoko" lan bat egiteko oinarri sendoa izan daitekeela, ZFkoa ez bezala, nobela beltza (eta euskal literatur produkzioari begiratzea besterik ez dago). Azkenik, generoak mundu-mailan pairatzen bide duen noraeza eta krisia aipatu beharko lirateke, baita ere, euskal ZF baten garapenari laguntzarik eskaintzen ez dion faktore bezala.

Dena dela, ez dut uste erabateko erantzunik eman daitekeenik, ez behintzat gaiari buruzko lan sakonagoak egiten ez diren bitartean.

OHARRAK

1. Txosten honen idazketaren uneren batetan balioetsua izan zait honoko pertsona hauen laguntza: Kepa Altonaga, Inaki Irazabalbeitia, Manu Lopez, Pruden Garzia, Nere Altuna, eta, batez ere, Eduardo Angulorena, eta eskerrak eman nahi dizkiet guztiei. Hankasartzoak eta hutsak, jakina, neure-neureak dira.
2. Ezarri ditudan muga hauek, jakina, ez dira erabatekoak: argi dago "estatubatuar ildo" nagusi horrekin zer ikusi gutxi zuten egileak ere topatuko ditugula AEBetan bertan; adibiderik argiena Jack London-ena da, bere *Adam baino lehena-go* (1906) edo *Burdinezko orpoa*, (1907) bezalako nobelekin.
3. Egile hauen lana ondo ezagutzen duen J. Urkixok antzeko zerbait esaten du: "*Zientzia-fikzioa zientzien aurrerapenen arabera idazten dela egiazat hartzen badugu ere, makinaria asko nobeletan deskribatu bait ziren benetan asmatuak izan baino askoz ere lehenago (...), egokiago litzateke beharbada zientzien aurrerapen horietaz baliatzen dela esatea*", Ttu-ttua 0,4.
4. 1993ko Galeuscan emandako hitzaldian, J. Urkixok espazioko (eta denboran zeharreko) bidaiaren ZFko gaiari heltzen dio, baina aipatzen dituen egile guztiak "klasikoena" dira (berriena H. G. Wells da), eta egungo ZFaren adibideak ematean, esanguratsuki, zinema eta telebistaren topikoak erabiltzen ditu: "*etzaitzte itsutu hainbeste gerra galaktiko, star-trek, alien nazagarri eta laser ezpata-dun printze kementsuekin*"... ZF literatura irakurtzeko gonbite argia da, baina adibideak (edo kontradibideak) jartzeko entzuleak menderatzen duen esparrura jo behar du: filmeetara.
5. *Ostiela!* aldizkariak bere 11. zenbakian berrargitaratu zuen -edonola ere, aldizkariko zuzendaria ez legoke ados ipuinari buruzko nire iritziarekin-.
6. Batez ere, susmoa dut, Espainiako zientzia-fikzioaren alorrean, oso gutxi eza- gutzen dudana eta, hala eta guztiz ere, ez dena munduko punta-puntakoena (gaztelaniaz egiten denaren barruan prestigio handiagoa du, ezbairik gabe, latinoamerikarrak). Adibide bat ematearren: Coronel Ignotus delakoaren lanetako batean (generoaren aintzindarietako bat Estatuan), *El amor en el siglo cien* izenburukoan hain zuzen ere (1922), protagonista biak, bilbotarrak, hibernaturik geratzen dira hainbat urtetan zehar, eta C. mendean berpizten dituzte, Munduko Konfederakuntzaren hiriburutik hurbil; ordurako ez du inork ulertzen haien gaztelania zaharkitua (esperantoa da nagusi), baina euskararen bitartez komunikatu ahal izango dira etorkizuneko gizakiekin, euskaldunek (jakina) apenas aldaketarik gabe erabiltzen jarraitzen baitute (gai nagusiak ez du xehetasun honekin zer ikusirik, dena dela). Ziur nago adibide gehiago azalaraziko litzukeela arakatze sakon batek, baina lan honen helburu eta neurrietatik at geratzen da.
7. Hauei gehitu beharko genizkieke HGL arloko itzulpen eta egokitza pen zerbait:

- Jules Verne-ren *Lurraren bihotzeraino* (1976, Gero), H.G. Wells-en *Ikusezina* (1979, Elkar), Karel Capek-en *Erroboten lantegia* (1991, Gero-Mensajero), Gudrun Pausewang-en *Hodeia* (1991, Elkar), besteak beste.
8. Halere, badago euskarazko ZF zaleentzako weborri bat (gutxienez): *Ortziren Ahotsa* (<www.galeon.com/japer/index.htm>). Orain arteko arduraren nagusia ZFko komikia izan bada (superheroien azpigeneroan zentratzen da, batik bat), badu ZFko literaturarako tarterik: Philip K. Dick-i buruzko biobibliografia eta hainbat informazio gehiago.
 9. Nahiz eta, batzuetan, aipamen ezak produktuaren kalitate txarrarekin zer ikusia duen: hori gertatzen zaio, estaerako, J. Gabiñaren 1996ko *Su xahutzaila* eleberriari, ZF politikoa eta Forsyth/Clancy motako *best seller*en arteko hibrido munstrotsu bat.
 10. Azpigenero hau erlatiboki berria da cuskal literaturan: aintzindaria, gauza askotan bezala, Josean Sagastizabal izan bide zen, *Paixibo* nobelarekin (1987), eta Joanes Urkixok azken aldi honetan argitaraturiko gazteentzako beste lan batzuk ez lirakeke joera honetatik urrunegi kokatuko. Oraindik datu gutxi dugun arren, ematen du *Ezpata eta Aztikeria* ildo (ber)indartzen ari dela gure artean, J. R. R. Tolkienen *Erantzunen jauna* trilogiaren zinematatzeak eman duen bultzadarekin batera akaso; *Erantzunen jauna*-ren beraren lehenengo liburukiaren euskarazko itzulpenaren argitarapen gorabeheratsua (2002) eta Karlos del Olmoren *Jentilen kronikak. Zazpilherritik itsasgorrietara* (2002) testuinguru horretan kokatu beharko lirakeke. Ez dago lekurik hau eztabaidatzeko, baina susmoa daukat -beste egile batzuekin batera, noski- "genero-aldatze" hauek, ZFaren krisiaren erakusle izateaz gain, ez ote duten aditzera ematen ideologikoki kontserbatzaileagoak diren jarreraren nagusitze bat, ZFaren ildo nagusiekin konparatuta alegia...
 11. Nolabaiteko, diot, Irazabalbeitiak ez baitu oso gustuko Asimov, ZFko idazle bezala alegia.
 12. Norbaitek Joan Mari Irigoien *Bakarneren gaztelua* -1986- ahazten dudala esango du -beste askoren artean, noski-, baina ez dut uste idazle ezagun horren lana ZFkotzat jo dezakegunik, ZFz mozturrotuta datorren arren: Irigoienek alegoria bat eraikitzen du, bere ohiko kontrajartzeekin eta manikeismoekin, baina zentzu metaforiko ageriegia du ZFa izateko...

BIBLIOGRAFIA

- Ackerman, Forrest J. (1998) *Ciencia ficción*. Bartzelona.
- Amis, Kingsley (1961) *New Maps of Hell*. Londres.
- Amis, Kingsley (1983) *The Golden Age of Science Fiction*. An Anthology. Harmondsworth.
- Angulo, Eduardo. *Ciencia ficción y ciencia* (entziklopediarako artikulua fotokopiatua, argitaratzeke).
- Asimov, Isaac (1986) *Sobre la ciencia ficción*. Bartzelona.
- Bacas, Pilar; Martín-Díaz, M^a Jesús; Perera, Fidel; eta Pizarro, Ana (1993) *Física y ciencia-ficción*. Madril: Akal.
- Barceló, Miquel (1990) *Ciencia ficción. Guía de lectura*. Bartzelona.
- Barceló, Miquel (2000) *Paradojas: ciencia en la ciencia-ficción*. Madril.
- Borda, Itxaro, eta Landa, Josu (1986) *Mayi Pelotekin solasean*, Susa 19.
- Borges, Jorge Luis (1975) *Prólogo*, in Ray Bradbury, *Crónicas marcianas*. Bartzelona.
- Clute, John (1996) *Ciencia ficción. Enciclopedia ilustrada*. Bartzelona.
- Etzaniz Erle, Xabier (1997) *Euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Bilbo.
- Ferreras, Juan Ignacio (1972) *La Novela de Ciencia Ficción*. Madril.
- Ferrero, Elena eta Del Olmo, Karlos (1987) *S.F. (Zientzia-Fikzioa): Hurbilketa literarioa*. Enseicuarrean, 3.
- Fresán, Rodrigo. *Ciencia no-ficción: el fin del futuro*. El País, 2001-VII-28.
- Gojeaskoetxea, Eneko (1986) *Zientzia-fikzio motak*. Susa 19.
- Jaureguizar, Agustín (1994) *Para una historia de la ciencia ficción en España. El Coronel Ignotus, pionero del fantástico. Biografía literaria de José de Elola y Gutiérrez (1859-1935)*. BEM aldizkaria.
- Kagarlitski, Yuli (1977) *¿Qué es la ciencia-ficción?* Madril.
- Kortazar, Jon. *Etorkezuneko identitatea*. El País (Euskadiko edizioa), 2003-I-6.
- Lopez, Manu (2000) *Euskarara itzultitako haur eta gazte literatura: funtzioak, eraginak eta itzulpen estrategiak*. Bilbo.
- Molina Gavilán, Yolanda (1999). "Magdalena Mouján Otaño's 'Gu ta gutarrak' (We and our own): a science fictional look at the basque nationalist myth of pure racial origins". *Romance Languages Annual*. X. 600-605.
- Palacios, Jesús (1999) "Las máquinas del ayer. Futurismos y ciencia ficción", *Claves de Razón Práctica*, 39, 1994ko urtarrila-otsaila.
- Roberts, Adam (2000) *Science Fiction*. Londres.

- Sadoul, Jacques (1975) *Historia de la ciencia-ficción moderna 1911-1971*.
- Scholes, Robert, eta Rabkin, Eric S. (1982) *La ciencia ficción: historia, ciencia, perspectiva*. Madrid.
- Suvin, Darko (1984) *Metamorfosis de la ciencia ficción*. Mexiko.
- Urkixo, Joanes (1984) "Zenbait mito". *Ttu-ttua* 0,3.
- Urkixo, Joanes (1985) "Hogei mila lekoatako urazpiko bidaia". *Ttu-ttua* 0,4.
- Urkixo, Joanes (1986) "Future? What future?". *Susa* 19.
- Urkixo, Joanes (1993) "Espazioa bidaia harrigarritzat hartua". *Galeuzka*.
- White, Linda. "Wildmen, witches, and wanderlust: no basque science fiction?", in Wolf, M. T eta Mallett, D. F. (arg.), *Imaginative futures: proceedings of the 1993 Science Fiction Research Association Conference*, San Bernardino 1995, 279-292.
- Zabala, Jabi (2002) "Espazio irudikatua. Literaturan inspirazio bila dabil zientzia". *Euskaldunon Egunkaria*, Begia gehigarria, 2002-XII-14.

Euskal zientzia-fikzioaren zenbait izenburu:

- Garikanopeña, Julen (2001) *Zura eta harrak*. Alegia.
- Gonzalez, Edorta (1988) *Azken belaunaldia*. Donostia.
- Haranburu Altuna, Luis (2002) *Kandido edo Euskadi independentearen ukronia*. Donostia.
- Irazabalbeitia, Inaki (1991) *Arrotza paradisuari*. Donostia.
- Irazabalbeitia, Inaki (1999) *Ipuin deslaxiak*. Bilbo.
- Irazabalbeitia, Inaki (1995) *Uda guztiak eztituk berdinak, Isi*. Donostia.
- Lopez, Manu (1998) *Oliva urpean*. Irun.
- Kintana, Xabier (1969) *Beste izakia*, in *Euskal Elerti* 69, Bilbo-Donostia, 77-254.
- Kintana, Xabier (1972) "Ukronia", in *Behin batean*. Donostia: Lur.
- Muñoyerro, Jose Luis (Maria Dolores Agirre eta Maritxu Urretarekin batera). 1967. *Ilargian ere euskeraz - En la luna también se habla vascuence*. Donostia.
- Peillen, Txomin (1972) *Itzal gorria*. Zarautz.
- Peillen, Txomin (2001) *Ale gorriak*. Alegia (2. argitarapena).
- Pelot, Mayi (1985) *Biharko oroitzapenak*. Baiona.
- Pelot, Mayi (1987) *Teleamarauna*. Baiona.
- Txiliku (1990) 2061, *antzinako kronikak*. Donostia.

- Txillardegi (1984) "*Kosmodromo*", in *Kosmodromo*. Donostia.
- Urkixo, Joanes (1991) *Lurra deika*. Donostia.
- Urkixo, Joanes (1992) *Shangai Tom, espazioko zaindaria*. Donostia.
- Urkixo, Joanes (2000) *Lur izeneko oihana*. Bilbo.
- Zubeldia, Iñaki (1982) *Euskaldun bat Marten*. Donostia.

*Baina, benetan egiten dute amets
ardi elektronikoeekin?*

Behin batean ba omen zen erdipurdiko mugimendua zuten hainbat eta hainbat irudiren klon kasik ezin hobe bat, Lumière anaiek asmatua. Klon hura, gure begiek duten makaltasun batez baliatu zen II. milaurteko asmakizunik handiena, gorena, ederrena, gozoena, arriskugarriena izateko. Badirudi, hala diote, bederen, horrelako gauzak esateko programatuta daudenek, gizakion begiak ezin duela mugimendua antzeman irudiak behin abiadura bat hartuta. Badirudi, *e si non é vero e ben trovato*, begiak ez dakiela mugitzen den irudi hori gelditi geldirik dagoela proiektorean. Badirudi, mendeak eta milaurteak itxuraldatuko zituen klon hura, hainbat eta hainbat martzianok eta alienigenek egin duten legez, lurtarren ahuleziaz baliatu zela orain arte sortu den azkenaurreko artea izendatu ahal izateko.

Behin batean ba omen ziren bi anaia, Lumière anaiak, asmakizun zientifikoa burutu zutela sinetsi zutenak. Sekulan ez zuten pentsatu zinema barraketako ikuskizuna bilakatuko zenik. Are gehiago, are haratago, are inozoago, sekulan ez zuten asmatu dokumentua izatetik ikuskizuna izatera iritsiko zenik. Are okerrago, are baldarrago, inoiz ez zioten elkarri esan suak horren erraz hartzen zuen filme horrek fikzioa azaltzeko balioko zuenik. Are harrigarriago, inoiz ere ez zuten aldarrikatu zinematografoak hor nonbait, hor noiznahi, fikziozko ipuin eta kondairak azalduko zituenik.

Behin batean, zientzia-fikziozko literaturan gertatzen ohi denez, ba omen zen bere sortzaileengandik askatu zen sorkaria, zeluloidezko izakia. Hautsi zituen zientziaren kateak eta fikzioaren beso epletan erori zen barraketako aztiak ziren Georges Méliès eta Segundo de Chomonen laguntzaz libre, aske, salbu zen klona, zeluloidezko

klona. Zientzia ez zuen nahikoa, ez zuen aski. Ez zuen nahi gizartearen, munduaren, izakion egia zientifikoaren isla eta ispilua izan. Nahi zuen bai, baina zerbaiten falta sumatzen zuen: ametsa, gezur ederra, abentura, mentura. Klonak erabaki zuen historia, zientzia, erlijioa, planetak eta izarrak, Politika eta Iraultza itxuraldatuko zituela, aldrebestu eginen zituela. Zientzia-fikzio bilakatuko zen. Hamaika idazle on, ehundaka egile prestu eta milaka eleberri merkeren laguntzaz.

Betidanik bizi izan da zinema eskizofrenia eder eta aberasgarri horretan. Beti izan du zientziaren aztarna barrenetan eta ipuinak, menturak, kalenturak kontatzeko grina, desira, beharra, eromena bihotzean eta ariman ere. Zinema, bada, beti izan da gizakiaren beste hainbat asmakizun baino askoz gazteagoa. Beraz, fikzioa besarkatu zue-nean, hamaika sopikun lortu zituen. Hasiera batean, txikia eta eskarmentu gabekoa izanik, antzerkiari eskatu zion laguntza. Pinturari ere bai. Literaturari, jakina. Hasiera batean, trakets eta baldar moldatzen zen sorkaria. Mugimendu halamoduzkoa baino ez zien eskaintzen trukean bere kideei. Von Frankenstein-en munstroak bezala, Lumière anaien izakiak ez zuen hasiera batean barbarik, hitzik. Ez zuen lengo-
aia propiorik. Jaioberria zen. Malezia gabea. Hitzik gabea. Pentsa-
mendurik gabea. Mugitu bai, mugitu egiten zen. Besterik ez. Zerbait zientifiko izateko luzeegi zen ibilia barraketan. Fikzioa izateko, aldiz, ez zuen maleziarik, ez zekien inolako trikimailurik, ez zuen amarrurik erabiltzen...

Horrelakoxeak izan ziren klon horren hastapenak. Segituan beregana-
natuko zuen hizkera, ibilkera, jarduera propioa eta orduan, orduan-
txe, bazterretan utzi zituen ordurarteko laguntzaileak. Are gehiago,
are maltzurrago, laguntzaile horiek klon jaioberri horri ematen zioten
elikagaia bere modura moldatu zuen honek, bere kasa, bere erara,
bere senetara. Denboraren poderioz, eskarmentuaren poderioz, eskla-
bo eta miresle zituen guzti horien indarrak husturik, xurgatuta, bes-
teena zen hori propio bihurtzeko behar zuen adimena sortu zuen,
behar zuen trebetasuna, behar zuen ahalmena.

Abiadura osoz, erreparu gutxiz, errespetu txikiz, zeluloidezko klona hasi zen besteek sortua zena bere maneretara moldatzen. Dotorre asko, trebe oso, bere buruaz harro eta fier, ilunabarrean ibili zen gustuz eta gustagarri. Harrapari eder eta aseezina, besteek, literaturak zein pinturak, komikiak zein zientziak, historiak zein antzerkiak zuten oro irentsi zuen. Irentsi eta moldatu. Leialtasuna, fideltasuna, esangurarik, zentzurik gabeko hitzak bihurtu ziren klonarentzat. Sekulan ez zien errefus, muzin, egin. Sekulan ez. Baina, gazte izanik, libre izanik, esanahi horiek birziklatu zituen. Oinarri, ardatz, inspirazio- iturri hartzen zituen lanen izpirituz jabetuko zen, *letra*, moldeak, auskalo non utzirik.

Klona, gerta liteke, gerta daiteke, gertatu zen eta gertatuko da, asmatu zuten gizakiok baino haratago iritsia zen. Beraien menpe, estu, motz nahi zuten. Askorentzat, politagoa zen ume zelarik. *Politagoa* baino errezagorik erabiltzen, ulertzen, taiutzen. Gizaki askok uste zuten zeluloidezko klonak xede bakar eta bakana izan behar zuela: mugimendu-emailea behar zuten izan. Besterik ez. Besterik gabe. Literaturaren menpeko, esklabo, zerbitzari.

Zientzia-fikziozko istorio guzti guztietan gertatzen den moduan, setiatuta sentitu zuten bere burua klonak eta borroka egin zuten. Behin eta berriro aldarrikatu zuten librea zela, inoren esklaborik ez. Bere formak, bere modak, bere desirak, ez zirela besteena. Inspirazio-iturriak interpretatzeko eskubidea aldarrikatu zuten ozen eta fier. Klona eta bere sortzaile eta (sasi) menperatzaileen arteko borroka basa eta luzea izan da eta izanen da. Ikusle asko duen eta izanen duen guda. Estrategia-jokoetan bezalaxe, talde baten eta bestearen mugimendu zehatz eta finezia handikoak mundu oso baten hizpide, eztabaidarako gaia, jolaserako aitzakia bihurtu dira.

Bi lehiakideek nahi adina aldeko eta kontrako dute. Azken kasua kuriozkoa da oso. Arras. Zeharo. Instant batez, zeluloidezko klonak amore eman du. Zergatik? Noiz? Zein baldintzetan? Harry Potter-en aurrean makurtu da klona. *Makurtu* idatzi dugu eta ez *belaurniko*

jarri, egizue kontu eta kasu. Kontua zera da: Harry Potter azti britaniarraren jarraitzaile sutsu, tematsu eta kaskagorrek ez zuten onartuko inork beraien Jaun gaztearen abenturak aldrebestuko balitu. Horrexe-gatik, horien gainean eginiko bi filmek liburuen kolorezko fotokopia bizidunak dirudite kasik. Liburuen pasarte osoak, pasadizo eta esaldi guztiak agertzen dira zeluloidean. Hala ere, hala ere, ez pentsa. Lehendabizikoan ez hainbeste baina bigarreanean, Chris Columbus zuzendaria kolore ilunez eta tonu beltzez tindatu du pantaila. Berrero ere, klonak, zeluloidezko klonak, manipulatu ditu besteek sortutako lana.

Baina zientzia-fikzioaz aritu behar genuen eta arituko gara, izan ezazue konfidantza. Klona, fotogrametako klona jaio orduko, zientzia-fikzioak bazuen bai izena, bai izana. Izana izena baino handiagoa, jakina. Leonardo Da Vinci-rekin ahazterik badugu (nolatan ahaztuko gara ameslari handi eta goren horrekin?). esan dezakegu 1800.enean idatzi zirela zientzia-fikziozko hiru lehen eleberriak, *The Temple of Nature*, Erasmus Darwin-ena, *The Last Man*, Jean Baptiste de Grainville-rena, eta *The Armed Briton*, William Burkere-ena. Etorriko ziren gero (baina ez hain "gero") *Frankenstein*, Mary Shelley-rena eta 1827an Joseph Atterley-k idatziriko *A Voyage to the Moon*.

Zinema, jakina, askoz beranduago iritsiko zen. 1895ean jaio zen, objektu zientifiko gisa. 1903an Georges Méliès-ek zientzia-fikzio bilakatuko zuen *Viaje a la Luna* filmatuz. Geroxerago *Veinte mil leguas de viaje submarino* burutu zuen. Nahikoa ez zuen izan, ordea. *Viaje a través de lo imposible* delakoan dena asmatzen du: ezinezko abiadura hartzen duen automobila eta espazio-ontzia bilakatzen den funikularra. Ameriketara, berriz, Thomas Alva Edison-ek *Frankenstein*-en lehendabiziko zine-bertsioa egiten du. Alemanian, berriz, Alemania estrainio eta basan, oraindik ardi elektrikoekin amets egiten ez zuen androide lehendabizikoa agertu zen. *Homunculus* zuen izenburu. Orbanik, faltarik, akatsik gabea. Baita arima gabea ere.

Zinema eta zientzia-fikziozko literatura beti ibili dira elkarren se-gizioan, elkarren atezuan, elkarren zelatan, elkarren konplizitatean,

elkarren ezinegonean, elkarri so, elkarri erronkan, elkarrekin de-
man. Zientzia-fikzio paperezkoak zeluloideak duen munduak iru-
dikatzeko gaitasuna, trebezia, behar ditu. Zinematografoa aise dabil
zientzia-fikziozko liburuek irekitako zulo beltzetan barrena eta
erraz azkar egiten du bidaia *zizare-zuloetan* zehar. Zientzia-fikzioa-
ren munduan, zinemak eta literaturak elkarri ematen dizkiote hi-
tzak eta irudiak. Baina, jakina, nor hasiko da duda-mudatan, norbe-
rak batzuekin eta besteekin nahi duena egiteko?

Askeak dira biak geroa, oraina eta iragana irudikatzeko, itxural-
datzeko. Askeak biak aieru zientifikoak izateko. Askeak, gaur gi-
zakiarengan konfidantza izateko eta bihar luzaturiko konfidantza
bera kentzeko. Askeak planetak galtzeko eta aurkitzeko. Askeak,
bata bestearengandik aske, gizakiaren beldur osoak paperean zein
pantailan aurkezteko. Elkarri asko zor diote baina ez dira elkarren
zorretan. Zentimo bat besterik balio ez zuten eleberritxo haiek se-
kulan ez zuten izan aukera Fritz Lang-en *Metropolis*-eko dekora-
tuak, planoak, soinuak gabeko melodia, irudikatzeko. Zinemak,
berriz, aspaldi galdu zuen Frank Herbert-en *Dune* irudietan jartze-
ko proportzioa.

Zientzia-fikzioak beti uztartu ditu gizakiaren amets eta ames-
gaiztoak. Beti zerutik zetorrenaren beldur izan gara. Beti zeruak
ezkututzen zuenaren inbidiaz edo esperantzaz izan gara. Antigoa-
leko arbaso gureek beldurra zioten horrenbesteko botere erakus-
ten zuen eguzkiari eta dena belzten zuen gauari. Tokian tokiko,
neurrian neurriko, aroan aroko, antzekoak izan dira gure izuak.
Gehiago dakigu batzuek eta besteaz baina sekulan ez nahikoa, seku-
lan ez behar dugun adina.

Zinema ere gure amets eta gure lokamutsen lehengaiak egina da.
Jaio zeneko arrats hartan, Parisen, ikusleak arras beldurtu zituen.
Orduan inork ez zuen pentsatu asmakizun berri hura fikzioa zenik,
zientzia baizik. Horrexegatik sinetsi zuten, sakon eta dardaraz sine-
tsi ere, pantailaz beste aldetik zetorren trena egiazkoa zela. Ez zuten

ezta pentsatu ere egin zinematografoa gezurretan ari zela estraineko-koz. Gure ikusmenarekin ari zen jolasean. Gure gorputzaren ezinaz baliatzen. Gure beldurrez ere bai. Lumière anaiek gailu zientifikoa sortua zutela sinesten zuten zinez. Sekulan ez zuten egia jakin: fikzioaren tresnarik ederrenari, baita arriskutsuenari ere izaera eman ziotenik.

Ikaragarriak, mugagabeak dira bai literaturaren bai zinemaren dohainak munduak irudikatzeko. Literaturak nahi duena gauza dezake, hizkien, hitzen ilunabarrean gauzatu ere: hegan egingen duten itsasontziak edo planeta honetako jaun eta jabe izanen diren tximi-noak. Autorearen nahia nora, hitzak hara. Zinemak, berriz, ezin, muga, amildegi guztiak gainditu zituen aspaldian.

Zineman, zientzia-fikziozko zineman, hamaika ikusteko jaiotzen, baina ehundaka gehiago ikusi ditugu. Hasiera lehendabiziko hartan, suziria sartu genion ilargiari begian. Gero gerokoa. Eta hain da zabala geroa zinematografoan! Distantzia existitzen ez den horretan dauden planetara egin dugu guk bidaia zeluloidezko bideetan barna, zeluloidezko ibilgailuekin. *Blade Runner*-eko erreplika eder eta tristatu hark Andromedako ateetan ikusi ez zuen hori ikusi dugu guk. Banpiroek menperatutako Lur honetan bizi izan zen azken gizakiaren testigantza jaso genuen. Hal ordenagailu ahalguztidunaren ahotsean somatu izan dugu hain gizatiarra den bestea hiltzeko asmoa, hain gizatiarra den bizi izan ez dugunaren nostalgia, hain gizatiarra den azken agurraren tristezia eta beldurra.

Zinema-lagun, mundu guztiak esploratu ditugu. Litezkeen munduak oro eta mundu ezinezko guztiak. Ezagutu genuen *Alien*, alienigena etsaien artean etsaiena zenean. Pixkanaka-pixkanaka, ordea, apurka-apurka alienigena gugan sartu zen. Eta gu alienigena horren zati bat izan ginen, bera gure barrenetako zelula-sorta bat zen moduan.

Fikzioak oro bizi izan ditugu guk zineman. Zientzia guztiak jarri dira belauniko zinematografoaren aurrean. Egun, zientziak, zientzia

benetakoak fikzioa dirudien honetan, ez da ezer zinemak aurreikusi ez duenik, zinemak bereganatu ez duenik, menpeko bilakatu ez duenik. Ordenagailuak eta kamera digitalak, espazio-ontziak eta klonak. Dorreak, Dorre Bizkiak, erori ziren hartan, zine-jaleok ez ginen harritu. Ikusita genuen eta. Ehundaka aldiz. Literaturaren eta zinemaren semeak diren Fu-Manchú eta James Bond-en arerio fin guztiak ezagututa, nor harrituko da Ben Laden-en ausardiaz? Batman-en lehiakide eta iluntasuneko kideak diren Joker eta Enigma ezagutzen baldin baditugu, faltan botako dugu mundu sasi-errealan diharduten gaiztoengan finezia eta malenkonia hura. Errealitateak ez du ezer fikzioak aurretik izan ez duenik. Baina hori aspaldi genekien guk. Eta ez zine-azti batek filmatua, baizik eta idazle batek izkiriatua: Oscar Wilde-k (nork bestela?) esanda, Naturak Artea imitatzen du.

Oscar-en baimenaz guk, harro asko diogu, bizitzak zein politikak, zein izuak, zein zientziak zinema imitatzen dutela. Are gehiago, are harroputzago, jakin, badakizue zuek, idazleok, literaturak azken hamarkadetan zinema imitatzen duela. Lotsarik gabe. Ikasle aurre-ratua izan nahian. Zuetako askoren obrak irakurtzerakoan, erraz asko, maltzur oso, antzematen dugu guk zinematografoaren eragina. Plano hurbiletan idazten duzue zuetako hamaikak. Hitzez eta esaldiz *travelling*-a erabiltzen ere trebatu zarete. *Moulin Rouge*-ko muntaketa basa eta ausarta paperera nola demontre ekarri ari zarete zuen buruari galdezka. Arraultza eta oiloaren galdera tentel baina buruhaustekoan legez, kasik inork ezinen luke esan zein izan zen lehena, Barry Guifford-en lanak edota Lynch-en eta Alex de la Iglesia-en egokitzapenak, *Wild at Heart*, eta *Perdita Durango* horiek.

Hamaika zulo beltzetan erori gara dagoeneko hizki, hitz, lerro hauetan. Ziberespazioan ari gara biraka. Fikzioan gabiltza, inoiz errealak izan ziren egungo kolonia galduetan errege, tolestura espazialean barna bidaiari. Literaturak sortu zituen hitz horiek. Literaturak jarri zien izena Lur Hutsari, Poltsikozko Unibertsoari eta Hi-

perespazioari. Zinemak, berriz, eskaini zien izana. Tamaina jarri zien paperezko irudi horiei. Mugimendua. Galaxia guztietako er-tzetara bidali zituen hitzak eta irudi bihurtu. Eta Hitza zeluloidea bi-lakatu zen. Paperezko kateak hautsi eta errealtateak elkarrengandik urruntzen diren JonbarPuntua izeneko fantasmagoria berrira abiatu ziren hitzak fotogramak bihurturik.

Jakina, bi azti arras ahalguztidunak dira literatura eta zinema eta ez bata ez bestea ez zen makurtu, ez zuen amorerik eman. Lite-raturak sortzaileari zor zaion begirunea eskatu zuen. Zinemak, al-diz, demiurgoak izan behar duen askatasuna erreklamatu zuen. Bi munstro hauen lehiak bertan darrai. Ez da bukatu eta ez da bukatu-ko. Biek dute bestearen indarraren berri. Biek ezagutzen dute eder-ki beren boterea eta partidak bertan darrai. Biek daukate lengoia propioa baina literaturak harro botatzen dio aurpegira zinemari zeluloideak hitzik ez zueneko hartan berak utzi zizkiola musutruk. Zinemak erantzun harroa luzatzen dio: hitza lortu zuenean, artea-ren eta jolasaren adierazpide berrizat hartu izan zuten hainbatek eta hainbatek muzin, errefus, egin zioten, esanez hitzak zinemaren beraren esentzia, funtsa, muina kentzen ziola. Zinemak irudia behar zuela izan. Irudi garbi eta hutsa. Hitza zuten arteak baziren. Kasik herdoildurik zeuden arteak. Beraz, esperantza osoa, konfidantza betea zuten hitz gabea zen jaioberri horretan. Egun horietan, aro hartan, momentu horretan, agorturik ziruditen hitz guztiek, mila-ka aldiz erabilia, maizegi torturaturik, bizigarri zuten guztia zur-gaturik. Zinemaren sortzaile lehenek, sortzaile benetako horiek, sekulan ez zuten tragedia hori nozitu izan. Hain zen aberasgarria irudia! Hain zen tentagarria! Hain zen mugagabea mugimendua zuen irudiaren eremua, erresuma! Nor kezkatuko zen hitzaz? Hit-zaren barruko soinuak, hitzaren kanpoko doinuak, hitzaren kon-tu honek eta horrek ez zuen zer eskaintzerik etorkizuna gogaitu-rik, aharrausika, begiratzen zuten artistei. Hitzak, hitza andre eta jabe horrek, sorturiko kateak hautsirik, denak, poetak zein zirkuko

orekariak mutua zen irudiaren beso maitagarri eta arriskutsuetan erori ziren...

Gero gerokoa. Eta geroa, kasu honetan, kasik auzi zientifiko eta komertziala izan zen. Artistek hitzik gabeko irudia zuten amaran- te. Ikerlariak, kaleko ikusleak eta filmeen salerosketan ziharduten horiek, hitzaren bila, segizioan, desira aseezinean ziren. Eta hitza agertu zen. Etenik ezagutzen ez duen guda honetan, hitzak irudiaren erresuma setiatu eta konkistatu zuen. Denbora luzean, are- rioaren lurrean izan zen andre eta jabe. Irudiak ehundaka miresle galdu zituen. Baina ez zion ardurarik. Jakin bazekien bere ordua iritsiko zela berriro. Azkenean, bere inperioa hitzarekin parteka- tzen onartu zuen eskuzabal. Baldintzak berak jarrita: bere maitale zenbaitek, Einsestein-ek zein Griffith-ek, sortuko lioketen lengoaia ezin hobe baina aldakorra arras. Hitza, lengoaia horren zati bat baino ez litzateke izanen....

Honelakoxeak, horrelakoxeak, halakoxeak dira, izan daitezke, izan zitezkeen kontuak fikzioak, zientziak, gezurra, fantasia, soinu mutuak eta irudi hiztunak elkartzen diren nahaste-borraste hone- tan. Bertan, alienigenak izan daitezke andrakila maitagarriak, pla- neta eder honetaz jabetu nahi duten martziano gaizkinak, errobot ezin hobeak eta ezinbestekoak edota espazioa zeharkatzen duen zortzigarren bidaiaria. Azken finean, sekulan ez dugu jakingo an- droideek benetan amets egiten ote duten ardi elektrikoekin baina jakin badakigu Hal ordenagailuak, *Espazioko Odiseakoak*, hitza erabi- li zuela kasik gizatiarra bilakatu zen hartan.

Elkarrizketa



Lorea Agirre:

Emilio Lopez Adan "Beltza",

***Utopia eta kontra-utopia,
aurkia eta ifrentzua***

Emilio Lopez Adan "Beltza"
Utopia eta kontra-utopia, aurkia eta ifrentzua



Mugimendu askatzaileak eta mugimendu zanpatzaileak, biak dira gizateriaren obra. Eskuaren bi aldeak: aurkia eta ifrentzua. Utopia eta kontra-utopia. Horixe da munduaren dialektika, askatasun-gogoak hurkoa zanpatzeko tentaldia dakar berarekin. Horrekin borrokan bizi da Beltza. Hori ahaztu gabe eraiki nahi du bere utopia. Utopia, baina ez ametsa. Lorgarri izan behar baitu. Eta balore humanisten tradizioari lotua; eta politikoa; eta aniz-

tuna. Begi argiz, hitzak ehizatzen ariko balitz bezala hitz egin digu. Anarkista, idazle, literatur eta komiki-zale, pentsalari eta ginekologo da Beltza. Erditze batetik datorrela hartu gaitu Baionako bere bulegoan goizean goiz. Baionan langarra dago, baina eguzkia dator ekialdetik.

"Nirea -onar dezadan-, burges ttipiaren edo dendariaren utopia apala da, urratsak ondo neurtuz egin beharrekoa"

• **Thomas Morok utopia hitza lehen aldiz erabili zuenetik gaur arte izugarri aldatu da haren erabilera, eta are haren esanahia. Zer da zuretzat utopia? Zein da zure utopia?**

Nire utopia... Niretzat utopia ez da hainbeste antolakuntza pentsatu baten deskribaketa, baizik eta borondate etiko eta humanista bat, indarrean dagoen sistema kritikatzeko eta ekartzen ahal den justiziazko bizimodu berri bat gauzatzeko. Borondate errealista da. Utopiari eman nahi izan diodan lekua Ernsts Bloch-en bidetik doa. Thomas

Münzer-i buruz idatzi zuen liburuak sakonki markatu ninduen gaztea nintzelarik. Bloch-en utopiak ez du zentzu esturik -amets bat egin duzu, eta amets hori lortu ezin daitekeen ametsa da-, eta oraingo jendartearen atzean dagoen fruitu posiblea ekartzeko borondatea dakar. Utopiak, dagoena kritikatzeko gaitasuna ematen dizu beste erreferentzia batzuk dituzulako; eta, denbora berean, hara heltzeko bide etiko eta humanistak eskaintzen dizkizu. Esate baterako: *“Halako edo bestelako askatasuna nahi dut; eta hori lortzera joko dut, baina hori lortzearen ez dut onartuko zapalkuntza ekartzen duen biderik”*. Hori da ideia, gutxi gora behera. Beraz, nahikoa utopia zehatz eta apala da. Esan nahi dut, ez dela poetaren utopia absolutua: *“beste mundu bat nahi dut, berdin da ezin badaiteke erdietsi. Nire mundu hori guztiz da zuzena, guztiz justua; nire munduan bizi naiz eta gainontzeko guztiarekin amorratuta nago”*. Ez da hori. Horren atzean bada laket ez zaidan edukia. Eskema perfektu eta hertsia suposatzen du eskizofreniaren antzeko jarrera: errealitatearekin moztura eta manikeismoa; gehiago dena, horiek tiraniaren ongaria izan daitezke. Nirea -onar dezadan- burges ttipiaren edo dendariaren utopia apala da, urratsak ondo neurtuz egin beharrekoa.

- **Ez da utopia nostalgikoa, beraz.**

Ez, ber bidetik, nire utopia ez da batere urrezko garaiaren ametsa. Urrezko garaiaren nostalgia agertu izan da leku askotan, baita marxismoan ere. Lehen komunismoaren istorio famatua literatura marxistak barreiatu zuen inon izan ez den gauza izanik ere, erabat azientifikoa da, nahiz eta, behar bada, kontsolagarria izan. Niretzat, utopia kritika eta ekintzarako akuilu errealista izanik, ez da balizko urrezko garai baten nostalgia, non denok ginen berdinak eta animaliekin laguntasunean bizi ginen...

- **Paradisua, horrenbestez.**

Hori da, paradisuaren nostalgia. Eta horrek erlijiora eramaten gaitu, eta utopiarekin nahasten den milenarismora. Hau da, Jainkoaren

erresuma lurrean gauzatzeko borondatera: guztiz zuzena izanen da, bai, non Jainkoa zuzena den sinesten duzun. Milenarismo horiek oso presentzia handia izan dute utopiaren baitan, baita sozialismo utopikoetan ere: Jesukristoren mezua pobre eta berdintasunaren alde uleratzeko modua, moda zaharra da, askatasunaren teologiak berritu duena; Jainkoaren erresumak forma modernoak hartzen ahal ditu bere aspaldiko egiturak sakonean atxikiz. Gaur egun ere topatzen ahal duzu horrelakorik. Esaterako: islamistek esaten dute benetako Islamak irabaziko balu denok justizian biziko ginatkeela. Milenarismoa baizik ez da hori. Ez nauzu fededun, eta erlijio konkretuetan diren eduki zapaltzaileetaz mesfidati naiz. Baina prest nago milenarismo edo urrezko garaiazen ideietan diren berdintasuna, askatasuna, justizia, zoriona eta horrelako baloreak hartzeko oraingo jendarteari egin beharreko kritika eraginkorrenekin lotzeko; hots, utopiari emateko Bloch-ek berak deitzen zuen “esperantzarako hatsarrea”.

- **Talde batek gauzatu beharrekoa da utopia hori.**

Bai. Eta oso politikoa.

- **Zer esan nahi du horrek?**

Utopia horrekin lotzen duzula justiziazko erresuma guztiz lurrekoa, eta justiziazko erresuma hori litekeena ikusten duzula. Litekeena, baina bi arrazoiengatik gaur egunean lortzeko nekeza: bata gure ezintasuna da, jendearen ezintasuna; eta bestea, sistemak berak bidea oztopatzen duela. Beraz, utopia erdiesteko ahalbideak berak ematen dizkizu gaitasunak oraingo sistema kritikatzeko eta aukera eskaintzeko. Oztopoak gainditzeko beharra, etiko eta estrategikoa da.

- **Oztopoetan jendearen ezintasuna aipatu duzu: zergatik?**

Jendea berez ona, zintzoa dela, ez dut sinesten. Ez dut sinesten auskalo zein zapaltzailek sortu alienazioak egiten gaituela berekoi, anker edo zurgatzaile. Beldur naiz jaidura horiek txertatuak direla gure

baitan eta erraz ateratzen direla. Bestalde, ez naiz aski marxista zientifikoki pentsatzeko garapenak berez ekarriko duela iraultza egiteko gaitasuna. Hala eta guztiz ere, uste dut gaur egunean mundu eta jendartearen beste kudeaketa bat egin daitekeela, askoz zuzenagoa, gurean ere diren jaidura elkarzale, gupidatsu eta amodiozkoetan finkatua, eta litekeen kudeaketa hori ez dela gauzatzen sistemak sortu oztopoak aurrez aurre dituelako, arerio eta arrasta gisa: jabego pribatua, legea, estatua. Horiek oztopatzen dute aldakuntza, eta horien aurka borrokatzea haizu eta errealista da.

“Utopia eta kontra-utopiaren harreman dialektikoa oso presente izan dut beti”

• **Utopiaz hitz egitean kontra-utopia ere aipatu behar dela diozu.** Utopiaren sorrerarekin batera, hasiera hasieratik, agertzen da kontra-utopia. Thomas Moro bai, baina laster, modernitatearekin batera, heldu ziren Jonathan Swift edo Voltaire bera, eta eurekin lehendabiziko kontra-utopiak. Eta haien liburuetan ikusten da nola proposatzen diren litezkeen mundu hoberen horiek mundu absurdu eta arrunt injustuak bilaka daitezkeen. Absolutismoa eta eskizofrenia soziala aipatzen dira, hitz horiek ezagutu gabe ere. Gero, mendeak igarota, kontra-utopiaren ideiarekin lotuko dira: Huxley eta Orwell. Kapitalismoaren etorkizunari 1932an egin zion kritika Huxley-k, *Bai mundu berria* liburuan; Bigarren Mundu-gerraren ondoren, Orwellek berbideari ekin zion estalinismoa kritikatzu 1984 eleberriarekin. Bi kritika horiek garapenarekin lotutako bi eredu totalitario dituzte jomuga, eta jarrera kontra-utopikoa agertzen dute. Utopia arrunt ona bada haren erresuma sortu eta kontrolatu dutenezat, kontra-utopiak erakusten digu, erresuma horrek zokoraturikoen, edo berarekin bat ez datozenen zapalkuntza. Utopia eta kontra-utopiaren harreman dialektikoari oso adi izan naiz beti, beti pentsatu izan baitut gizateriaren obra direla bai askatasunaren aldeko borroka eta baita

ere gure haurridea zapaltzeko egiturak. Bide beretik, ez naiz gauza izan sinesteko bide bakarra dagoenik sistema borrokatzeko eta hark galarazten digun zoriontasunera iristeko. Utopia totalitario baten barruan dagoen absolutismo ideologikoaz, absolutismo politikoaz eta zapalkuntza-arriskuaz jabetu nintzen unetik, zailago egin zitzaidan bizitza, eta beti nahi izan dut kontutan hartu edozein utopiaren kontra-utopia posiblea.

- **Etika ere aipatu duzu.**

Berdintasuna, askatasuna, justizia, zoriona eta tankerako baloreak badira utopiaren helburuak, xedeen lortzeko oinarri ekonomikoak ondoan jartzea beharrezkoa da. Komunismo libertatzailea izanen litzateke egokiena jendartearen auto-kudeaketa egiteko, beraren baitan adosten baitira bai jabego eta ekoizpenari buruzko ideia bateratzaileak, eta bai aniztasunaren errespetua, Europan bereziki sortu dena. Komunismo horretan bakoitzak nahi duena egiten du non eta besteak ez dituen kaltetzen, eta inor ez dago beharturik besteen pentsamendua edo antolakera onartzeko. Nahi baduzu, libertatzaile liberala da ikusmolde horren zentzu politikoa eta oinarrizko baloreak, berriz, balore klasikoak dira.

- **Balore horiek ere kritikatzera iritsi da utopiarekin kritiko den asko.**

Balore humanista eta pluralista horiekin gauza harrigarria gertatu da historian zehar. XIX. mendeko sozialismo utopikoen parte batzuk kritikagarriak dira, Saint Simon-en jendarte teknokratiko eta agintezalea esaterako, baina ekoizpen-egiturak eta egitura sozialak arbuiaztzeko aipatzen ziren balore humanista eta sentimentalak ere kritikatut izan dira... iraultzaren izenean! Marxismoaren azken belaunaldiarekin batera eskola anti-humanista sortu izan zen, Althusser-ena, esaterako, zorionez jada ahaztua dagoena. Eskola horren helburua marxismoan humanismoak ez duela lekurik batere frogatzea zen.

da estalinismoaren azken putarrak ziren. Paradoxaz, gaur egun komunismotik geratzen zaigun gauza biziena horixe da: antzinako balore humanista eta sentimentalak, txiro eta zanpatuekiko elkartasuna eta gupida. Ez digu balio marxismo “zientifikoak” proposatzen zuen antolakuntza guztiz egina eta guztiz itxia, esperientzia ikaragarri txarrak ezagutu baititugu. Berriz, “zientifikoek” arbuiatu balore humanistak dira, hain zuzen, gaurko mundializazioaren kontrako mugimenduan ikusten direnak: pobreziaren aurka borrokatzea, desberdintasun sozialak eta zapalkuntza baztertzeko eta askatasuna segurtatzeko. Horiek dira politikan indarrean dauden baloreak, balore etikoak. Utopia ez da hainbeste antolakera bat, baizik eta baloreen inguruko pentsamendu bat, irudimena dela bide sistema kritikatzeko eta politika egiteko gai dena.

“Lortuko dugula pentsatzea da gure esperantzaren hatsarrea”

• Zer garrantzia du lorgarria izateak?

Nire ikuspuntuak, esan bezala, Bloch-enari jarraitzen dio: garrantzi handia. Izan ere, lortuko dugula pentsatzea da gure esperantzaren printzipioa, gure ekintzen bultzatzailea. Berriz, utopiaren kontzeptu eskizofrenikoa baduzu, lorgarri izateak ez du garrantzirik. *“Lortzen ez badugu ere, arrazoia dugu”*. Uste dut jende asko dabilela oraindik utopia horien bideetan, Euskal Herrian behintzat. Hau da, kritika erradikala egiten dute eta kritika erradikal horrekin lotzen dute jendarte ideial bat, mundu ideial bat; ideiala den neurrian lortezina. Euren borrokak askotan guztiz sinbolikoak dira, eurentzat betegarri, baina euren sistema ideiala hain errerealitatetik at da non ekintza horiek haren ezartzeko gauza ez diren. Usu, oso pozik dira nekeaz eta sakrifizioaz ematen dituzten leukotasunekin, baina hori egoki izan badaiteke ere bere munduan isolatzen denarentzat, ez da batere betegarri jendartea aldatzeko borondate politikoa daukanarentzat. Horregatik, hori ez da nire mundua: lorgarri diren helburuak bideratzea guztiz garrantzitsua da.

• *“Orain, totalitarismoaren salakuntzaren bidetik, estatu komunisten desmasiak ez dira aurkezten anarkistek salatu errakuntza agintezaleen ondorio bezala, baizik eta utopia askatzaile guztien ondorio diktatorial beharrezko bezala”*. Horiek zure hitzak dira.

Hori delako azken denboretan behin eta berriz entzuten duguna. Komunismoaren krisiak eman dio bide zabala ideia horri. Aspalditik esana izan da utopista modernoengan badela eskizofrenia absolutista: berriek asmatu sistemari eusteko, gehiengo zapalduz ere egin beharko zutela. *“Horrelako pentsaera duen norbaitek boterea hartzen badu irudika ezazu zer egin dezakeen”*, esaten zen lehen; orain, berriz, *“begira zer egin duen”* esaten da. Egia da, sozialismo errearen kritikak ekarri du utopiaren kritika orokorra. Guztientzat balioko zuen eredu absolutu bat amestu, boterea hartu, eta ez aniztasuna, ez errealtatea, ez dituztela errespetatu egiaztatu da zenbait kasutan. Hor ditugu Kanputxea, estalinismoa, eta beste errealtate lazgarri batzuk. Egitate historiko horiek ez dute utopiaren kritika orokorra zilegi egiten. Baina, egia da, pentsaera ezkor horrek zabalkunde ikaragarria hartu du.

Utopiaren kontra egoteraino; utopia ifernua baino are okerragoa da askorentzat. Vargas Llosaren hitzak dira: *“nahiago dut demokrazia kaskar bat utopia baino”*.

Hala diote, baina kritika horrek iruzur handia du barnean. Utopia komunista ez da soilki joera absolutistetan neurtu behar; utopia horrekin lotzen dira sistema kritikatzeko eta sistema borrokatzeko baloreak, eta historian zehar bezala egun ere baliagarriak direla esatea egia historikoaren beste partea da. Esan nahi dizut, komunismoaren baitan badela alde batetik sistema estalinistaren errepresioa, baina baita jende askoren engaiamendu askatzailea. Diktaduren kontra, kolonialismoaren kontra, langileen eskubideen alde, berdintasunaren alde eta beste eskubide eta justiziazko egoera asko eta askoren alde borrokatu dute burkide iraultzaileek. Alta, boterearen aurkako borrokan sartua da, erauztezina, boterea kontrolatzeko grina. Hasieratik, libertartzaileek esana zuten inoiz taldetxo batek komunismoaren izenean boterea hartuko balu, taldetxo

gutziz ahaltsuaren logikak gaindituko ziola komunismoaren izpirituari. Hori izan da betiko kritika libertatzailea. Hau da, estalinismoa ez dela utopiaren ondorio zuzena, baizik eta betiko beste errealitate baten agerpena: botererako grina, eta beraren eragina komunismoaren baitan. Ezetz esaten baduzu, borroka askatzailerik ez dela izan utopistengan, utopiak diktadura odoltsua ekartzeko baizik ez duela balio, egia historikoa uka-tzen duzu. Eta hori ez da batere zuzena.

Baina, haratago joanik, zera esaten baduzu: *“utopia beti odoltsua da eta, beraz, egon gaitezen gauden lekuan”*, hau da, indarrean dagoen sisteman, edo injustiziari ematen diozu berme zuzena, edo horren ezkutatzeko beste utopia batean erortzen zara: merkatu-ekonomiaren inguruko utopia demokratikoan. Batzuek esan dute neoliberalismoa ere utopia dela, erran nahi baita, neoliberalismoaren bidez, merkatuaren bidez eta demokraziaren bidez, mundu osoari emango zaiola nahikoa garapen, nahikoa onura sozial, zoriona, askatasuna eta besteak erdiesteko... Pentsamendu hori ez dakit zer den, ametsa, utopia, edo engainu zini-ko hutsa... Inon eta inoiz izan daitekeen sistematik onena oraingoa dela diozunean, utopiari leporatzen diozun erru berean erortzen zara: absolutismoan eta eskizofrenian; ezin uki daitekeen sistema proposatzen baituzu, ustez eta irudikatzen duzuna errealitatea baino erreala-goia dela. Baina gure oharrak gorabehera, zuk aipatu kritika horrek indar handia du, gaur egun iraultzaren aurkako eraso intelektual nagusia da, eta aurre egin behar zaio.

• Nola egin daiteke horri aurre?

Inolaz ere ez utopia totalitarioaren itzulera amestuz, *“egunen batean armada gorriak berriz boterea hartzen badu, ikusiko dute”* bezalakoak esanez. Bada hori amesten duenik, eta parke jurasikoan hobeto leudeke errealitatean baino. Egiatan, komunismoaren krisiarekin eta Berlingo harresiaren erorketarekin hamar urtez egon gara burua lurpean, eta orain poliki-poliki burua altxatzen ari gara. Alderdi politiko iraultzaileen lekua ordezkatzeko mugimendu sozialek huts egin bazuten ere, mun-

dializazioaren kontrako mugimenduak aurrera doaz orain. Baina ezin atera dezakegu burua antzinako alderdi bakarreko boterea aldarrikatzeke: hori gauditua dago, bukatua. Gaurko mundializazioaren kontrako mugimendua askoz zabalagoa da, eta aniztasuna du eduki: politika sozialdemokrata zentzu txarrean, politika iraultzaile postmoderno-*-esaterako*, Marcos komandante-ordearen diskurtsu politikoa-, langileria historikoaren baloreei lotutako politika errealista -Lula, adibidez, esperantza handia da jende askorentzat; han ere biltzen dira boterera itzultzeko esperantzarekin diren errebote egindako marxistak, bai eta ameslari okituen tribuak. Denak biltzeko, formula guztiz eginen uka-zioa eta molde desberdinen errespetua ditugu. Eta ondo da. Aniztasuna oso ondo dago. Baina bakoitzari bere lekua eman behar zaio eta es-talinismo berpiztua lerratze sozialdemokrata bezain desegokia da.

“Mundializazioaren kontrako mugimenduan denen batzeko falta dena eta indarrean dagoen kapitalismoari kontra-aukera eskaintzeko ikuspegi orokor bat da”

• **Nola uztartzen dira utopia eta mundializazioaren kontrako mugimenduak?**

Berriz diotsut: mundializazioaren kontrako mugimenduari batasuna, gaur egunean, utopiak ematen dio. Alegia, pobreen alde eta aberatsen kontra borrokatu behar dela, justizia bilatu behar dela, berdintasuna eta osasuna bermatu behar direla. Horietan sinesteak ematen dio batasuna. Utopiaren balore horiek beste kontzeptu batzuekin lotzen dira gero: naturarekiko errespetua, garapenaren kontrako jarrera errealista, hau da, ekologia politikoaren utopia eta nahikundeekin; badira ere herri indigenak, langabetuak eta beste. Egia da, ez dago batere batasunik borroka-moldeen artean. Herri indigenek badute berea, langabetuek berea, sistemaren aurkako erradikalek beste bat... Eta denen batzeko falta dena, indarrean dagoen kapitalismoari kontra-aukera eskaintzeko zera da, ikuspegi orokor bat. Mundializa-

zioaren aurkako mugimenduak sistemaren desordenua borrokatzen du, eta desordenu handiak badira...

- **Baina ez sistema beraren kontra...**

... baina ez ordenuaren beraren kontra. Ordenuaren kontra borrokatzeko aukera orokor bat eskaini behar duzu. Horrelakorik ez dago, eta normala da. XIX. mendeko ikuspegi iraultzaileak ez ziren egun batetik bestera sortu; jende askoren esperientzia eta borroka behar izan zen aukera orokor bat eskaini ahal izateko. Behar bada, totalitarismoen gorabeherak ikusita, aukera orokor-orokor bat zentzu estuan eskaintzea ez da komeni, baina aukera bateratzaile bat bila daiteke eta agian baita aurkitu ere. Bateratzailea, bertan lotuko baitira utopiaren baloreak, eta aukera orokor horrek aniztasunaren hatsarrea errespetatu beharko du, hala nola, lekuan lekuko autonomiak. Jendartea kudeatzeko ereduak Euskal Herrian edo Chiapasen ezin da bera izan. Ideia bat emateko edukiaren aldetik, zera aipatuko nuke: utopien oinarri ekonomikoa ez da gehiago bilatu behar garapenean, ez eta garapen jasangarri famatua. Azken horrek ere ez du jada zentzurik. Ikasi beharko dugu poliiki-poliiki zangoa azeleragailutik altxatzen eta beste modu batez ekoizten eta kontsumitzen, lurraren gaitasunak errespetatzeko, ekoizpen-sistemaren gardentasuna bermatzeko eta jendearen parte hartzea bultzatzeko. Hori guztia egiten bada, jendartea kudeatzeko modu desberdinak ere sortuko dira, elkarzaleagoak.

“Jabetu behar dugu, munduaren dialektikan, gure askatasunaren nahiak beti aurkituko duela aurrean guk bestea zanpatzeko dugun gaitasuna”

- **Bada mugimendu edo ideia bat aipagarri egin zaizuna, diskurtso berriren bat...?**

Hain zuzen, garapenaren kontrako ideia horiek asko gustatu zaizkit. Hazkundearen kontrako bidea dira. Uste dut marxismo zientifikoa-ren oinarri absolutistekin hausten dutela eta guk garai batean geni-

tuen utopia libertatzaileekin bat datozela: mundua, batasun txikien konfederakundea. Bizimoduaren kudeaketak lekuan lekukoa behar du izan, berdin produkzioak. Autarkia orokorra ez da zentzuzkoa, baina besteekin harreman ekonomikoak izateko ondo jarri behar dira hankak, nor bere lekuan, harreman horiek izan daitezela benetan betegarri alde guztientzat. Garapenaren kontrako mugimenduak bado bere zentzua. Baina, zentzu politikoan ere ikuspegi orokor bat eskas dugu denok konfederatzeko.

- **Aukera orokor hori zer izan daitekeen zantzurik ba al duzu?**

Ni jada hasi naiz ikusiko ez ditudan gauzen zerrenda idazten, eta aukera iraultzaile orokorra, gaurko mundurako egokia... badut esperantza gure ondorengoek ikusiko dutela, baina nik... Halere, alternatiba hori ez da arazoz eta kontraesanez libre izanen. Lehen esan dizut, jabetu behar dugu munduaren dialektikan gure askatasunaren nahiak beti aurkituko duela aurrean guk bestea zanpatzeko dugun gaitasuna. Beti biziko gara borroka horrekin.

- **Bortxakeriak lekurik ba al du?**

Sistema aldatzeko, bai jakina. Bortxakeria guztiz zilegi da zanpatua dagoenarentzat eta beharrezko izan daiteke sistemak ezartzen dituen oztopoak kentzeko. Beraz zilegi, beti da zilegi; erabili, beharrezko den une orotan erabili behar.

- **Zilegitasuna zerk ematen dio?**

Zapalkuntzaren kontrako nahikariak. Askatasunaren aldeko borrokan beti da zilegi indarra erabiltzea. Hori garbi. Bortxakeria, eta bortxakeriak suposatzen duena, jendearen hiltzea alegia, zilegi dira zapalkuntzaren kontra. Hortaz ez dut inongo dudarik.

- **Beharrezkotasuna nola neurtzen da?**

Zilegi izateak ez du esan nahi nolanahi, nonahi erabiltzea... Bortxa-

keriaren erabilerak izan behar ditu lege moral eta estrategiko oso zehatzak. Eta hori da nire ikusmoldearen bigarren parte, lehenetik ezin berezitua, marxismoaren eta anarkismoaren parte askatzailearekin lotzen dena. Bortxakeria aplikatu behar da egoera konkretuetan, ondo neurtuta merezi duen edo ez. Lege estrategiko eta moral oso estuen barnean erabili behar da. Dena elkarrekin doa. Jendeak pixka bat ezagutuko balitu historia eta literatura, konturatuko litzateke zer den iraultzaile batentzat bortxaren erabiltzea. Ez da esatea *“arrazoia dugu eta edozer eginik ere gure arrazoiak dena justifikatzen du”*. Ez batere. Lehen aipatu dizut munduaren ikuspegi dialetikoa: utopia eta kontra-utopia. Bortxaren zilegitasuna eta indarraren erabilera lotuak dira, eta erabileran etika eta zilegitasuna gordetzeko legeak estuak dira oso eta askotan bidea nahiko meharra.

“Fikzio-zientzian gero eta gehiago baztertzen dira humanismo kutsuko ametsak”

• **Zientzia-fikzioak zer paper jokatu du utopia eta kontra-utopiaren dialektika horretan?**

Ez dakit jokatu duen edo joka arazi dioten, baina lotuak daudela bai. Literatura, zinema, sorkuntzak oro oso arin lotu ziren, denak zentzu berean. Esaterako, Huxley-ren liburua atera baino lehentxeago haren aurrendari izan daitekeen filme bat egin zen: Fritz Lang-en *Metro-polis*; bide beretik egin zuen gero berea Chaplin-ek, *Garai modernoak*. Biak eta Huxley-rena aski segidan etorri ziren. Gaurko egunetara etorrita, bada zer pentsatu ematen duen kontu bat: zientzia-fikzioan, kontra-utopiak hartu diola gaina utopiari. Zientzia-fikzioan gero eta gehiago baztertzen dira humanismo kutsuko ametsak, hau da, robotek eta garapenak ekarriko digutela mundu zoriontsuago bat, askatasunarena, aurkikuntzena. Bada horrelako zerbait, baina gutxi: oso urrunean gertatzen diren istorioetan aurkitzen ahal dira gure gaztaro ongi miretsgarriak. Berriz, munduaren etorkizun hurbilena ai-

patzen bada, usu hondamendiaren erresuma erakusten digute, eta hor boterea da nagusi bere gordinean; axola etiko gutxiko borrokalarrien istorioak dira. Ez dira batere agertzen aipatutako balore humanista historikoak. Eredu hori bai literaturan eta bai zineman ikusten da oso nabarmen, komikigintza ez aipatzeko. Frantzian, adibidez, Druillet, Enki Bilal, Varenne edo Liberatore-ren albumak beldurgarriak dira. Hor ere, aurrera doa kontra-utopiaren gailentzea. Kontra-utopia utopiari gailendu zaio bai errealitatean eta bai fikzioan.

• **Eta hori sintoma bat da? Errealitatearen isla? Edo aurrekari bat?**

Egia esan, ez dakit. Literaturak badu askatasuna, bere barne-legeak baditu. Genero batetan arrakasta duenak kumeak sortzen ditu. Baina, bai, uste dut egin daitekeela lotura bizi dugun egoera bikoitzarekin: utopia iraultzailearen krisia eta neoliberalismoaren ezartze kulturala. Ez dago utopia humanistarekiko sinesmenik. Bada amorrua neoliberalismoaren aurka, eta esperantzarik gabeko erresuma bortitzak aurkeztean fikzioak kontra-utopiaren bidea hobesten du. Esperantzarako zirrikituak badira hala ere. Bada zientzia-fizikiozko literatura-mota bat niri asko gustatzen zaidana, munduak edo unibertsoak deskribatzen dituzten liburu eta sail zabalak, Tolkien, Robert Jordan edo Ted Williams-en ildotik. Horien fikzioetan ikusten da hondamendia badatorrela, apokalipsiaren arriskuan gaudela, baina badira balore humanistak dituzten heroiak eta heroi horiek oso gizatiarrak eta sentiberak dira, eta borrokatzen dute irabazteko esperantza dutelako. Nirea bezalako adiurre ahul eta erromantikoentzat horrelako liburuak oso ondo daude. Tolkien, esaterako, hiruzpalau aldiz irakurri dut gutxienez.

• **Euskal literaturan zientzia-fikzioa gehiago landu da iparraldean, ez dakit frantses kulturaren eragina denez...**

Gauza gutxi dugu, egia da. Iparraldean, *Maiatz* taldearen ondoan, Mayi Pelloten liburuak baditugu. Frantses kulturaren erdian bizi ga-

ra eta haren eragina izan liteke... Dena den eta zientzia-fikzioa bere horretan ez izanagatik, lehen aipatu dudan fikziozko unibertsoen artean gehien hunkitu nauena *Otto Pette* izan da. Ez da zientzia-fikzioa baina unibertso oso bat proposatzen du, oso mundutarra egia esan. Otto Pette eleberrian boterearen gain-presentzia astuna da, eta gatazkan ditugun arazo eta baloreak aipatzen ditu: amodioa, beldu-rra, erlijioa...

“1980an agerikoa zena, gaur egungo Euskal Herriko batzuentzat ez da oraindik batere agerikoa”

• ***Euskadi 1984 idatzi zenuen, politika-literatura generoa urratuz...***

Hori, azken finean, errazkeria bat izan zen nire aldetik. 70eko hamarkadaren bukaeran garbi ikusten nuen gure gaztaroko estrategia iraultzaileek porrot eginda zeudela European eta segida garbirik ez zutela. Euskal Herriak beste erritmo bat izan du, areago garai hartan, frankismoaren krisiak eta horrekin lotutako mugimendu politiko eta herrikoiak atzeratu egin baitzuten gure ezker iraultzailearen krisia. Krisi hori derrigor etorriko zela nabarmena zen eta erraza izan nuen hori aurreratzea. Hala ere, kezka garria da: nire ustez 1980an agerikoa zena, gaur egungo Euskal Herriko batzuentzat ez dela oraindik batere agerikoa; batzuek badute historiaren ulermen poliziakoa, pentsatzen dute antzinako molde iraultzaileak hemen garatzen ez badira errepresio polizialarengatik dela soilki, eta ez jendartearen aldatu delako, mundua aldatu delako eta balore iraultzaileak mundu osoan zehar aldatu egin direlako. Pixka bat etsigarria da baina, bo, kontra-utopiaren garaian gaude eta...

BIBLIOGRAFIA

- Lopez Adan, Emilio, "Beltza" (1974) *El nacionalismo vasco*. Mugalde, Hendaia.
- Lopez Adan, Emilio, "Beltza" (1976) *Nacionalismo vasco y clases sociales*. Txertoa, Donostia.
- Lopez Adan, Emilio, "Beltza" (1974) *Nacionalismo vasco en el exilio* (1977). Txertoa.
- Lopez Adan, Emilio, "Beltza" (1977) "Opresión nacional y lucha de clases en Euskadi" *Revista Mensual - Monthly Review* vol. 1/6.
- Lopez Adan, Emilio, "Beltza" (1978) "Ipar Euskal Herria: 150 urte historiarik gabe (1789-1934)". Saioak. 2.
- Lopez Adan, Emilio, "Beltza" (1978) *Mediación y alienación*. Txertoa, Donostia.
- Lopez Adan, Emilio, "Beltza" (1979) *Euskadi 1984*. Txertoa, Donostia.
- Lopez Adan, Emilio, "Beltza" (1980) "Nazioa eta estatua". Zehatz 3/1
- Lopez Adan, Emilio, "Beltza" (1982) *Bortu goretan lainope*. Haranburu, Donostia.
- Lopez Adan, Emilio, "Beltza" (1984) *Zazpigarren alaba*. Txertoa, Donostia.
- Lopez Adan, Emilio, "Beltza" (1984) "Mark Legasserekin Eiren", in *Concerto guerriero pour un pays qui n'existe pas*. Marc Legasse. Maiatz.
- Lopez Adan, Emilio, "Beltza" (1984) "Marx eta Iraultza". Jakin. 30.
- Lopez Adan, Emilio, "Beltza" (1984) "Konflikto eta komunikazio: abertzaleen arazoa", in F. Reinares (arg.), *Violencia y política en Euskadi*. Desclee de Brouwer, Bilbo.
- Lopez Adan, Emilio, "Beltza" (1985) "Euskal Herria. (Kontra)projektu bat" in Joseba Intxausti (arg.), *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmo*. Lan Kide Aurrezkoa.
- Lopez Adan, Emilio, "Beltza" (1988) "1968-1988 : Ezkerra Europan", Jakin. 47.
- Lopez Adan, Emilio eta Jiménez de Aberasturi, J.C. (1989) *Organizaciones, sindicatos y partidos políticos ante la transición: Euskadi 1976*. Eusko Ikaskuntza.
- Lopez Adan, Emilio (1992) "Trantsizioaldiari buruz". Uztaro. 4.
- Lopez Adan, Emilio (1994) "Nazionalismoaren edukin etikoa atzemangarria da?", Uztaro.11.
- Lopez Adan, Emilio (1996) "Rikardo Arregiren garaiko mogimendu politiko-sozialak", in *Rikardo Arregi, gizona eta garaia*. Larramendi Kultur Bazkuna.
- Lopez Adan, Emilio (1997) "Duela 25 urte: subertsiorako unibertsitatea", Uztaro 23.
- Lopez Adan, Emilio (1997) "Autonomiaren historiaz", in J. Arrizabalaga eta A. Murias (argg.). *Autonomoekin solasean*. Txalaparta, Tafalla.
- Lopez Adan, Emilio, "Beltza" (1998) *Terrorismoa eta biolentzia iraultzailea*. Likiniano, Bilbo. (Itzulpena : *Terrorismo y violencia revolucionaria* (1999). Likiniano, Bilbo)
- Lopez Adan, Emilio (1999) "Txillardegiren pentsaera politikoa". Jakin. 114.
- Lopez Adan, Emilio (2000) "Marc Légasseren lan idatziak", in *Le basque récalcitrant et le cog gaulois*, M. Légasse. Gatuzain, Baiona.

Liburu-iruzkinak



Joanes Urkixo

Ana Urkiza

William Gibson: *Neuromancer*.
Minotauro, Barcelona, 1989

eta

Philip K. Dick: *Minority Report y otras historias*.
Ediciones B., Barcelona, 2002

Neuromancer

"Portuan gaindi zerua kanale hil batean sintonizatutako telebista- pantailaren kolorekoa zen". Honelako hasierak argi adierazten du zer nolako tonu eta girotan murgiltzen den *Neuromancer* (1984), William Gibson-en aurreneko eleberria, ordura arteko zientzia-fikzioaren zutabeak astindu zituen eta "cyberpunk" ustezko mugimenduaren lan aitzindaria.

William Gibson (1948, South Carolina, EEBB), beste zenbait libururen egilea ere bada: *Burning Chrome* (Kromoa erretzen); *Count Zero* (Zero Kondea); *Mona Lisa Overdrive*; *The Difference Engine* (Ezberdintasun-Gailua, Bruce Sterling-ekin idatzia); *Virtual Light* (Argi Birtuala); *Idoru*; *All Tomorrow's Parties* (Biharko Eguneko Festa Guztiak). *Neuromancer* argitara eman orduko istorio labur bakan batzuk bazituen emanak ezagutzera, haietan nekez igar zitekeen eleberrian bilakatu zuen estiloa. Honen agerpenak, azken batean, hain sortu zuen zirra handia non askok obsoletotzat aldarrikatu zuten ordura arteko zientzia-fikzioa.

Hollywood-eko joera nagusiari jarraituz ahaleginak egin dira *Neuromancer* filmetara egokitzeke, inoiz gauzatu ez diren arren: Gibson-

en beraren istorio labur batek (*Johnny Mnemonic*) aurea hartu zion, eta honen erdipurdiko emaitzek haren etorkizuna baldintzatu zuten.

Case, protagonista, *computer jockey*-a da (kontzeptu hau gaztelera-ra "bakero" itzuli bazen ere). Alegia, burmuinean txertatuta dauzkan jostura elektronikoen bidez ordenagailuarekin lotura zuzena egiteko gai da, sistemen barruan sartzeko, eta orobat haietan artxibatuta dagoen informazioaz jabetzeko. Tokyoko auzo dekadente eta itogarri batean bizi delarik programa piratekin salerosketak eginez, bezero misterioitsu batek kontratatu eginen du Inteligentzia Artifizial baten oinarritzko bankuetara sar dadin. Eginkizun horretan hauexek izango ditu taldekideak: Molly, begietan ispiluak eta hazkazaletan labanak txertatuta dauzkan neska borrokaria; Riviera, bere gogoaren bidez edozein irudi gauzatu eta gorpuzteko ahalmena daukan tipo nardagarria; eta Armitage, gogoaren gehiena ezabatuta daukana. Azkenean, euren nagusi misterioitsua Inteligentzia Artifiziala bera -Wintermute deritzana- suertatuko da, bere buruaz kontzientzia hartu eta gizakiek ezarri dioten presondegi digitaletik ihes egiteko asmotan dabilena.

Gibson-ek deskribatzen duen mundu itun lazgarrian Japonia gutizia eta nahikeria guztiak bere baitan hartzen dituen neonezko oiha da, Estatu Batuak hirigune neurrigabe bakarra izateraino handitu dira eta Europako eremu handi bat, berriz, zabortege atomiko bihurtuta dago. Bizimodua mikroprozesagailu eta txertaketa kirurgikoek menperatzen dute, eta gauza ororen gainetik merkataritza hedatzen da, mota guztietakoa, muga guztietan barrena, enpresa multinazionalen eskutik. Mundu alienatu honetako pertsonaiak bide baten bila dabilta, dela iraganari, dela etorkizunari edo oraingoari ihes egiteko, eta aurkitzen dutena teknologiaren eta drogen arteko nahasketa da.

Neuromancer idatzi zuenean, Willian Gibson-ek tutik ere ez zekien informatikari buruz. Areago, ez zeukan ordenagailurik. Egia esateko,

1984 hartan ordenagailu pertsonalak sortu berriak ziren eta ez zeukaten disko gogorrik, urteak falta ziren Internet sortzeko eta munduak ez zekien pirata informatikoen berri. Hala eta guztiz ere, Gibson giro sinesgarri bat osatzeko moldatu zen, hartarako lexiko berri oso bat asmatuz: arestian aipatutako "computer jockey" hartaz gainera, baditugu "interface", "jack in", "flatline" eta gerora hacker eta interneteroen artean arrakasta handia izan zuten beste asko, deskribapen zehatzekin batera: birus-programa, errealitate birtuala, kontsola, izotzorma... baina denen artean, "digital matrix" edo ziberespazioaren asmakuntza -bai izen eta kontzeptuarena- nabarmentzen da: *giza sistemako ordenagailu guztietako bankuetatik erauzitako datuen adierazpen grafikoa. Konplexitate irudiezina. Argizko ildoak gogoaren ez-espazioan lerrokatuak, datu mordoak eta konstelazioak*. Poesiaz hornitutako estiloa, ez da beti oso ondo ulertzen pertsonaiek gai informatikoez dihardutenean, eta hau gutxi balitz, kontzeptu batzuk inozo samarrak dira gaur egungo ezagutzaren ikuspegitik. Eta, hala ere, *Neuromancer* mundu mailako arrakasta izan zen, argitara eman zen garaian dekadentzia urbanoa, segurtasunik eza eta ustelkeria nonahi goraka zihoazelarik, askorentzat profeziaren kategoria hartu zuelako.

Espero zitekeen bezala, William Gibson-en eleberrian zientzia-fikziozile handi batzuren islada ageri da: Alfred Bester, Samuel R. Delany... Horietaz gainera, zientzia-fikzioarengandik nahiko gertu dauden William S. Burroughs-en zenbait lanena, besteak beste *Nova Express* (1964). Ez da makala Philip K. Dick-i ere zor diona, batez ere egile honek landu zuen benetako eta ustezko errealitateen arteko hausnarketatik gertu-gertu baitago Gibson-en errealitate birtuala. Beste eragin nabarmen bat eleberri beltzetik datorkio. Batean batek agerian utzi zuenez, *Neuromancer*-en narratzailea Raymond Chandler-en *The Big Sleep* eta besteren senide hurbila da. Areago, eleberriaren egitura "hard boiled" tankerako eleberri beltzaren modura antolatuta dago, intriga puntu bat ere badaukala. Baina, hauen guztien

gainetik, Ridley Scott-ek *Blade Runner* (1983) filmean sortu zuen giro itogarri eta etsigarriak azterna sakon eta indartsua laga zuen orduantxe idazten hasita zegoen *Neuromancer*-en.

Eleberrian deskribatzen diren giroek eta pertsonaiek, hein batean, 80ko hamarkadako punkien jokamoldea gogorarazten dutelakoan, arin asmatu zuen norbaitek "cyberpunk" etiketa Gibson-en lana ezezik beraren estiloari atxeki zitzaizkion beste idazleena deskribatzeko. Gibson-ek berak inongo cyberpunk mugimenduren esistentzia uk-tu bazuen ere, beraren jarraitzailerik sutsuenek zientzia-fikzio mota berri baten sorrera aldarri egin zuten, generoaren abangoardia iraultzailearen tokia hartu eta ordura artekoa zaharkituta uzten omen zuena. Betiko moduan, honelako baieztapen kategorikoak kontuz eta arretaz hartu behar dira eta neurrian aztertu: alde batetik, eleberri beltzaren kontaera-tenikez baliatzen den idazle bat ezin liteke iraultzailea denik esan; areago, 60ko hamarkadako zientzia-fikzioaren "new wave" korrante esperimentalaren aldean, *Neuromancer* kontserbatzailetzat har gezake.

Gibson-en asmoak, ordea, ez zihoazen ildo hartatik. Hasteko, eta berberak inoiz aitortu duenez, nahiko nazkatuta zegoen zientzia-fikzioaren yankizentrismo orokorrarekin: etorkizunak, bihar-koaren itxaropenak, Estatu Batuen izena zeraman, eta estatu honek beste ezeinek ezin zuen gizateria arriskuetatik salbatu. Hori dela eta, amerikar zientzia-fikzioan lehenengo aldiz, *Neuromancer*-ek deskribatzen duen munduan Estatu Batuak ez dira ahaltsuak, ez munduaren agintariak, entitate politiko moduan esistitzen direnik ere ezin esan daiteke eleberria irakurrita. Gure egunetatik aurrera gauzak beste era batera bilakatu direla ematen du eta itxuren arabera japoniar teknologiak eta germaniarren merkataritza-ahalmenak menpean hartuta daukate mundua.

Gibson-en aurreko beste joera amankomuna arriskuak eta mehatxuak beti kanpotik etortzen zirela baieztatzea izaten zen, gehien bat kanpo-espaziotik alegia. Ezta Philip K. Dick bezalako egile orijinalak ere ez zuten muga hau zeharo gainditu. Gibson-ek, eta hartara ondorengo "cyberpunk" idazleek ere, deskribatzen duen munduak bere baitan dauka istorioaren gatazka nagusia; *Neuromancer*-ek ez digu azaltzen Lurra zerekin topatuko den, Lurra zer bihurtuko den baizik. Hori ordura arte zientzia-fikzioan salbuespena besterik ez bazen ere, gerora abiapuntu orokorra izango zen cyberpunk lanetan ezezik beste hainbatetan ere.

Esanda dagoen bezala, Gibson-ek ez zuen korrante berri bat sortzeko asmorik, zer esanik ez "cyberpunk" etiketaren pean. Bera ez baitzen punkia, idatzi ere ez zuen punkientzat idazten: hauek ez zuten, alde batetik, fikzionalan askorik irakurtzen, eta bestetik, beraien mundutxo eta bizimodua askoz hobeto azalduta zeuden "Max Headroom" telesailean eta Heavy Metal komi-filmetan. Ez, *Neuromancer*-en irakurleria nagusia, porrokatua, hacker, cracker, pirata eta bukanero informatikoeak osatu zuten, informaziobide berrien kontrolari desafio egiten zioten orok. Hauentzat, Blade Runner filmearekin batera, gure garaiko mitologia adierazgarrienetako bat osatzen du *Neuromancer* eleberriak. Eta, filmean Roy Batty erreplikatzaileak bezala, Wintermute eleberriaren pertsonaia birtualak erraz errepika zezakeen honako agurra:

"Zuek gizakiok sinetsiko ez zenuketena ikusita nago ni. Suak hartutako ontziak erasoan Orion-go bizkarretik haragoan. Ikusiak ditut C-izpiak ilunpean ñir-ñirka Tannhauser ataritik hurbil. Une horiek guztiak denboran galduko dira, malkoak euritan bezala".

Minority Report y otras historias

Spielberg-en filmearen etorrera iragarri zuen ekinaldi mediatikoaren magalean, eta haren estreinaldiarekin batera, Gollanz EEBBetako argitaletxeak izen bereko bilduma eman zuen argitara, *Minority Report* ezezik beste zortzi istorio labur bilduz.

Bere bizitzan berrogei bat eleberri eta ehundik gora istorio labur idatzi bazituen ere, Philip K. Dick (1928-1982) beti izan zen bigarren edo hirugarren mailako idazlea, hasiera-hasierako *The man in the high castle* (1962) eleberriak eman zion saria alde batera utzita. Hil baino gutxi lehenago *Blade Runner* filmearen aurremuntaketa bat ikusteko aukera izan zuen, ez ordea filmeak gerora lortuko zuen arrakasta, eta are gutxiago arrakasta honek bere lanen gainera erakarriko zuen arreta handia. Zeren, 1983 urtetik aurrera, Dick idazle ospetsu bihurtu baitzen, irakurle arruntaren mirespena ezezik zientzia-fikzio idazle handi askorena ere lortuz. Generoko munstro sakratuek leku printzipala egiten diote euren egile gogokoenen artean, sarri askotan, yankitar txotxolokeria tipikoa dela bide, “idazle garaikiderik onena” edo areago “EEBBetako garai guztietako eleberrigilerik onena” dela baieztatuz. Henry James, William Faulkner edo Norman Mailer gogoratzea besterik ez dago halako handikeriei barre egiteko.

Hala ere, Philip K. Dick idazle ona da, distiratsua une batzuetan. Zalantzarik gabe gutxietsia eta gaizki ulertua izan zen beraren garaian, oso urrun zegoelako garaiko zientzia-fikzio generoan indarrean zegoen estilo zientifiko zehatz eta perfektutik, zer esanik ez space-opera edo espazioko abenturetatik. Bizitza osoan pairatu behar izan zuen txirotasuna bere lanetako askotan isladatzen da, ondo landu gabe bukatu behar izan balitu moduan. Baina, eleberri edo istorio labur, guztiak irudimen neurrigabe batez markatuta daude, non errealitatearen eta ilusioaren arteko dikotomia, bere aldaki guztiekin,

ezinbesteko gai moduan agertzen den. *Martian time-slip* (1974) eleberraren pertsonaia batek adierazten duenez, “bizitzaren zergatikoa ez badugu ezagutzen, benetako izaera bizidunontzat agerian ez badago, nork esan dezake eskizofrenikoak oker daudela?” Bestela esateko: bizi dugun errealitatea, benetakoa ote da? Nola jakin dezakegu ez dela gure gogoa-ren proiektzio edo islada bat? Planteamendu orokor honetatik abiatuta, normaltzat hartu behar dugu Dick-en lanak geroago harrera hobe hartu izana, 80ko hamarkada erditik aurrera, droga ezberdinen errealitate paraleloen ugaltzeaz gainera errealitate zibernetikoa (beranduago “birtuala”) sortu ondoren. Geroko hainbat idazlek nolako edo halako eragina zor diote Philip K. Dick-i, dela estiloan, ikuspuntuan edo erabilitako argudioetan, haietako nabarmenen artean *cyberpunk* etiketapean lerrokatu ziren idazleak daudelarik.

Dick-en istorio labur guztiak, ehun bat inguru, bost liburukitan argitaratu ziren 1987 urtetik 1990 urtera bitartean (Espainian Martinez Roca argitaletxearen eskutik) eta hasieran nioen moduan, argitalpen honek merkatu-helburu garbia zuela esan dezakegu, Spielberg-en ekarriari atarramendu bat ateratu nahi izatea alegia, ez baita kasualitate hutsa *Minority Report* aipatutakoaz gain Hollywood-ek zinemara eramane zituen beste istorioak ere bertan aurkitzea: *We can remember it for you wholesale*, hau da, Handizka gogoratu ahal dugu zuretzat (1990ko Paul Verhoeven-en “Total Recall” filmea, Arnold Schwarzenegger-ekin); *Second Variety* edo *Bigarren Aldakia* (1996ko Christian Duguay-ren *Screamers*, Peter Weller protagonista duela); *Imposter* izenekoa, hots, *Iruzurtia*, (Gary Fleder-ek 2002an eginia, Gary Sinise-ekin). Hauexek, “Blade Runner” ospetsuarekin batera (*Do androids dream of electric sheep?* eleberrian oinarritua), Dick-en eta zinemaren arteko harremana osatzen dute.

Liburu honetan bildutako istorioak 1953tik 1969ra bitartean idatziak dira, eta guztietan aurkitu ahal ditugu Dick-en gai errepikako-

rrak: etorkizuna ez dago astro-ontzi distiratsuz beterik, teknologiak ez dio gizateriari zoriona ekarri; alderantziz, Bush administrazioak diseinatutako gizarte itogarri eta alienagarriaren itxura osoa dauka. Bestalde, istoriook kronologikoki irakurri ahala (liburuan ez baitaude kronologikoki sailkatuta), gero eta zailagoa suertatzen da egiazkoa dena irrealarenekin alderatzea, fikziozko pertsonaiantzat ezezik irakurlearentzat ere bai.

Minority Report filmea ikusi duenak alde handia aurkituko du 1956 urteko istorioaren aldean: 2054 urtean, "Precrime" deritzan polizia delitua egin baino lehen harrapatzen ditu gaizkilegaiak, "precog" izeneko hiru igarle lerdoren aurrikuspenetan oinarrituta. Halakoan, Precrime-ko komisario nagusia den John Anderton-ek bere burua hiltzailegaitzat aurkitzen du precog horien txosten batean, eta ihesiarri eman beharrean aurkitzen da, libre iraun bitartean horren ostean dagoen konspirazioa argitzeko asmoz. Honaino, beraz, Spielberg-ek hain modu bikainean egokitutako abiapuntua daukagu. Hemendik aurrera, berriz, bilbeak bata bestetik urrutiratu doaz: istorioan, Anderton-ek ez du inoiz semerik galdu, ez dago bananduta, ez dauka Lamas Burgess izeneko nagusi bat (zein, azken batean, filmeko gaizkilea izango den)...

Dick-ek berak esan zuenez, istorio laburren eta eleberrien arteko aldea zera da, lehenak hilketa bat azaltzen digularik, bigarrenak hiltzaileari buruz hitz egiten digula, eta horixe bera gertatzen da, segur aski, istorio laburra 100 minutuko filme bihurtzerakoan. Spielberg-ek heroi sinpatetiko bat behar zuen, eta hartara iragan tragiko bat erantsi zion; gero, bilbe osoa detektibe-intriga bihurtu zuen precog izeneko betebeharra gutxietsiz, non amaieran gaizkileak bere larrutik ordaindu, Precrime sistema deseraikita gertatu eta Anderton-en emaztea, Spielberg-en joera judu-mesianiko peto-petoaren arabera, haurdun agertzen den (azken hau, benetan, nazka ematekoa da).

Kontaeraren bilbearen funtsa precog delakoen izaeran datza: hiru izanik, beti gehiengoaren aurrikuspena ontzat ematen da gutxiengotxostena (minority report) bazterrean utziz, eta hain zuzen, honexetaz baliatzen da armadako alderdi bat Precrime desegiteko eta haren erruz galdutako indarra berreskuratzeko. Hementxe daukagu, besteak beste, Philip K. Dick-ek sarritan erabiltzen duen gai bat: militarismoak botere politikoa ordezkatzeko duen joera. Honetaz beste, istorioaren erritmoa etengabean goraka doa, halako batean frenetikoia izateraino, bitartean eta intriga-modu bikainean adierazita dagoen. Amarru ona prestatu dute militarrek: gehiengo-txostena betez gero Anderton eta Precrime desprestigioan eroriko dira, eta gutxiengoari jarraituz gero Precrimek huts egingen du. Ez dago ihesbiderik... Baina militarrek ez dakite inongo gehiengo-txostenik ez dagoena, hirurak baitira gutxiengoak, eta Andertonek, yankitar heroi bakarti azken batean, dena argitu eta inoren laguntzarik gabe deseginen du gaizkileen konplota.

Dena dela, zalantzarria da Dick-ek Precrime sistemaren inguruan daukan ikuspegia: haren funtsezko moraltasun eza kritikatu gabe, ez dela hutsezina esatera mugatzen da, nahiz eta jende arruntak -Andertonek ez bezala- informazio guztiaren berri ez dakien bitartean, sistemak aurrera jarraitu ahal izan oztoporik gabe. Zaila da esatea hori hipokresia ala pesimismoa ote den.

Imposter (Iruzurtia) 1953ko istorioan, egileak bere gairik gogokoena eskaintzen digu: norberetasunaren eta pertzepzioaren muga aldakorrera, alegia. Lurra eta Alpha Centaurii elkarren arteko gerran dabil-tza, eta mundu guztiak uste du Spence Olham iruzurtia dela, centauriitarren espioia... Olham-ek berak izan ezik. Froga nabarmenak aurka dituela, ihes egingen du etsi-etsian bere errugabetasuna frogatzeko asmoz, eta irakurlea, erabat sinetsita, beraren larruan sartuta aurkituko da... harik eta, gako moduko esaldi bat jakin gabe ebaki-

tzean, barruetan daraman bonba lehertu eta Lurraz beste egingen du. Bilbe ausarta eta aldi berean ironiaz betea, errealtatearen oinarri egongaitzak astintzen dituena.

Gai beraren inguruan dihardu *Electric Ant (Inurri elektrikoa)* 1969-ko istorioan. Bertako protagonistak errobota dela aurkitzen du eta honek krisialdi esistentzialera darama. Beraren ikuspegiaren bidez, geuk ere ustekabeko pertzepzioak jasoko ditugu, mundua ez ulertzeaz gainera geure burua ezagutuko ez bagenu bezala.

Second Variety (Bigarren aldakia) 1953ko ipuinean, Lurraren hondarren artean yankitarrek eta errusiarrek gerran dihardutela, lehenek sortutako errobot hiltzaile sorta batek bere burua ugaltzen ikasi du, aldaki gero eta hobeak, giza itxurakoak sortuz, gizaki guztiak akabatu eta haien ordeztu bizitza-mota berri bat ezartzeko asmotan. Teknologiararen erabilera okerraren gaineko hausnarketa goitiarra, tentsio eta ikaraz betea, nahiz eta, une batetik aurrera, bilakaera aurrikusten erraza izan.

1966ko *We can remember it for you wholesale (Handizka gogoratu ahal dugu zuretzat)* delakoak aldiz, zerikusi eskasa du "Total Recall" filmearekin. Hemengo Douglas Quail ez da sekula Martitzera itzuliko, alderantziz, etsaiak gainditu barik hitzarmen batera helduko da berarekin. Zer esanik ez, errealtatearen ikuspegi ezberdinekin osterata ere jolastu ezezik, gizarte kontrolatuaren gaineko pesimismo bera agertzen du hemen Dick-ek: gure etorkizuna inor gutxiren eskuetan dago, baina, hori ez dakigun bitartean, eskaintzen zaigun errealtate-mota eroso da guretzat.

Gainontzeko narrazioek ez dute aurrekoen maila jotzen. *Faith of our fathers (Gure aiten fedea)*, 1967koa, diktadura maoista eta aluzinagarrien arteko nahasketa da, beharbada idatzi zen garaian interes

puntu bat izango zuena. Beste hirurak, *Oh, to be a blobel (Ene, blobela izatea)*, 1964koa; *War Game (Gerra-jokoa)*, 1959koa; *What the dead men say (Hildakoek diotena)*, 1964koa, premisa interesgarrietan oinarritzen dira, aldi berean tonu satiriko -edo umoretsu- gorakoa erdietsita, baina haatik landu gabekoaren akatsak erakusten dituzte.

Bere mailarik onenean, Philip K. Dick-en estiloa azkarra da, beti goraka, irakurlea herrestan eramaten duena. Baina, honek huts egingen duenean, duen irudimen neurrigabearen lilura geratzen zaigu.

Xabier Kintana: *Beste izakia*, Euskal elerti 69.

Donostia, Lur, 1969

eta

Xabier Kintana: *Ukronia*, in *Behin batean*.

Donostia, Lur, 1972

Amets egiteko idatzitako lerroak

70. hamarkadaren hasiera hausturaren irudi dugu, ezbairik gabe. Aurreko hamarkadakoak ditugu, besteak beste, 68ko maiatza, gizakiaren ilargiratzea, askatasun ororen aldarrikapena, eta azken hauekin batera, nazioen (txikiak izanik ere) kontzientzia-hartze filosofiko, moral eta, nola ez, politikoa.

Gurean, aipatu hamarkada, erbesteko mugimenduak ezagutzen hasi zirenekoa izan zen; erbestearen aurkikundeak liluratuta, teoria ezberdinei leku egin zitzaienten tenorea arnastu zen hemen. Ondorioz, errealitateak eta amets irudikatuek elkarren kontra talka egin eta oraindik korritzeke bide gehiegi zuen Euskal Herria kontraesankor bat ezagutu genuen.

Xabier Kintanaren zientzia-fikziozko lanek, bai *Beste izakia* eleberriak, zein *Ukronia* ipuinak, Euskal Herriak 1970 inguruan behar zuen definizioaz, eta batez ere, idealizazio graduaz dihardute.

1. Xabier Kintana. 1969. *Beste izakia*, Euskal Elerti 69. Donostia: Lur.

Xabier Kintanaren *Beste izakia* eleberria, Lur argitaletxeak *Euskal Elerti 69* izeneko liburuan argitaratutako lana da. Liburukote honek,

saiakera, eleberria, antzerkia, poesia eta ipuinak jasotzen ditu eta Gabriel Arestiren ardurapean, honako hauek parte hartu zuten: Juan San Martin, Xabier Kintana, Xalbador Garmendia, Santamaria/Zumalabe/Eizmendi, Gabriel Aresti bera, Ramon Saizarbitoria eta Patri Urkizuk, besteak beste.

1.1. "Ezin da boterearen kontra joan"

Idea hauxe da, preseski, Xabier Kintana Beste izakia eleberriarekin esatera datorkiguna: "Ezin da boterearen kontra joan". Zientzia garatuko badugu ere edo eta gure herriaren izaera zehaztuko, ezin da alde zurretik ezarritako botere estatusaren kontra joan, gizakia baita gaizkiaren esentzia.

Emaitza honetara heltzeko eta irakurleari horren berri emateko, egileak, "a priori" bere egindako ideia hau, bi plano ezberdinetan taxututako eleberrian txertatzen du. Irakurleak, ostera, emaitza horretara heltzeko edo emaitza horren berri emateko, Kintanak zientzia-fikzioa idatzi behar ote zuen galdetuko du.

Zientzia-fikzioa, fantasiako kontaera-generoa da, zeinak, garapen zientifiko edo teknikoa suposatzen duen. Garapen honek, beraz, gaur egun ezagutzen duguna baino garatuagoa dagoen egoera politiko eta soziala suposatzen du baita. Xabier Kintanak, eleberri hau idatzi zuen garaian, garapen politiko eta soziala zuen amets. Eta horretarako, fantasiak baliatzen da, hau da, iragana edo etorkizuna idealizatzeko ahalmenaz batetik, eta itxaropenaz bestetik. Fantasia eta ametsa uztartuz, hortaz, bi planotan banatutako mundu dikotomikoa azaltzen digu Kintanak.

1.2. Beste adimen bat sortu guran

Eleberriaren bilbea edo eleberriari hasieratik amaieraraino eutsiko dion hari nagusia, Joxeren hilketa da. Joxeren hilketarekin hasten baita eleberria eta, 5. kapitulutik aurrera bigarren planora pasatuko bada ere, Joxeren hilketa argituz bukatzen baita. 5. kapitulutik aurrera,

ordea, plano nagusira pasatuko den gaia Nestor Peillorena medikua-
ren ikerketa egitasmoa izanen da, zeinak, 2000 erreginetik gorako er-
launtza erraldoia eraiki duen, gizakiarekin komunikatzeko gai izan-
go den “beste izaki” edo “beste adimen” bat sortu asmoz. Horratx,
beraz, eleberriaren argudioa.

12 kapitulutan banatutako eleberri honek, zientzia-fikzioaren ka-
nonetatik baino areago edaten du antzerki tradizionalaren egitureta-
tik. Kapituluaren hasierak oso deskribatzaileak dira, irudi bukoliko ba-
ten antzekoak, eta berauetan, gertakizunak kokatuko direneko giroa
azaltzen da, ikuslea (kasu honetan irakurlea) leku jakin batean koka-
tzen duelarik, ekintza nagusiak, koadrotik kanpo gertatzen badira
ere. Antzerki tradizionalaren egitura iturri duten hasiera-kapitulu
hauek, arnasa ematen diote, hala ere, eleberriari. Eleberriaren ka-
dentiari eusten diote, eta 7. kapituluaren ondoren azalduko diren
ideia guztientzako korpua egituratuko dute.

Baserri-ingurua, Joxeren bizimodua, eta zientzia-ikerketa, Nestor
Peillorena mediku eta ikertzailearen mundua, kontrajarriko dizkigu
Kintanak, tradizioaren eta aurrerakuntzaren balioak, edo eta pentsa-
mendu kontserbadore eta aurrerakoiaren arteko jauziaz hausnar de-
zagun. Mundu kontrajarri bi horien erakusgarri, adibidez, baserri-
mundu kontserbadoreak dituen balore ohiko eta aldaezinak eta Nes-
torrek bere etxera ekarriko duen Klaudi izeneko amorantearen gora-
beherak ditugu, edo eta Klaudi honek Hans izeneko ikerlari alema-
narekin izango duen maitasun-afera.

1.3. Euskal Herriaren nortasun oinarriez: amets ez utopiez.

7. kapitulua gakoa da *Beste izakia* eleberrian; eleberriak orain artean ze-
karren erritmoa eta gaia zeharo aldatzen du eta aldaketa formalak, edu-
kiz ere aldatzeko parada eskaintzen dio Kintanari. Idazleak, kapitulu ho-
netatik aurrera, eleberria idaztera bultzatu duen gaia azaleratzen du. He-
mentxe sartzen gara beraz liburuaren muinean, kapitulu honetantxe
aurkezten zaizkigularik, Kintanaren benetako buruhaustek:

1. Euskararen indarra Euskal Herrian: ikerlari errusiarraren ahotan Kintanak zera dio, komunismoak ez liokeela kapitalismo-inperialistari bere herri hizkuntza zapaltzen utziko.

2. Euskal Herriaren edertasun berezkoa. Paisaiaz ari da, orohar, Kintana, geografiaz. Euskal Herriko biztanle oro harro egoteko gai bezala aurkezten du egileak.

3. Euskal Herriaren aberastasun ekonomikoa edo industria, eta honi lotuta, ekimen industrialak Euskal Herriari lekarkiokeen nortasun- galera.

Buruhauste hauen aurrean, zientzia-fikziora jotzen du Kintanak, arestian aipatu bezala, zientziaren garapenak garapen politiko eta soziala suposatuko duelakoan, edo bederen, hori amets eginez. 70. hamarkadako literaturak zientzia-fikzioaz egiten duen erabilera, ametsarekin edo nahikundearekin lot genezakeela esan dezakegu, edo are gehiago, utopiaren formulazioarekin.

1.4. Erbestearen tipifikazioa eta marxismoaren ekarpenak

Arestian aipatzen genuen bezala, 70. hamarkada, Euskal Herria bere mugez landa begiratu eta mugitzen hasi zeneko garaia izan zen. Eta kanpotik jasotzen zuen berritasun guztiaren aurrean bere burua kokatu alde, erbestea tipifikatzen saiatu zen. Horren adierazgarri dugu, Xabier Kintanak Nestor Peilloren medikuaren lau lagun ikerlariak (alemana, errusiarra, frantsesa eta amerikarra) deskribatzen dituen modua. Erbestearren izakeraren tipifikazioa egiten du lehenik, eta Euskal Herriko izaerarekin bat ez datozen neurrian, kritikatu egiten ditu: eta hemen, euskal izaera kontserbatzailearen defentsa egiten duela esan genezake (amerikarrak, adibidez, ezkondu gabe oheratzen dira, dibortzioa onartzen dute eta diruaren menpe bizi dira). Komunismoaren alde, ostera, errusiarrak ditu eredu: herriaren izaera errespetatzen duen sistema baten aldekoak dira, eta ideiak sustatzeko lan egiten dute; ez dira diruaren mirabe.

Idea marxistak ere aipagai ditu Kintanak, erleen artean “langileak” bereizten dituenen batetik, eta “kasta” berri baten jaiotza iragaritzen duenean, bestetik. Espezializazioan oinarrituko du Kintanak bereizketa eta aipatuko duen kasta berria, “gudari” kasta izango da. Estatuaren presentzia ere ez da nolanhikoa izanen eleberrian, zeinetan, erleek, ZIUXSS planeta aipatzen duten. Eleberriaren hondar-kapituluetan azalduko denez, ZIUXSS planeta lurraren gainetik da goen makroegitura bat da, gizakiak ezagutzen ez duena. Makro-egitura ezezagun honen menpe dago eta egon da lurra, betidanik.

1.5. Boterearen eskerra

Nestor Peillorenaren harrapatua sentitzen da hondar-kapitulu hauean: batetik, erleek “beste izakia” edo “beste adimena” sortu dute, baina bitartekaria bera eta bere lagun ikerlariak izan direla ulertzen du. Erleek erabili egin dituztela, nolabait. Erabilte horretan, ikusi du baita, gizakiaren botere-goseak saldu dituela, zein baino zein botere-tsuago izateko asmoz edo gogoz, lantaldeko ikerlari guztiak erleei formula zientifikoak pasatzen aritu baitira.

Erleek, ikerlariei, beren herrialdeetara joan eta nor bere etxean, Nestorrek eraiki bezalako erlauntza erraldoi bana egiteko agindu diete. Erlauntza horiexek izango dira, etorkizuneko ZIUXSS makro-egituraren oinarriak, lurra eta gizakia berenganatzeko eta menperatzeko erabiliko duten egitura oinarritzkoa (betidanik izan den bezala). Eleberriaren azkena esperogabea ezezik, beldurgarria ere bada. Zientzia-fikziozko filmeek ohituta gauzkatzen bezala, kontakizunaren hari bati bai ematen zaio amaiera, kasu honetan, Joxeren hilketari (erleek, “beste adimen” horrekin, Nestor Peillorenari badakitela nor den Joxeren hiltzailea aditzera ematen diote, Nestor bera, alegia), baina beste bat irekitzen da, zeinak irakurleari zer pentsatua emanen dion, eta erreakzionatzera bultzatuko duen. Gizakia zapalduko duen espeziea abian da. Hazten ari da. Gizakiak, bada, beste izaki bat sortu nahi izan du, bera baino adimentsuagoa (ahal izanez gero) bere kezka eta

buruhausteei irtenbidea eman ahal izateko. Baina argi dago, botereak, zientzia-fikzioaren barruan zein kanpoan, fantasiari dei eginez edo ametsetarako tresna izanda, ez duela esker onik. Ez eta gizakia-
ren handinahikeriak ere.

2. Xabier Kintana. 1972. "Ukronia", Behin batean. Donostia: Lur, 1972.

Beste izakia idatzi eta hiru urte beranduago, 1972an hain zuzen, Xabier Kintanak zientzia-fikziozko beste ipuin bat idatzi zuen eta Lur argitaletxearen Behin batean ipuin bilduman argitaratu. Ipuinaren titulua: "Ukronia".

Xabier Kintanaren zientzia-fikziozko lehenengo liburua argitaratetik 10 urtera, 1979an, Mikel Zaratek bere *Utopiaren fantasian*¹ liburuan, Behin batean ipuin bilduma desutopia bat izan zela adierazi zuen:

"amets gaizto bat. Zenbaitek burlaz hartu zuena, haserre gehienek. Baina nolana ere, amets bat zen hura ere. Geroztik, euskal letretan haren bidea ez du inork hartu".

Utopiaren fantasia-n liburuaren sarreran, Luis Haranburu-Altunak egindako hitzaurrean, Mikel Zarate, Euskal Herriak utopiaz duen beharraz ari zela dio. Altunak berak dioenez, "*historiaren abiada, utopiaren egarria da*", eta Monzonek, ostera, liburu berean jasota dagoenez, "*Euskadi utopiaren lurra da, utopiaren seme gara gu!*".

Utopia (edo ametsa, edo fantasia, edo zientzia-fikzioa bera), gurean, iraultza aldarrikatzera omen datorkigu:

"Gure Euskal Herria txikia da, zapaldua. Eta inondik itxaropenik izan ahal badu, utopiatik izanen du".

Guzti honi, beste era batera, bai Kintanak 1969-72an, eta baita Zaratek ere 1979an, "ilusioa" deituko diote. Eta beren lanak, ilusioaren bidea zapuzten duten ideologia eta egoerak kritikatzeko osatuko dituzte.

2.1. Ilusioaren bidea zapuzten dutenen kontra

Idea hauexetan oinarritutakoa da Xabier Kintanaren *Ukronia* ipuina. Ipuin hau, *Behin batean* izeneko ipuin-bilduman agertu zen beste 6 kontakizunekin batera: *Sisyfo*, *Amore maite*, *Giza aldaketa*, *Indiarren istorio bat*, *Ukronia*, *Gorenkariak*, eta *Tresnak*.

Ukronia, erresuma hipotetiko bat da. Kintanaren ustez, “*etortzeko dagoen denbora da fruitakorrena*”, hau da, etorkizuna bakarrik menpera dezakegu, “*han, denetik gerta baitaiteke; han, dena baita posible*”. Ukronia, beraz, egon ez dagoen denbora da. Horrela bada, Kintanak, 36ko guda, II. Errepublikak, eta beste hainbat pasarte historiko aipatzen ditu, eta gertakizun guzti hauek agitu ez balira posible zatekeen denbora bat deskribatzen du. Ukroniara joateko makina sortzen du eta, bolaluma eskuan hartuz, idazten hasten da.

2.2. Euskal Herria ametsetakoaren mugak gaindiezinak ote?

Ukroniara heltzen denean, Kintanak, aurrekari historikorik gabeko Euskal Herria deskribatzen du: Bilboko kale eta dendetako izenak bi hizkuntzatan jarrita daude, lau egunkari aurki daitezke kioskoetan (Euzkadi, Euzkal-erria, Iparraldeko kazeta eta Euzkal egunkaria), Sabino Aranaren estatua bat ageri da Bilbo erdian, umeak eskolara kaitua eta txapela jantzita doaz, hizkuntza garbizalea nabari da nonahi (orlegia, izparringia, txaideak)...

Euskaltzaindiara doa lehenengo, eta lehen Euskaltzaindia zegoen egoitzan, orain, putetxe bat dagoela konturatzen da. Handik helbide berrira zuzentzen dute, eta han, osterak, egundoko ilara ikusten du, jendea, nor bere izen-abizenak euskaraz nola diren jakin nahian... Hortik aurrera, Euskaltzaindiaren eta EAJren hainbat jokabide kritikatzeko darabil Kintanak bere ibilbidea, bi direlarik, nagusiki, jorratu nahi dituen gaiak: euskara eta abertzaletasuna. Edo hobeki esanda: euskarak eta abertzaletasunak izan beharko luketenaren interpretazioa.

Ukronian, bi mundu bereizten edo deskribatzen ditu Kintanak:

1. Euskera batua eta literatur euskara noblearen aldekoak: hauei mordoiloizaleak deitzen zaie eta erdaltzale, zikin eta euskera aldrebesa darabiltenak dira.

2. Abertzaleak eta "garbiyak" direnak: "euzkera" herritar eta aberatsa dutenak.

Honekin batera, "arraza"ren kontzeptua ere jorratzen du Kintanak, Beste izakia eleberrian ere ("*mutillarentzat bekatua ez zegoan jokoan, ariar arrazako ez zan batekin egiteaz baiño*", *Beste izakia*, 9. kap., 187. orr.) eginen zukeen bezala. Sabino Aranak bere egunean egingo zuen bereizketaren menpe ote dauden galdetzen du, euskararen erabilera ezberdina egiten duten euskaldunak ere.

2.3. Zientzia-fikzioa helburu ideologikoen mirabe

Esan daiteke, Kintanak ez duela ipuin hau tentuz bukatzen. Bukatzeko presa daukala dirudi. Zientzia-fikzioaren generoa, oraingoan, kritika bideratzeko lurra ontzeko satsa du. Hala ere, idazlea bera desenkusutzen da bidaiaren laburraz: "*Pixka batekin nahikoa da. Droga bezala, bi gramo, bi gramo aski izaten da!*".

Ukroniak, hiru atal ditu: sarrerakoa (zeinetan Ukroniaren aurkezpena egiten den), Ukronian ikusten duena (menpera daitekeen denbora, alegia), eta makina puskatzen zaionekoa (bukaera). Baina egitura ez da justifikatzen egileak helarazi nahi digun mezuarekin. Forma eta edukiaren arteko erabilpena desegokia dela esan genezake.

Azken atarian ordea, Kintana kalera ateratzen da eta abertzale batekin topo egiten du. Abertzaleak gazteen kontra dihardu...

- Bai, zuek gazteok - esan daut.

- Zer gertatzen zaiku gazteoi ba?

- Zoratuta zaudete, h-ak eta horrelako gauzak... et et et. Eta burua eragin du jestu urrikalgarri batez. Guk gerra galdu ukan ez bage-nu...! Ai! Zer litzateke orain...

- *Ukronia* -erantzun diot. *Ukronia*; bai, *Estepan*, gaur *Ukronia* litzateke. *Eta barrezka, sorbaldan kolpetxo bat eman ondoren, barrezka joan natzaio.*

Kintanaren Ukronian ez dago kontraesanik, ez dago borrokarik. 70. hamarkadan edo ondoren jaio garenok ere kontraesan edo borroka hori Ukronia bezalako leku batean ezagutu dugu.

Joko oso polita da egileak bukaera honetan egiten duena. Ipuina gaurkotzen duen puntua da. Hain zuzen ere, gaurko irakurleak antzeman dezakeena horixe berori baita: Ukronia!

3. Hamar urte beranduago (1979)

Mikel Zaratek bere *Utopiaren fantasian* saiakera-iburuan, euskal literatura kaiolan dagoen txoriño bat dela dio. Gure herria bezala, bere izate osoan "bera" izan nahirik kaiolan dagoen txori destxoritua. Eta etorkizuna, utopia edo amets bilakatzea izan omen da 80. hamarkadararteko literaturgileen egitekoa.

Mikel Zarateren buruhaustek, gai honen inguruan, honela zerrenda litezke:

- Herriaren etsipena batetik, eta ametsaren formulazioa, bestetik.
- Itxaropena batetik, eta askatasunaren ametsa, bestetik.
- Euskararen purutasuna
- Herriaren desespero eta kontzientzia-hartzea
- Hiriaren gauzatzeak Euskal Herriari dakarkiokeen nortasun-galera
- Euskaltzaindiaren jarduna
- Ametsen indarra (ekintza zuzenetara gidatzeko duten indarra)
- Boterearen indarra (eta euskaldunaren ahalmena)
- "Herri" izan nahi duen nortasunaren aldarrikapena
- Zio zapaltzaileen identifikazioa eta herri zapalduen arteko lotura

Bi polo edo planotan kokatuko ditu bere azalpenak Mikel Zaretek. Polo kontrajarriak hauek lirateke:

Iraun, gogoa, iraultza	utopiaren fantasia
Larritasuna, etsipena, tristura, ezina	ametsa, bozkario, ero, egina
Luzatuz, eskubide zapalduak	sustraiak, utopiaren fantasia sustraitua
Lekukotasuna	betikotasuna

10 urte ondoren (1979an), zientzia-fikzioa baino haratago formula-tzen dira kezka eta beldurrak, eta Kintanak irtenbidetzat ikus zeza-keen garapena, arrisku bezala dakusa Zaretek (errobotez dihardue-nean, adibidez: *“zementozko kaiolan dago haurra. Bere bihotz bigun eta negarretan barre egin diote. Robotño kuttuna!”*. *Utopiaren fantasia-n*, 4. Kapitulua).

Gaur egun AMIA² bezala ezagutzen dugun azterketa baten emai-tzak argiago erakusten ditu Zaretek (alferrik ez baitira igaro Kintanak idatzitakoarengandik 10 urte), baina bera ere txori destxo-ritua den neurrian, ez da Euskal Herriak korritzeke dituen bideak zeintzuk diren zehazteko gai.

OHARRAK

1. Mikel Zarate. 1979. Utopiaren fantasian. Donostia: Kriselu.
2. Abantailak, Mehatxuak, Indarguneak eta Ahultasunak.

Hegats-en argitaratu nahi baduzu:

- Nora bidali: testuak posta elektronikoz edo posta arruntez EIEra bidali beharko dira *Hegats*-erako direla esanez.
- Nola bidali: testuak euskarri elektronikoa helarazi beharko dira.
- Data: EIEk urtean bi ale argitaratzen ditu (uztailean eta abenduan). Kasu batean zein bestean, testuak hiru hilabete aurretik bidali beharko dira.
- Karaktere kopurua: idatzi beharreko karaktere kopurua, sailaren arabera, honakoa da:
 - Literaturbideak: Prosa (ipuina...): 18.000 kk gehienez
Poesia: 320 lerro gehienez
 - Kritikabideak: artikulua (saiakera...): 18.000 kk gehienez
 - Liburu-iruzkinak: 5.000-9.000 kk artean
- Idazkuntza-kontseiluak egileari hartutako erabakiaren berri emango dio.
- Idazkuntza-Kontseiluaren eta egilearen arteko harremana, ahal dela, e-postaren bidez burutuko da.

Harpidetu zaituz:

Urteko harpidetza: 12€ (urtean 2 zenbaki). Dendan ale bakoitza: 7 €



HARPIDE-TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria: P.K: Tel:

Banku edo Kutxa:

Kontu-zkia (20 digito):

EIE

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Zurriola hiribidea, 14-1.ezk

20.002 DONOSTIA

Tel: 943.27.69.99; Faxe: 943. 27.72.88

e-posta: eie@eie.euskalnet.net

Ale honetako kolaboratzaileak:

- LOREA AGIRRE (Beasain, 1968): Informazio Zientzietan lizentziaduna. Euskaldunon Egunkariako (gaur, Berria) kazetaria. Argitalpenak: *Rosa Luxemburg* (Elkarlanean, 2001) eta *Jaxemi Zumalabe, Ipurtargiaren itzal luzea* (Egunkaria, 2003).
- ANDOLIN EGUZKITZA (Santurtzi, 1953): Hizkuntzalaritzan doktore eta irakasle titularra EHUn. Euskaltzain osoa. Itzultzaile eta idazlea: eleberriak eta poesia.
- EDORTA JIMENEZ (Mundaka, 1953): Elektronika eta kazetaritza ikasten aritu eta Euskal Filologian lizentziatua. Omar Nabarro seudonimoarekin poesia argitaratu izan du. Gaur egun, prosa idazten du.
- HENRIKE KNÖRR (Tarragona, 1947): Filosofia eta Letretan lizentziatua, Euskal Filologian Doktore eta Euskal Filologiako katedraduna EHUn. Euskaltzain osoa eta Landazuri aldizkariaren buruzagitzakoa.
- BEGOÑA DEL TESO (Donostia, 1959): Kazetaria eta zinema kritikaria. Hainbat komunikabidetan (Euskadi Irratia, Diario Vasco eta Euskaldunon Egunkaria (gaur, Berria) besteak beste eta erakundetan (Koldo Mitxelena, Donostiako Bekdurrezko eta Fantasiatzko zinemaldia) kolaboratzaile. Bere pasioak motorrak eta zezenak batez ere, eta tabakoa eta zinema dira.
- JOANES URKIXO (Bilbo, 1955): Euskal Filologian lizentziatua. Pott bandarekin kolaboratutakoa eta Ttu-Ttua literatur aldizkariaren sortzaileetarikoa. Idazlea eta gidoilaria.
- ANA URKIZA (Ondarroa, 1969): Informazio zientzietan lizentziatua. EIEko idazkari kudeatzailea. Idazlea: ipuinak eta poesia.
- ANTONIA VICENS (Santanyí, 1941): Kataluniako nobelagileen artean ibilbide literario interesgarrienetarikoa du idazle honek. 1967an Sant Jordi Saria jaso zuen. Bere lan aipagarrienetakoak: *39° a l'ombra* (1967), *La Santa* (1980), *Terra seca* (1987), *Febvre alta* (1998), *Lluny del tren* (2002).
- OLGA XIRINACS (Tarragona, 1936): idazle eta piano irakasle da. Formazio artistiko sakona du eta formazio horrek asko laguntzen dio bere sorkuntza literarioan. Eleberria, poesia, ipuinak eta saiakera idatzi du. Literatur sari askoren jabe da.
- IBAN ZAI.DUA (Donostia, 1966): Historialaria ikasketaz eta lanbidez. Idazlea: ipuinak, saiakera eta literatur kritika.



Hegats

32



Literaturbideak 🐾

ANTONIA VICENS.

Nire bizitzako itsasargia.

OLGA XIRINACS.

Itsasoa ondareztat.

HENRIKE KNÖR.

Zuri, euskal idazle horri.

Kritikabideak 🐾

EDORTA JIMENEZ.

Itzultzaile patologikoak.

Txosten monografikoa: 🐾 **Zientzia-fikzioa.**

IBAN ZALDUA.

Zenbait gogoeta zientzia-fikzioaren inguruan.

BEGOÑA DEL TESO.

Baina, benetan egiten dute amets ardi elektrikoekin?

Elkarrizketa: 🐾

EMILIO LOPEZ ADAN "Beltza".

Utopia eta kontrautopia, aurkia eta ifrentzua.

Lorea Agirre.

Liburu-iruzkinak: 🐾

GIBSON, WILLIAM. *Neuromancer*;

PHILIP K. DICK. *Minority Report* y
otras historias. Joanes Urkixo.

KINTANA, XABIER. *Beste izakia*;

KINTANA, XABIER. *Ukronia*; Ana Urkiza.

